

# ttipi-ttapa

**Mendiaren Eguna**  
eginen dute  
abenduaren 18an  
Donezteben / 24



**Miren Tirapu**  
Leitzako kultur  
teknikaria erronkez  
aritu da / 33

**Nafarroako aizkora**  
txapelketa nagusia  
abenduaren 12an  
Beintza-Labaienen / 51

## SINADURAK



## EGUBERRI ON!

Hauxe da aurtengo azken  
aldizkaria. 2022ko urtarrilaren  
13an hartuko duzue hurrengo  
**TTIPI-TTAPA!**

Urte  
berri  
on!



**ZOKKETA** / 72



Lutxi ALAVA ZAPORTA

**«GERO ETA ALZHEIMER**

**KASU GEHIAGO**

**AGERTZEN ARI DIRA»**

Aitari alzheimerra diagnostikatu ziotenetik  
AFAN alzheimerra dutenen senideen  
Nafarroako elkarteko kidea da lesakarra.  
Gaixotasun «gogor eta mingarri» horri aurre  
egiteko babesa eta konpainia elkartean  
aurkitu zituela dio eta gaixotasuna duten  
senideei elkartera jotzeko deia egin die. / 8

## Erosketak denda ttikietan

Tokiko dendak bizirauteko borrokan ari dira, argi dute herrian erosiz herriak bizirik mantentzen direla. / 31

# BERA LESAKA

## Agenda 2021-2022

**ABENDUA**

[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)

**LESAKAKO  
UDALA**

<p><b>ARGAZKI ERAKUSKETA AUTOPISTAK (ASIER GOGORTZA)</b> 16:00-20:00 larunbat eta igandeetan Irekia abenduaren 19ra arte Non ikastolako areto nagusian <b>BERA</b> Antolatzailea Labiaga ikastola</p>	<p><b>OLENTZERO ETA MARI DOMINGI</b> <b>ABENDUAK 15, ASTEAZKENA</b> KALEJRIAKO MUSIKARIEN ENTSAIOA 17:00 Musika eskolan</p> <p><b>ABENDUAK 17, ORTZIRALEA</b> GABON-KANTEN ENTSAIOA 17:15 Kultur etxean</p> <p><b>ABENDUAK 24, ORTZIRALEA</b> KALEJIRA HERRIKOIA 16:30 Merkatu plazatik Herriko etxeko plazara. (Eguraldi txarra eginez gero: Eztegara pilotalekuan 17:00ean). Ilunabarreen, helduak kalejiran ibiliko dira kantari. Gure txokoa elkarrekin antolatuta.</p> <p><b>ABENDUAK 31, ORTZIRALEA</b> 15:00 Glin-glan 18:00 Dios te salve (Gure Txokoa elkarteak) <b>BERA</b></p>	<p><b>ABENDUAK 31, ORTZIRALEA</b> DIOSSESALBEA ILUNABARREAN <b>LESAKA</b></p> <p><b>URTARRILA</b></p> <p><b>BORTZIRIETAKO GUZTIOK ELKARTEAREN ALDEKO EKITALDIA</b> <b>URTARRILAK 2, IGANDEA</b> MAGIA IKUSKIZUNA: ILUSIONARTE (JAVIER, ANKA, DANIELA ETA NEREA) 17:00 Kultur etxean Sarrera 5 € <b>BERA</b> Hizkuntza ele biz</p>
<p><b>KEINU LEIHOAK 17</b> <b>ABENDUAK 10, ORTZIRALEA</b> EMAKUMEEN PRESENTZIA EUSKARAZKO ANTZERKI SORKUNTZAN 19:00 Arranon <b>LESAKA</b></p>	<p><b>ABENDUAK 11, LARUNBATA</b> BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA <b>BERA</b> 10:30-13:30 Beralandetan</p>	<p><b>URTARRILAK 5, ASTEAZKENA</b> ERREGE KABALGATA 15:30 Erregeen pajeak herriko karraketan barna ibiliko dira gutunak biltzen 18:30 Errege Kabalgata (ibilbidea: Itzea auzotik Herriko etxeko plazara) (eguraldi txarra eginez gero, Eztegara pilotalekuan 19:00etan) <b>BERA</b></p>
<p><b>ABENDUAK 11, LARUNBATA</b> TALDEKAKO BERTSO LEHIAKETA <b>LESAKA</b> Antolatzailea Bortzirieta Bertsu Eskola</p>	<p><b>ABENDUAK 11, 18, 19</b> EGUBERRIETAKO KALEJIRAK Antolatzailea Santa Zezilia batzordea <b>LESAKA</b></p>	<p><b>URTARRILAK 5, ASTEAZKENA</b> ERREGE KABALGATA <b>LESAKA</b></p>
<p><b>ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA</b> <b>ABENDUAK 15, ASTEAZKENA</b> BIOLIN ENTZUNALDIA 18:00 Kultur etxean</p>	<p><b>ABENDUAK 19, IGANDEA</b> EGUBERRIETAKO AZOKA 10:00-14:30 Plazan Antolatzailea Argitsu Elkarte</p>	<p><b>URTARRILAK 8, LARUNBATA</b> BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA 10:30-13:30 Beralandetan <b>BERA</b></p>
<p><b>ABENDUAK 21, ASTEARTEA</b> PIANO ENTZUNALDIA 18:00 Kultur etxean <b>BERA</b></p>	<p><b>ZINEMA</b> 17:00 Harriondoan Antolatzaileak Irain eta Tamirumairu <b>LESAKA</b></p>	<p><b>URTARRILAK 9, IGANDEA</b> ESTITXUREN KONTZERTUA Harriondoa Kultur Etxean <b>LESAKA</b></p>
<p><b>ABENDUAK 17, ORTZIRALEA</b> IPARREKO ELEAK (XABIER MONASTERIO) LIBURU AURKEZPENA <b>BERA</b> 18:00 Herri liburutegian</p>	<p><b>ABENDUAK 24, ORTZIRALEA</b> OLENTZERO ETA JAIOZTEN LEHIAKETA 12:00 Plazan <b>LESAKA</b></p>	

**TIRIKITRAUKI**  
**EUSKAL JANTZIETAN**  
**AUKERA HAUNDIA**

Zuloaga Kalea 16, 20280 HONDARRIBIA

Tel.: 943 644 270  
emaila: denda@euskaljantziak.com  
[www.euskaljantziak.com](http://www.euskaljantziak.com)

**TRIKITIXA eta ESKU-SOINUEN,**  
**SALMENTA eta ALOKAIRUA.**

**DISEINU EZBERDINETAKO**  
**PANDEROEN SALMENTA.**

Oria etorbidea 10 | 20160 LASARTE

Tel.: 943 372 817  
emaila: tirikitrauki@tirikitrauki.com



## NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

### Jendearen joera berriak

Aspaldiko lagun dudan Joxemartiñek askotan esan izan dit zenbateko mesedea egiten duen, bere ustez, hirietan, saltoki handietan edo futbolari begira milaka lagun biltzeak. «Imajinatzen al dok jende pila hori asteburu mendialdean sakabanatuta? Ez genikek gauza onik izanen!».

Eta hara non 2020az geroztik birus-kutsatzeak eteteko tabernetan, kirol ekitaldietan eta abarretan jendea pilatzea galarazi nahi izan zen. Ondorioz, garbi arnasteko asmoz milaka lagun irten ziren mendi aldera, eskalatzera, erreketan bainatze-  
ra edota bizikletan ibiltzera. Inguruko nekazaritza- eta mendi-eremuetara ezagutzen ez zen bisitarien presioa iritsi zen, askotan mendi aldean ibiltzeko batere ohiturarik ez duen jendearen aldetik. Eta horrek bere ondorioak ekarri zituen: inguruko turisten gorakada, zaborrak, traban utzitako kotxeak, arazoak sortzen dituzten txakurrak, eta abar. Sadarren milaka lagun elkartzeko arazo batzuk sortuko ditu bertan, baina beste leku askotan, mesedea. Joxemartiñek arrazoi puska bat behintzat berea zuen, noski....

### «GARBI ARNASTEKO MILAKA LAGUN IRTEN ZIREN MENDI ALDERA...»



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

### Haizeak bidali du handikan honuntza

Joan den urtean hainbat bilera, sinadura-bilketa eta ezinegon eragin ondotik 2021ean isilik joan zaigu Lesakako haize-errota parkearen egitasmoa. Ezin jakin betirako kajoi batean gordea edo auskalo nongo *sukaldean* isilpean tturtur egosten. Brasilen haize-errotan egurrezko hegala egiteko Amazoniako basoa hondatzen ari direla eta pentsamendu hau bidali dit haizeak.

## NABARMENTZEKOAK



ESTITXU AROZENA  
LEHEN TXAPELDUNA



OSKAR MINDEGIA  
ZILARREZKO DOMINA

1995ean txapeldun izan zen lehen emakumeak, Estitxu Arozena lesakarrak, jantzi dio Nafarroako bertsolari txapeldunari txapela. Bertze emakume bat, Saioa Alkaiza, izan da txapeldun.

Kirol Merituari emandako dominak banatu ditu Nafarroako Gobernuak. Zilarrezko dominetako bat Doneztebeko judo eskolako arduradun izan den Oskar Mindegia jaso zuen.

## ATZERA BEGIRA



2011-12-15. TTIPI-TTAPA · 556 zk.

### Soberakinekin errezetak Alex Mugikak

Duela hamar urte ere, Hondakinen Prebentziarak Astea ospatu zuten Europa osoan eta aitzaki horrekin, Nafarroako Gobernuaren CRANA erakundeak soberan gelditutako janariekin egiteko errezeta ikastaroa antolatu zuen Iruñean. 30 bat lagun aritu ziren Alex Mugika sukaldari leitzarraren gidaritzapean. Mugikak berak argitaratutako *Reciclaje y alta cocina* liburitik hartutako errezetak landu zituzten. Liburu honekin, sukaldariek idatzitako liburu onenari emandako Gourmand Saria eskuratu zuen Mugikak 2008an. Tailerrean egindako menuan foie truffak, iberiko zuhaitza eta hestebeteak, errioxar erara egindako pataten kroketak, bildots eta patata terrina, tripaki eta ondoen fideuá eta turroi torrija prestatu zituzten.



**Argitaratzailea**  
Ttiipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttiipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,  
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Garnio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

**Fundazioaren Presidentea**  
Pello Apeztekoa  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia  
**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte  
**2021eko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 40€  
Leitza 30€  
Hego Euskal Herria 48€  
Ipar Euskal Herria, Europa 94€  
Amerika eta Australia 140€





## KOLABORAZIOAK

MAITANE MARITORENA AZKARATE

## '¿Qué significa tu nombre?'

Norbere izena izanen da segur aski, gure bizitzan gehien errepikatuko dugun hitza. Solastatzen hasten garelarik haur hizkerako hitzez gain, norbere izena da erakusten den lehenbizikoa, eskolarat hastean ere izena izaten da eskribitzen ikasten den lehenbizikoa, geure burua edozeini aurkezterakoan izenez erraten dugu nor garen... Josune, Jone, Lur, Haizea, Ainhoa, Uxue...

Aipatutako izen batzuk Sabino Aranak kristau izendegitik euskaratutakoak dira, bertze batzuk naturarekin zerikusia dutenak, edo toki izenak... Multzo batekoak edo bertzeokoak izan, euskal izenak dira guztiak. Izen bat edo bertze izan, izen hori daramatenek segur aski noizbait galdera berari erantzun izanen diote: *¿que significa tu nombre?* galdera hain zuzen. (zer erran nahi du zure izenak). Espainolez paratu dut, galdera hori egiten duena normalki espainol hitzuna delakoz. Galderaren egilea euskalduna bada, jakin-mina bertze bat da, egiarki izenak adierazi nahi duena zer den jakiteko galdetzen baitu, ez erdaldunak galdetzen duen zentzu berean.

*¿Que significa tu nombre?* galdetzen duen erdaldunak, ez du gure hizkuntzarekiko interesik erakusten, hala balitz

egunerokoan erabiltzen ditugun hitzak euskaraz nola erraten diren galdetuko bailuke, eta ez hizkuntza guztietarako balio duen izen propio bat nola erraten den. Ez baitu zentzurik sortzetik paratzen diguten izenak, -gerora aldatzeko aukerarekin- munda-

**«HORI GALDETZEN DUENAK EZ DU EUSKARAREKIKO INTERESIK»**

duko txoko guztietarako balio duenak, bertze hizkuntza batean (zapaltzailean) nola den galdetzeak. Ni Maitane naiz, Euskal Herrian, Espainian, Marokon eta Polonian. Pedro izena duena hala den gisa berean.

Alderantzizko ariketa egiten ahal dugu galdera horren norabidea goititik beheitik begirada batekin egina dela ikusteko. Euskaldun batek egundaino galdetu(ko) ote dio Luis, Carmen, Jose edo Teresa izena duen bati beraien izenak zer erran nahi duen? Espainol batek galdetu(ko) ote dio egundaino espainol izena duen bati bere izenaren erranahia zein den? Edo.. espainol batek galdetu(ko) ote dio egundaino Harry, Sharon, Pierre, Dominique... izena duen bati bere izenak zer erran nahi duen? Pedro izena duenak ba ote daki bere izenaren jatorria latinean duela eta harria erran nahi duela? Miriam izena duenak ba ote daki bere izena hebraieratik heldu dela?

*Que significa tu nombre* galdetzen duenak hortaz, ez du euskararekiko interesik; espainol hitzunendako espainolaren galbahetik pasatzen ez dena, ez da. Hizkuntza hegemonikoan mintzo den hiztunarendako, den-den-dena espainolaren begiradatik pasatuta neurtzen baita, bertze gisa ez da. Euskal izenak paratzea debekatu ziguten ez horren aspaldi, euskal abizenak euskal grafiaz eskribitzea ere bai. Orain, «utzi» uzten digute, baina...



MIKEL RODRIGUEZ LANDA

## Gaur egungo Nafarroa

Duela hilabete inguru kongresua egin zuen Espainiako sozialisten Nafarroako adarrak, PSNk. Maria Txibite Nafarroako lehendakaria berriz ere idazkari nagusi aukeratu zuten. Ekitaldi horren harira, PSNk Twitter sare sozialeko kontu ofizialean idatzi zuen «gaur egungo Nafarroaren antz handiena duen alderdia» dela. Hori horrela bada, erran nahi du gainerako alderdiek ez dutela nafarren batere antzik. Baina batere, batere.

Izan ere, Euskararen Legean eremu euskaldun gisa ezarrita dagoen horretan, hau da, biztanle gehienak euskaldunak dituzten herrietan edo euskara inoiz galdu ez dutenetan, PSNk pare bat zinegotzi baino ez ditu -Nafarroa Garaiko biztanleen % 10 hartzen duten 64 herritan, probintziaren ipar parte osoan-. Baztan-Bidasoan, Leitzaldean eta Xaretan, hots, euskararen ezagutza eta erabilera proportzioan handiena den eskualdeetan, zinegotzi bakar bat ere ez du, eta 2019ko parlamenturako hauteskundeetan, lehendakaritza lortu zueneko horietan, laugarren indarra izan zen, eta ez zen botoen % 6ra ere ailegatu -konparaziorako, hirugarren indarrak, Navarra Sumak, botoen % 13,65 lortu zituen; bigarrenak, Geroa Baik, % 35 pasa; eta babes gehien izan zuenak, EH Bilduk, ia % 40-. Argi ikusten da, beraz, euskal

**«PSNKO ZUZENDARITZAKO 30 KIDEETATIK BAKARRA DA EREMU EUSKALDUNEKOA»**

eremu euskalduneko.

Hala ere, nahiz eta Nafarroa Garaiko zona oso batekin duen disoziazioa erabatekoa izan, PSNk bere burua legitimatuta ikusten du errateko «gaur egungo Nafarroaren antz handiena duen alderdia» dela. Nafarroa Garaiko nazionalista espainolak diktadura bukatu zenetik predikatzen ari dira euskarak eta euskal identitateak ez dutela zerikusirik probintziarekin. Euskal alderdi abertzaleei haien proiektu politikoak gauzatzeko bidea ixteko obsesio horretan, espainolistek nafar normalaren eredutzat ezarri dute euskalduntasunarekin harremanik ez duen identitate eta hizkuntza espainoleko herritarra. Hori lortzeko bi tresna erabili ditu, bertzeak bertze: bata, 1986ko Euskararen Legea -euskarak gaztelaniaren inposizioak galarazitako lurraldeak berreskuratu ez ditzan probintzia hiru eremutan banatzeko, tokiaren arabera euskaldunei eskubide gehiago, guttiago edo batere ez aitortzeko-; eta, bertzea, 2003ko Ikurren Legea, ikurriña toki publikoetan paratzea debekatzeko.

Horrela doktrinatu dute Nafarroa Garaiko gizartea azken 40 urteetan, eta horren ondorioak gordinki sumatzen dira gaur egun. Hain gordinki, boterean den alderdiak ez duela kontuan hartu beharrekotzat ere sentitzen euskaldunen artean duen babes marjinala «gaur egungo Nafarroaren antz handiena duen alderdia» dela erraterako orduan.

## 11 GALDERA LABUR

ENARA ARREGI OTEGI AZPILKUETAKO GAZTEA

## «Etengabe ikastea eta berritzea arras garrantzitsua da»

### Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Etengabe garatzen ari den sortzailea.

### Zein dira zure zaletasunak?

Musika aditzea eta sortzea, leitzea, antzeztea, idaztea, era guzietako jende eta kulturak ezagutzea, filosofatzea... Nire zaletasunak nire lanbide bihurtzea da nire helburua.

### Zer ikasten ari zara?

Antzerkia ikasten ari naiz Madrilen. Musikari buruz ere gauza aunitz ikasten ari naiz Interneten eta liburu bitartez, autodidakta moduan. Etengabe ikastea eta berritzea arras garrantzitsua da.

### Zergatik Madrilen?

Nire marketin irakasleak erran zidan bezala, Madril Espainiako Hollywood da. Aukera

pila daude eta jende aunitz dago industrian gauzak egiteko eta kolaboratzeko desiatzen. Bizitza nik bezala ikusten duen jendea ezagutu nahi nuen.

### Zer espero duzu ikasturte honetan?

Gogotik ikastea eta hainbat proiektutan lan egitea.

### Noiz hasi zinen musikarekin?

Zortzi urterekin maitemindu nintzen musikaz, eskolan irakasleak pianoa jo zigun egun batean. Bederatzi urterekin hasi nintzen musika eskolan. Pianoa, gitarra eta baxua jotzen ditut.

### Zein izan da zure ibilbidea?

Zuzeneko emanaldiekin hasi nintzen duela urte batzuk eta orain nire lehen *single*a kale-ratuko dut.



### Oholtzaren gainean, kantatu edo antzeztu?

Kantatu, dudarik gabe. Musika konpartitzea arras berezia eta polita da. Antzeztea niretako arras intimoa da, pertsonaia eta bizitzen ari den egoeran arras sartuta egon behar dut, hortaz nahiago dut kameraren aitzinean antzeztu.

### Ba al duzu proiekturik buruan?

Abenduan film labur batzuk grabatzen ariko naiz, eta aurki argitaratuko dut nire lehen-

dabiziko kanta. Proiektu gehiago dauzkat buruan... Laster izanen dut gehiago kontatzeko aukera.

### Zure asmoak epe motzera?

Casting aunitz egitea eta hainbat proiektutan parte hartzea. Nire film laburrak sortzea ere gustatuko litzaidake.

### Eta epe luzera?

Sormena hainbat alorretan lantzea, nire proiektuak gauzatzeta eta nire helburuak lortzea. Arteaz eta bizitzaz gozatzeta eta ikasten segitzea.



**1951tik**  
**Casa Cambra**  
**lentzeria-etxea**

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

**Albornozak**  
**Mantelak**  
**Kuxinak**  
**Edredoi nordikoak**  
**Ohe estalkiak**  
**Maindireak**  
**Toailak**  
**Edredoi-azal nordikoak**



## IRAKURLEAK MINTZO

### Euskaraz bizitzeko, Euskararen Errepublika

URKO AIERBE SARASOLA  
EHE-KO KIDEA

Ikusgarria da azken mende erdian euskararen alde euskaldunok egin dugun lana. Horri esker euskara galzoriaren ertzetik urruntzea lortu dugu, harro egoteko modukoa den herri ahalegina izan delarik.

Asko egin eta lortu dugu zalantzarik gabe, baina ez da nahikoa. Euskararen patua amildegitik urrundu dugu baina ezin esan etorkizuna ziurtatua duenik. Ez etorkizuna ezta orainaldia ere, egun ezin baikara euskaraz normaltasunez bizi. Gure haur askok ez dute euskara maila nahikoa lortzen, eta lortzen dutenen kasuan erdaraz hitz egiteko joera nagusi da, ingurune linguistikoak horretara bideratzen baititu. Udalera jotzen dugunean, edo medikuarengana, edo beste zerbitzu publikoetara, langile euskalduna topatzea mirari bat izaten da askotan. Lan munduan zer esanik ez, euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da. (...) Hori gutxi ez eta euskararen eta euskaldunon aurkako espainiar eta frantziar estatuen ekinbideak ez du etenik, azken egunetako adierazpen eta epaiek adierazten diguten bezala.

Urteotan euskararen alde egindako lan guztia bururaino eramane eta euskaldunok euskaraz bizi ahal izateko burujabetza behar dugu ezinbestean. Soilik euskaldunoi dagokigu erabakitzea zein nolako hizkuntza-politika aplikatu behar den gure herrian. Burujabetzarik gabe kanpoan erabaki eta ezartzen digute euskararen hedapena noraino eta nolakoa den (...).

Ondorioz, duela 40 urte gure herrian ezagutu genuen euskararen aldeko susperraldi berri baten beharra dugu. Pertsona eta talde euskaltzaleak berriz ere aktibatu eta kalera ateratzeko unea dugu. Euskal Herrian Euskarazek kalera ateratzeko deialdia luzatzen dizu beraz euskaltzale lagun hori. Euskaraz bizitzeko kalera!

### Euskal Herria iraganean

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Euskal Herriak iragan luzea dauka. Adituen esanetan, beste inork baino luzeagoa. Hori baieztatzeke, bere hizkuntzan oinarritzen dira, besteak beste. Bere antzinatasunak arlo guztietako zientzialari, kazetari eta idazle atzerritarrek erakarri ditu, mendeetan zehar. Batzuentzat, Euskal Herria, herri baztertua, isolatua, eskolagabea, txiropa omen zen. Beste askok, alderantziz, herri aurreratuen artean jartzen dute, eta arlo batzuetan beste guztien gainetik: Itsasontziak eraikitzen, bakailoak eta baleak arrantzatzen, hauen koipea tratatzen, eta lurrak lantzen, adibidez.

Erdi Aroaren amaieran, Europako ontzigintza teknika puntakoan erabiltzen zituzten. Gainera, balea arrantzarako hainbat teknika asmatu zuten, eta XVII. mendera arte European eurek, bakarrik, ziren baleak harrapatzeko kapaz. Hauetako batzuen ikuspegiak jaso ditu Jose Felix Diaz de Tuestak bere liburuan: *Euskal Herria atzerritarren ahotan*. Egileak esaten duenez, ezinezkoa da idatzi den guztia liburu bakarrean jasotzea (...).

Philippe Veyrin (1910-1962) Baionako

Euskal Museoa eta Eusko Ikaskuntzan lan egin zuenak dio: «Gero eta zailagoa da euskaldunak isolaturik bizi izan diren aurreiritzia defenditzea». Historia eta historiaurrea bat datoz: Eskualde hau ez da inoiz hesi gaindiezina izan. Urteko edozein sasoiotan, handik pasatzeko ez dagoelako arazorik. Aitzitik, betidanik izan da migratzaile inbasio militarrek egiteko, merkatarien arteko harremanetarako eta eragin espiritualetarako pasabide egokia. Henriette Walter (1929) frantziar hizkuntzalariak dio: «Europako herri guztien artean, akaso euskaldunak izan dira gehien nabarmendu direnak zelta, erromatar eta germaniar inbaditzaileen hizkuntzen gainetik eta ondoren, gaztelaren eta frantsesaren presioari aurre egin eta beren hizkuntzak oraindik bizirik irauten dutenak».

Jean Bourgoing (1748-1835) frantziar euskal izaerari buruz hau dio: «Ez nabil gaztelarrak irigarri utzi nahian, baina bizi diren lautadak bezain isil eta tristeak dira. Baskonian, berriz, pertsonak beste itxura, beste izaera bat daukate: Libreak, alaiak eta abegitsuak dira». Wilhelm von Humboldt (1767-1835) hizkuntzalari alemaniar ospetsuak dio: «Herrialde bakarra da kultura intelektuala eta moralak herrikoitasunean benetan txertatzen duena, goiko eta beheko klaseen artean». Jose Ortega y Gasset (1883-1955) espainiar filosofo ezagunak hala dio: «Ez dut uste European moralitasun aratza gorik duen herririk egongo denik; aurpegiz bezain zuzena eta noblea, arimaz». Toni Strubell (1952) historialari katalanak, 1981etik Euskal Herrian bizi denak, hau dio: «Leku gutxi dago munduan Euskal Herriko bizi kalitatea duenik».

### IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTAPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

EUSKARAREN TXOKOA

## Zaindu maite duzun hori...

### Kalko ustelak

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

#### \*Aldaketak jasan? ala Aldaketak izan?

Euskaltzaindiak dioenez, desegokiak dira erdarazko (es) 'sufrir' / (fr) 'subir' aditzaren kalkoz osaturiko esaldiak. Hona hemen adibide batzuk:

-\***Dekretu-egitasmoak aldaketa batzuk jasan ditu**

> Dekretu-egitasmoak aldaketa batzuk izan ditu.

-\***Kamioizaleak zauriak jasan ditu eta ospitalera eraman dute**

> Kamioizalea zauritu egin da eta ospitalera eraman dute

> Kamioizalea zaurituta ospitalera eraman dute.

### Hieroglifikoa

Zein dira eskualdeko herri hauek?



+ (11-9) + eta



+ U



- R

### Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

### \*Ikusi didazu? ala Ikusi nauzu?

Aunitzetan nauzu erabiltzen da didazuren lekuan, eta alderantziz ere gertatzen da. Erreparatu ongi adibide hauei:

-\***Eskolara joateko esan nauzu**

> Eskolara joateko erran didazu.

-\***Mendian ikusi didazu** > Mendian ikusi nauzu.

## «Alzheimerra memoriaren galera baino gehiago da»

LUTXI ALAVA ZAPORTA AFAN ELKARTEKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

Aitari alzheimerra diagnostikatu ziotenean sartu zen alzheimerra dutenen senideen Nafarroako elkartearen eta hor segitzen du geroztik. Gaitzaren alde ilunak eta gogorrak aipatu ditu eta familiek halako momentu gogorretan behar duten babesa elkartearen aurkituko dutela nabarmendu du

**G. PIKABEA** | LESAKA

«Alzheimerra gaixotasun mingarria eta gogorra» dela dio Lutxi Alava Zaportak (Lesaka, 1968), eta badaki zertaz ari den. Aitarekin ezagutu zuen, eta «hagitz gogorra» egin zitzaion «etxeko pilare garrantzitsueta-ko bat ezezagun» bihurtu zela ikustea. Orduko minez eta gaitzaren itzaleko kontuez mintzatu da. Duela hiru urte hil zitzaion aita, baina oraindik AFAN alzheimerra dutenen senideen Nafarroako elkartearen zuzendaritzan segitzen du, behar zuenean elkartearen hartu zuen babesa eta laguntza bihotzearan daramatzalako, eta bere egoeran daudenentzat lagungarri izan daitekeela sinetsita, horren berri eman nahi duelako.

**Aitarekin ezagutu zenuen alzheimerra... Nola izan zen?**

Aitari 2007an diagnostikatu zioten, eta hagitz gogorra izan zen. Etxean ezinbertzeko pilarearen zen eta bat-batean horrek huts egin eta ezagutzen ez ginen norbait bat bihurtu zen. Denontzat gogorra izan zen, baina benetako kolpea etxean bere ondoan zegoenak hartu zuen, amak. Seme-alabak ere ondoan egon ginen baina bereziki amari aldatu zitzaion bizitza, bera izan baitzen zaintzaile nagusia.

**Zein izan ziren zerbait bide onetik ez zihoala pentsatzeko lehenbiziko sintomak?**

Sintomak diagnostikoa eman baino lehenagotik hasten dira.

Aitaren kasuan, 70-71 urte zituela, gidabaimena berritzeko hitzorduaren harira, hagitz urduri jarri zen, eta handik aitzinera urduri ikusi ginen. Amari zenbat urte zituen galdetzen hasi zen, ez zela oroitzen, autoa hartzen zuenean eta euria egiten bazuen hagitz urduri jartzen zen, botoiak gaizki lotzen zituen.... Halako detaileak.

**Diagnostikoa noiz eman zizueten?**

72 urte zituela. Gainera, joan ginenerako estimulazioa lantzeko beranduegi zela erran ziguten. Lehenagotik saiatu ginen baina berak ez zuen nahi.

**Nola garatu zuen gaixotasuna?**

Fase guztietatik pasatu zen, eta poliki-poliki bere gaitasunak galdu zituen. Bere idazkera zoragarria ez zuen berreskuratu, koadernoak erosten genizkion arren ez zuen kalkuluak egitea lortzen, haserretzen zen... Orientazioa luzaroan mantendu zuen, eta paseatzera ateratzen zenean jendeak aunitz lagundu zion. Ahal ginen denbora gehien etxean edukitzen saiatu ginen baina laguntza behar ginen momentua ailegatu zen. Lehenbizi, Berako eguneko zentroran eraman ginen, eta handik etortzen zenerako zaintzaile

**«ZAHAR ETXEAN SARTZEA IZAN ZEN FAMILIARENTZAT GOGORRENA»**

bat hartu ginen. Baina egoerak okerrera egin eta zahar etxera eraman behar izan ginen.

**Gogorra izan zen?**

Bai, dudarik gabe, gogorrera zahar etxera eramatea izan zen. Gaiaz bertze batzuekin solastatu izan naizenean ere horixe bera erran izan didate, zahar etxean sartzea dela familiarentzat momenturik gogorrera. Hagitz pauso mingarria izan zen, baina ezin izan ginen bertzerik egin. Ama egunero zahar etxera joaten hasi zen, seme-alabok lagunduta.

**Eta aitak nola erreakzionatu zuen?**

Beretzat ere ez zen erraza izan. Nahiz eta galdurik egon, nahiz eta aunitzetan ez zuen bere etxea ezagutzen eta bere sortetxearekin nahasten zuen, bere ingurutik ateratzea hagitz gogorra izan zen. Hagitz eskertuak gaude zahar etxeko langileekin eta boluntarioekin.

**Bide luzea izan zen?**

Bai, luzea izan zen, alzheimerra memoriaren galera baino aunitzez gehiago delako. Aitaren kasuan, hamar-hamabi urtez luzatu zen, eta tarte horretan aunitz egin zuen okerrera. Gaizki pasatu zuen, eta gainera,

**«GERO ETA ALZHEIMER KASU GEHIAGO AGERTZEN ARI DIRA»**

ospitaleratze bat baino gehiago izan zituen. Ez dute alzheimerra duten guztiek bide bera egiten, pazientearen arabera da, baina gure aitaren kasuan bai berak baita guk ere aunitz sufritu ginen.

**Hasieratik jo zenuen AFANera?**

Ama eta biok hasieratik joan ginen, etalaguntza handia eman ziguten. Babes psikologikoa, konpainia, tailerrak... Garai hartan, Donezteben alzheimerra dutenen senitaratekoak elkartzeko talde bat ere izaten zen, eta zoragarria izan zen. Egoera beltza eta tristea izanda ere, irri eginarazi ziguten. Pandemiarekin, talde hori bertan behera gelditu zen, baina zinez ederra izanen litzateke berriz martxan jartzea.

**Oraindik elkartearen segitzen duzu...**

Bai. Gure aita duela hiru urte hil zen, baina elkartearen segitzen dut. 2014az geroztik elkartearen zuzendaritzako ordezkaria naiz. Elkarteak izugarriko laguntza eman zigun, eta lehen hartu nuenagatik orain niri hori egotea dagokidala sentitzen dut. Gainera, lantaldean hagitz gustura gogo.

**Gizarteak badaki zer den alzheimerra?**

Ezaguna da, baina hurbiletik ezagutu arte ezin dugu egiazki zer den jakin. Jendeak memoriaren galera dela pentsatu du, baina hori baino gehiago da. Horregatik sentsibilizatzen segitu behar dugu eta hori da elkartearen helburuetako bat, ezagutzera ematea.

**Alzheimerra memoriaren galera baino zerbait gehiago dela aipatu duzu. Azalduko zenuke?**

Memoria galtzeaz gainera, gaixoak bizitza osoan garatu dituen gaitasun guztiak poliki-poliki galtzen ditu: izaera, harremanak izateko gaitasuna, afizioak, solastatzeko eta idazteko gaitasunak... Denborarekin ez dira janzteko gai, ezta mahai-tresnekin moldatzeko gai ere... Azken faseetan solastatzeari uzten diote eta erabat menpeko bihurtzen dira: janzteko, garbitzeko... Denetarako laguntza behar izaten dute. Horrez



gain, portaeran nahasmendu handia izaten dute. Hagitz urdu-ri jartzen dira, lasaitasuna falta zaie, ezin dute gelditu, haluzinazioak izaten dituzte... Aunitzetan agresibo jartzen dira eta hori kudeatzea hagitz zaila da familientzat, eta batez ere, zaintzaile nagusiarentzat. Gainera, kontuan izan behar da, gehienetan zaintzaileak emakume adinduak direla. Bide horretan, AFAN izugarritzko baliabidea iruditzen zait, alzheimerrean eta bertze dementzietan erabat espezializatua dago, eta prozesu osoan babesa emateko gai da, elkartera joaten zarenetik heriotzaren momentura arte.

#### **Gaur egun ez dago gaitza sendatzeko botikarik. Zein da egoera?**

Gaiaz ez dakit aunitz, baina botika bat atera dute eta entsegu klinikoak egiten ari dira. Esperantzagarria izan daiteke, baina Europako Botiken Agentziak onartu behar du.

#### **Administrazioak nahikoa bideratzen duela uste duzu?**

AFAN elkartearen aurrekontuaren zati handiena Nafarroako Gobernuak finantzatzen du. Bera da gehien laguntzen duena, baina beti bada zer hobetu. Adibidez, gehiago finantzatu beharko lukete, kaltetuentzako eta haien familientzako baliabideak falta direlako.

#### **Zenbateraino da garrantzitsua diagnostiko goiztiarra?**

Diagnostiko goiztiarrak prozesua ahalik eta gehien berandutzeko balio dezake. Estimulatzeko eta gaitasunak ez galtzeko hagitz garrantzitsua da.

#### **Baina ezin da prebenitu...**

Zientifikoki konprobatua dago ohitura osasuntsuek alzheimerraren diagnostikoa gibelatzen ahal dutela. Adibidez, kolesterol maila altua izatea txarra da, eta aldiz, elikadura osasuntsua izatea, ongi deskantsatzea edota harreman sozial onak izatea hagitz garrantzitsua. Prebenitzea bertze kontua da.

#### **Ikerketetatik aparte, zer egin daiteke familiei laguntzeko?**

Familiei laguntzeko edozein bitarteko ona izan daiteke: eguneko zentroak, babes taldeak...



Alavak alzheimerra dutenen familiei AFANera joateko deia egin die. Behar duten babesa eta konpainia han aurkituko dutela dio.

#### **Pandemiak zein neurritan eragin die alzheimerra dutenei eta haien familiei?**

Pandemia garaian gaixoeke nabarmen egin dute okerrera. Ezin izan dute eguneko zentroetara joan eta hori familientzako zama handia izan da, batzuk hagitz gaizki pasatu dute. Ez hori bakarrik. Gaixo aunitzen artean, gaixotasuna espero baino agudoago garatu da. Zahar etxeetan zeudenen kasuan, berriz, batzuk bederatz hilabete eman dituzte senitartekoak ikusi gabe, eta hori kolpe handia izan da. Aunitz ez dira solastatzeko eta sentitzen dutena adierazteko gai, eta senitartekoak dira euren ahotsa, inork ez bezala interpretatzen dutelako gerta-

tzen zaiena. Zahar etxera eramaten dituzu baina maite dituzu, eta harremanak izateko gaitasuna galdu badute ere, eurek dira, eta zahar etxeetako langileek ahalik eta hobekien egin duten arren, baina senitartekoak behar dituzte.

#### **Zein aholku emanen zenieke alzheimerra dutenen familiei?**

Laguntza guztia beharrezkoa da, lagunena, familiena, medikuarena... Baina badira ihes egiten duten kontuak. Adibidez, hasieran zerbait nahita egiten dizula pentsatzen ahal duzu, eta ez da horrela. Edo badira kontaktzen ez diren gaixotasunaren alderdi batzuk, agresibitatea kasu, baina hori ere gaixotasunaren parte da. Halako egoerak ulertzen laguntzen

du AFANek. Halako momentuetan behar den konpainia egiten du, eta horregatik, sufritzen ari diren familiei elkartera hurbiltzeko erranen nieke. Laguntzeko daude eta momentuko egoerara egokitzen dira. Prozesuan zama arintzen dute eta doluan ere bidelagun izaten dira. Kalitate handiko babesa eta konpainia da eta sufrimendua aunitz arintzen dute.

#### **Etorrizuna nola ikusten duzu?**

Biztanleria gero eta zaharkituagoa da eta gero eta alzheimer kasu gehiago ikusten dira. Gainera, gero eta gazteagoen artean agertzen ari da. Aunitzek uste dutenaren kontra, ez da atxiki-amatxien kontua, badira 50 urtetik goitikoen arteko kasuak ere. Erronka handia dugu.

## Irisgarritasuna hobetzeko lanak Eztegaran

Eztegara pasealekuan liburutegitik Espidobaitara arteko espaloia moldatuko dute irisgarritasuna hobetzeko

### AINHOA LARRETXEAA AGIRRE

Udalak mugikortasunaren plana garatzen segitzen du. Oinezkoentzat, gurpil-aulkien erabiltzaile eta antzekoen erosotasunerako hobetze lanak egiten ari da herriko hainbat txokotan. Eztegara pareko zebra-bidean irisgarritasuna hobetzeko lanak egin ondotik, liburutegiko aparlekuko irteeratik Espidobaitara tarteko espaloia berrituko da. Lan hauen kostua 42.222,28 eurokoa da.

Horrekin batera, Suspela auzoko Idoiako pista zatiak

hormigoitu ditu udalak. Ko-txeentzako egoera arriskutsuan zegoen, aspalditik kaltetua, eta bizilagunen erosotasunerako moldatu dute. Gainera, bizilagunetz gain, hainbat herritarrek erabiltzen duten pista ere bada.

1.002 metro karratu hormigoitu dira, eta 153 metro kubiko hormigoia erabili dira horretarako. Obraren kostua 60.000 eurokoa izan da eta Berako Udalaren gain joan da gastu guztia. Bidean beherago ubide baten arketa ere moldatu dute.



Eztegara pasealekuan espaloia moldatuko dute liburutegitik Espidobaitara.



Suspela auzoko Idoiako pista moldatu dute egoera txarrean zegoelako.

**amalein**  
ARRAINDEGIA

948 630 981 · 620 828 757  
Itzea, 6 · BERA · NAFARROA

**PAGOLA**  
Harategia - Hestebeteak

Altzate Plaza, 2 · Bera · T. 948 63 00 54  
[www.embutidospagola.es](http://www.embutidospagola.es)

**Jaurena**

Zure oparia hemen!!!

T. denda 948 631 217 · T. 630 136 863 · Julio Caro Baroja, 6-BERA · [jaurenabera@gmail.com](mailto:jaurenabera@gmail.com)

SAMSUNG 2021 QLED

SAMSUNG Galaxy A12

# Ekitaldiz beteak heldu dira aurtengo Eguberriak

laz ez bezala, aurten Olentzeroren bisita eta kalejira aurreikusi dituzte abenduaren 24rako

## TTIPI-TTAPA

Ailegatzeak dira Eguberriak, eta aurten bai Olentzerok bisita egingen du Berara. Kalejira antolatuta dute egun horretarako, eta aitzinetik egingen dituzte entseguak. Abenduaren 15ean kalejiran parte hartuko duten musikariek entseguak egingen dute Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolan, 17:00etan. Abenduaren 17an, aldiz, gabon kanten entseguak izanen da kultur etxean 17:15ean.

Abenduaren 24an, 16:30ean abiatuko da kalejira merkatu

plazatik Herriko Etxeko plazara. Bertan gabon kantak kantatu ondotik, Olentzero etorriko da.

Iluntzean, aldiz, Gure Txokoa Elkarteak antolatuta Olentzero kantatzera aterako dira.

Abenduaren 31n, Glin-Glan eta *Diostesalve* ospatuko dituzte. 15:00etan egin dute hitzordua Glin Glanerako Ageran. 18:00etan, aldiz, Gure Txokoa Elkarteak antolatuta *Diostesalve* kantuan aterako dira Iamotenetik.

Errege Magoen kabalgata ere izanen da urtarrilaren 5ean.



Gure Txokoa Elkarteak antolatuta Olentzero karrikara aterako dute.

15:30ean pajeak karriz karriz ibiliko dira haurren gutunak biltzen. Ondotik, 18:30ean aterako da Kabalgata Itzetik Herriko Etxeko plazara.

Bertzelako ekialdiak ere izanen dira datozen egunetan. **Abenduaren 15ean eta 21ean** piano eta biolin entzunaldiak izanen dira 18:00etan kultur etxean. **Abenduaren 17an**

Xabier Monasteriok *Iparreko elea* liburua aurkeztuko du 18:00etan herriko liburutegian. **Abenduaren 26an**, Gure Txokoa Dantza Taldeak, eta Berako Erraldoien Konpartsak emanaldia eskainiko dute 18:00etan Eztegarra frontoian.

**Urtarrilaren 2an** magia ikuskizuna izanen da Bortzirietako Guztioek elkartearen alde 17:00etan.

**MARITX**

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

**xirgil**  
jaione goya

ileapaindegi mistoa

Altzate 1, 31780 BERA  
948 631 462

Ainhize Irazoki  
Argazkilaritza

Gaiznize irazoki argazkilaritza  
649771459

**Alberto RETEGI**  
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**JAIONE - GOXOTEGIA**

Etxean egindako produktuak

**948 630 786**  
Altzate, 21 · BERA

**Hotel Churrut**  
HOTEL

**2021eko Urte Zahar Gaueko Menua**

Guijuelo JD urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin.  
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin.  
Ganboiak plantxan.

Itsaskiz betetako legatza amerikar saltsarekin.

Idi-azpizuna, ahate-kurruskaria, lasto-patata habia eta foie-saltsarekin.

Etxeko kremazko tututxoak, txokolate bero eta praline-izozkiarekin.  
Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotiloi poltsa.

Alkorta ardo beltz ondua (Errioxa), Las Campanas ardo gorria (Garnatxa), Las Campanas ardo zuria (Chardonnay), Codorniu Brut Cava, Kafea eta likore kopa.

Prezioa: 80€ BEZ barne

Oporrengatik itxia:  
Urtarrilaren 10etik otsailaren 10era (biak barne)

Foruen plaza · BERA · T. 948 62 55 40 · T. 948 62 55 42 · [www.hotelchurrut.com](http://www.hotelchurrut.com)

**ERAKUSKETA**

TALLER MUSEOA

**ArMi**

SUSPELA auzoa, 1A BERA

ORDUTEGIA  
10:30-13:30  
16:00-19:30

JOKIN ARMAN  
Margolaria / Eskultorea

TRINI MIQUELARENA  
Margolaria / Marrazkilaria

Tel.: 670 260 424 - 677 471 966




Zia erreka handituta Zubixabal inguruan. UTZITAKOA

## Uholde arriskua dagoenean herritarrei abisua emateko SMS zerbitzua

Uholde larrialdi-abisua eta alertak herritarrei modu azkar batean zabaltzeko SMS zerbitzua sortu du Berako Udalak, Life Nadapta proiektuarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketaren laguntzarekin. Zerbitzua- ren helburua Bidasoa ibaiak eta Zia erreka gainezka egitean

sortzen ahal diren kalteak aurreikustea eta murriztea da. Alta emateko [www.uholdeak-bera.tesicnor.com](http://www.uholdeak-bera.tesicnor.com) helbidean sartu behar da.

Azaroaren 24an uholdeak izan ziren 24 ordutan 120 litro bota baitzuten. Zia eta Itzeko erreka beren ibilgutik atera ziren hainbat lekutan.



Toki Ona Institutuko estalpea egiteko lanak abian.. UTZITAKOA

## Hasi dira Toki Ona Institutuko patioan estalpea egiteko lanak

Azaro hondarrean hasi ziren Toki Ona Institutuko estalpea egiteko lanak, eta, gauzak ongi, urtaril erdialderako bukatuko dituzte. Orain artean institutuak ez zuen inolako estalperik ikasleek atsedendietan egoteko, eta estalpearen bidez gabezia hori asetzea da helburua.

Estalpea, institutuko ikasleez gain, herritar guztiek erabiltzeko izanen da: aisialdirako, kirola egiteko, merkatuak edota bertze edozein ekitaldi egiteko bertzeak bertze. Herriak zuen gabezia bete nahi da horrela.

420.000 euroko aurrekontua dute lanek.

**LABEZAR**  
 Astelehenetik ortziratera: 07:15etik aitzinera  
 Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera  
 948 631 076 • BERA

**Arturo**  
 arropa-denda  
 etxeko osagarriak | lantzeria  
 Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

**Ansonea** ostatu · jatetxea  
 T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

**URKILÄ**  
 HARATEGIA  
 HARATEGIA | CARNICERÍA | BOUCHERIE  
 Kanttonberri, 12 - BERA  
 T. 948 630 439 - 666 407 210

**SMAZIZOR**  
 edariak  
 BERA  
 SILVIA MAZIZOR S.L.  
 Pol. Ind. Alkaiaga, C. Ziobi, 1, LESA  
 Tel: +34 948 63 15 57  
 +34 676 05 16 60  
 mazizorsenper@gmail.com

Nahi al duzu sorta bat erosi edo zure gustura egin?




## BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

### 2. eskuko bizikletak

GIMNASTIKA ETA  
FITNESS MAKINAK  
bizikleta estatikoak,  
lasterketako zintak...

Kanttonberri, 1 | BERA  
Tel. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com



[www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)



## Eguberrietan haur txokoa izanen da Bortzirietan

Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak antolatu du eta abenduaren 17a izanen da izena emateko azken eguna

### TTIPI-TTAPA

Iaz ez bezala, Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak eguberrietarako oportetean Haur Txokoa edo ludoteka antolatu du aurtengo gabonetan haur txikiak dituzten familiei kontziliazioa errazteko asmoarekin.

Hiru eta hamabi urte bitarteko haurrei bideratuta dago Haur Txokoa eta egunero haurrak hiru orduz egonen dira bertan, 10:00etan hasi eta 13:00akarte. Abenduaren 23an hasiko da zerbitzua, eta urtarrilaren 5ean bukatuko. Hala

ere herri bakoitzak bere egutegi propioa izanen du:

• **Bera:** Abenduak 23, 24, 27, 28, 29, 30 eta 31 eta urtarrilak 3, 4, 5.

• **Etxalar:** Abenduak 23, 24, 27, 28, 29, 30 eta urtarrilak 3, 4, 5.

• **Arantza, Igantzi eta Lesaka:** Abenduak 23, 27, 28, 29, 30 eta 31 eta urtarrilak 3, 4, 5.

Izena emateko 948 635 036 telefonora deitu edo [berdintasuna@bortziriakberd.eus](mailto:berdintasuna@bortziriakberd.eus) helbidera mezu bat idatzi beharko da. Abenduaren 17a, ortziraldea izanen da apunta-



Hiru eta hamabi urte bitarteko haurrentzako izango da Haur Txokoa.

tze azken eguna. Ludotekan parte hartzeko haur bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu.

Haur Txokoa osasun egogeararen araudiari baldintzatuta egonen da.

### Zer da haur txokoa?

Haur Txokoa edo ludoteka haurrek bere denbora librean

kulturarekin eta harreman afektiboekin jostatzen eta gozatzen ikasteko gune bat da, solidaritatean eta berditasunean oinarritzen dena.

Bidenabar, zerbitzuaren bidez, gurasoei aukera ematen zaie seme-alaben heziketa edo euren lanarekin edota denbora librearekin bateratzeko.

*Zalain*  
JATETXEA RESTAURANTE

Eguberri eta urte berri on!!

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera  
t. 948 631 106 w. [www.zalain.info](http://www.zalain.info)

*Xulufraia*

emakume arropa osagarriak dekorazioa

*Udazken-neguko arropa*

*toptopa*.shop

Abenduak 18, larunbata, goiz eta arratsaldez IREKITA

Altzate 18, BERA. 948 631 266

Zuei esker  
25 urte elkarrekin  
MILA ESKER

**Ostargi optika**

Bea Artola Ferran Optiko-optometrístia kol.zk: 9812  
Bidasoa 8 BERA Tfno: 948 630 753

OPARI TXARTELA  
Zure esku



Herritarrak Bortzirietako Garbigunean antolatutako bigarre eskuko azokan.

## Kanpaina berriak abiatu ditu hondakin mankomunitateak

Fruta eta barazkiak erosteko poltsa berrerabilgarriak eskuragarri daude Bortzirietako Garbigunean

### TTIPI-TTAPA

Azaroaren 20tik 28ra ospatu zen Hondakinen Prebentzioaren Europako Astea. Hori dela eta, hainbat ekitaldi eta kanpaina paratu ditu martxan Bortzirierako Hiri Hondakinen Mankomunitateak. Tartean, lehenengoz antolatu zuten bigarren eskuko merkatua. Alkaiagako Garbigunean pilatu eta egoera onean dauden objektuak paratu zituzten salgai azaroaren 20an. 250 pertsona inguru joan ziren, eta saldutako objektuak pisatuta, 1.226 kilo hondakin berreraibili ziren.

Fruta eta barazkiak erosteko hiru poltsa garbigarri eta berrerabilgarri osatutako pack bat banatzeko kanpaina ere abiatu dute. Poltsa horiekin erabilera bakarrek poltsen hondakinak sortzea saihestuko dute. Garbigunean daude poltsa horiek eskuragarri, eta etorkizunean dendetara ere zabaltzea da asmoa.

Elikagaien xahuketa gutxitzea da bertze asmoetako bat, eta horretarako, Baztango Udalarekin batera abiatu dute kanpaina. Nafarroan urtean banaz bertze 75 kilo elikagai

botatzen dira etxeetan, eta kopuruak handiagoak dira ostalaritzan. Zakarrontzira botatzen den elikagai kopurua gutxitzen saiatu nahi dute, bidenabar jankideei janaria tupper batean eramateko aukera eskainiz. Tupper horiek plastiko konpostagarriekin daude; beraz, gehiago erabiliko ez direnean, materia organikorako edukiontzi marroira bota behar dira. Bortzirietako sei jatetxek erabaki dute ekimen honen alde egitea: Zalain, Lenkonea, Zubiondo, Kasino, Botxo eta Lindurrenbordea.

### Poltsa berrerabilgarri tolesgarriak

Udan mankomunitateak uneoro gainean eramateko poltsa berrerabilgarriak erosi zituen. Horrela, erosketak egitera goazenean erabilera bakarrek poltsak erabiltzea saihestu nahi du. Poltsak udan etxetik edukiontzi marroia ezartzeko kanpainan banatu zituzten, baina ez ziren etxetik guztietara ailegatu. Poltsa falta dutenek mankomunitatera deituta, edo Garbigunera joanda lortu dezakete eurena.

**Baztango**  
Inmobiliaria agentzia  
Herentzian espezializatutako abokatua

San Esteban 11 behea  
BERA (31780)  
Nafarroa

620 028 625  
www.baztango.com

Askatasunaren Hirib. 17-2  
DONOSTIA (02004)  
Gipuzkoa



## Zure hurbileko kuttunak entzutearen gozamenak

Entzun bai, baina **ulertzen ez baduzu**,  
Inguruan zarata dagoenean **elkarrizketak**  
jarraitzea kosta egitea bazaizu,  
**Ahopean hitz egiten dutela** iruditzen bazaizu,  
Telebistaren **bolumena goratzen** baduzu.

### Lagundu zaitzakegu

### BAI, DOAKO KONTSULTA NAHI DUT



IRUN

943 633 305

Paseo Colón, 27



HERNANI

943 386 962

Elkano Kalea, 35

Gomendatu diren osasun-neurri guztiak hartzeko konpromisoa ziurtatzen dizugu Auditek-en.

auditekcentroauditivo.com





Zaldi azienda eta aterki ugari izan ziren feria egunean. A. AROTZENA



Behi eta aratxeen artean idi dotoreak ere plazaratu zituzten. A. AROTZENA

## Azienda onenak saritu dituzte berriz ere ferietan

Eguraldi euritsuari aurre eginez 224 azienda eraman zituzten frontoiaren gibleko aparkalekura

### AITOR AROTZENA

224 azienda aurkeztu zituzten azaroaren 25eko feria egunera. Horietatik 126 zaldi-azien- dak ziren, 50 behi, batzuk bere aratxearekin eta bizpahiru idi eta zortzi artalde. Aziendak frontoiaren gibleko aparkalekuan paratu zituzten ikusgai.

### Sariak

Esneta-ko behien kategorian lehen eta hirugarren sariak, 190 eta 100 eurokoak, Lesa- kako Gillenbordako Francisco Javier Altzugararentzat izan ziren eta bigarrena, 160 euro- koa, Berako Begibeltzeneko

bordako Joxean Igoarentzat. Haragitako behien kategorian, lehen saria Arantzako Uxai- neko bordako Joseba Bergarak eskuratu zuen, bigarren saria Begibeltzeneko bordakoak eta hirugarrena Berako Unai Men- diberrik. Larre behien katego- rian, 150 euroko lehen saria eta 70 euroko hirugarrena Jon Muñoak lortu zituen, eta 100 euroko bigarren saria Marisol Etxeparentzat izan zen.

Zaldi aziendetan, Jon Muñoak lortu zituen lehenbi- ziko eta hirugarren sariak, 125 eta 50 eurokoak. Bigarrena, 95 euro, Maria Jesus Maiaren-

tzat izan zen. Larre behorrak ere saritu zituzten. Lehen saria Oihan Olai- zolarentzat izan zen, bigarrena Berako Patxi Baldak lortu zuen eta hiruga- rrena Evarista Telletxeak.

Monturako zaldi onenaren saria Jon Iturbidek eskuratu zuen, bigarrena Oihan Olai- zolak eta hirugarrena Marisol Etxeparek. Ponnyen artean, lehen saria Berako Sabino Kortak eskuratu zuen, biga- rrena Jaime Etxegarai berata- rrak eta hirugarrena Berako Sergio Hernandezek.

Zortzi artalde artean, lehen saria (100 euro) Gillenborda- ko Francisco Javier Altzugarai- k eskuratu zuen; bigarrena (90 euro) Joseba Irigoienek eta hirugarrena (70 euro) Berako Ana Maria Irigoienek.

Eskulangileak plaza inguruan izan ziren eta elikadura postuak ere paratu zituzten plazako aparkaleku inguruan. Herri kirol jaialdia bertan behera gelditu zen, baina Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus ber-

tsolariak kantari aritu ziren, baina ez kioskotik, Ezpeltene- ko balkoitik baizik. Emaku- meenganako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira eta preso- en aldeko elkarretara- tzeak egin zituzten. Zeria ere zozketatu zuten eta 1.117 zen- bakiari egokitu zaio. Arratsal- dean musika izan zen Kilimak taldearekin, Beti Gazte kan- tari eta elektrotxarangarekin.

### Ajoarriero lehiaketa

Bezperan Beti Gaztek antola- tutako ajoarriero lehiaketa- n 13 bikotek hartu zuten parte. Lehen saria Xabier Legasak eta Beñat Maiak lortu zuten (Gaztinborda); Idoia Telletxea eta Paula Garciak (Bakailu Kuisine) bigarrena eta hiru- garrena Mikel eta Aitziber Maia (Kordionistak). Epaimahaia Joseba Zugarramurdik (Aran- tzako Aterpe), Julen Zubietak (Dantxarineko Landibar), Iña- ki Pikabeak (Berako Zalain) eta Roberto Loiolak (Honda- rribiko Ardora) osatu zuten.



## BIDASOA ascensores



**IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA**

- Mantentze eta konponketa lanak
- Marka guztiak - jatorrizko piezak

**IRUN:** Primautzar 19 - T. 603 47 94 88 | 943 05 90 53  
**ERRETERIA:** José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49  
[www.ascensoresbidasoa.com](http://www.ascensoresbidasoa.com)





Hemen erabili



## kattagorria

LESAKA  
948 627 514  
[www.kattagorria.com](http://www.kattagorria.com)



Tekniko instalatzailea

**ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA**

Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa

## 629 449 602



# 500.000 euroko laguntza izanen da saihebidia egiteko

Espainiako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko negoziazioen ondotik sartu da estatuko aurrekontu orokorretan

## A. AROTZENA

Espainiar Estatuko Aurrekontuetarako Espainiako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko negoziazioen ondotik, udalak 500.000 euro hartuko ditu NA-4000 errepidean saihebidia proiektua idazteko.

Diru horri esker, herriko mugikortasuna eta garapena

aldatuko dituen proiektu bat idatzi ahal izanen dela azpimarratu du udalak, «dauden egiturazko arazoei aldagai eta konponbide berriak emanez».

«Poliki-poliki, zuek emandako konfidantzari esker aitzinera goaz, gure herriaren hobekuntzarako beharrezkoak diren pausoak emanez», dio EH Bilduko udal taldeak.

## Lesaka ikergai duten ikasketa bukaerako proiektuetarako dirulaguntza

Lesaka ikergai duten 2021-2022 ikasturteko gradu eta master akaberako lanak egiteko dirulaguntza eskainiko du udalak. Aurkeztutako lanen artean bi izanen dira aukeratuak eta bakoitzari 500 euroko dirula-

guntza emanen diote. Lanak herriko etxean aurkezteko epea urtarrilaren 30ean bukatuko da. Laguntzaren jasotzaileek lana solasaldi batean aurkeztuko dute herritarren aitzinean, udalarekin batera.



UDALAK UTZITAKOIA

## Antoiu karrikako latsagia zaharberritua

Antoiu karrikako latsagia berri du hilabeteotan udalak, 28.956 euroko inbertsioa eginez. Bertako bokata harri eta askak urte aunitzetan arropa garbitzeko erabiliak izan dira. «Espero dugu denon artean txoko hau zaindu eta maitatzea, gure herriko historiaren zati bat baita», adierazi du udalak.

**BERRI S.L.**  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

**TTIPI-TTAPA**  
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook  
www.facebook.com/ttapi.ttapa

**PRIM, c.b.**  
Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH

Helbide berria

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA

Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaecheppure

**TXIRULA**

OPARI TXARTELA  
Zure esku

Eguberrietako Pazko lore aukera ezberdinak  
· Etxea apaintzeko gaiak  
· Arropa eta osagarriak

ETORRI ETA IKUSIII!

Albistur 39 LESACA • T. 948 627 542

**E D A R I A K**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
www.tabernaedariak.eus



Aurten guti ikusi da irudi hau Usategietan. ETXALAR KO USATEGIAK

## 29 dozena uso harrapatuta bukatu da Usategietako sasoia

Bisita gidatuak, aldiz, arrakastatsuak izan dira eta 385 lagun hurbildu dira antzinako tradizioa ezagutzera

### IRUNE ELIZAGOIEN

Joan den urteko zapore ona ahoan, bertzelako kontuak izan dira aurten. Iaz Usategiak izan ziren uso gehien harrapatu zituztenak Pirinio osoan. Aurtengoa, aldiz, hagitz sasoi txarra izan da. Ez da uso gehiegirik etorri eta etorri dena ez sareetan harrapatzeko moduan. Azkenean, hilabete pasako lanaren ondotik, 29 dozenekin itxi dute aurtengo ehiza denboraldia. Bisita gidatuei da-

goekienez, jende aunitz gerturatu da tradizio hau ezagutzera; zehatz erranda, 385 lagun.

### Beharrean daudenei laguntzeko diru bilketa

Covid-19a dela eta, iaz bezala, aurten ere janari bilketaren orde, dirua bilduko dute. Etxe-tara sobreak banatuko dituzte eta nahi duenak bertan dirua sartu eta Erretoreneko buzoian sar dezake bere aportazioa, abenduaren 5etik 19ra arte.



Eguraldi euritsuari aurpegi morea paratu zioten elkarretaratzean. MIREN OLAETXEA

## Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna arrakastatsua izan da

### I. ELIZAGOIEN

Eguraldi kaskarra izan arren, herritar dezente bertaratu zen emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko egunean eginiko kontzentrazioa. Indarkeria matxistak eraginiko datu batzuk partekatu zituzten, denen arteko iritziak elkarbanatuz eta gertakari

hauek gogor salatzearen garrantzia aipatuz. Herrian paratu diren bi kartel berrien berri ere eman zuten, udalak eta herriko talde feministak eginikoak. Batean, indarkeria matxista salatzen da, bere forma guztietan eta bertzean, gizarte berri baten oinarria irudikatzen da.

### Porc D'Or sarietan zilarrezko domina Mikel Irigoienentzat

Nafarroako bortz txerri haztegi saritu dituzte Porc d'Or sarietan. Azaroaren 26an egin zen sari banaketa Lleidán eta Mikel Irigoienek irabazi zuen zilarrezko saria. Sariaketa honek estatu osoko txerri-haztegiatan dagoen txerrien kalitate bikaina saritzen du. Zorionak Mikel!

### Olentzeroren kalejira eginen dute abenduaren 24an

Abenduaren 24an, 16:30ean kalejira eginen dute Olentzeroren karrozekin eta herriko txistulari eta trikitilariak lagunduta. Olentzero menditik jaisten bada, frontoira hurbildu eta berendua izanen dute. 18:00etan meza eta ondotik trikitilarien saioa izanen dute.



**USOA**  
Nekazari kooperatiba



T. 948 635 214 M. 605 631 244  
**ETXALAR**



**DESIN BERA**

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

**DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK**

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

- EGUNEKO MENUA
- SAGARDOTEGI MENUA
- KARTA
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK ...

*Eguberri eta urte berri on!!!*



T. 948 625 472 | Alasta karrika - BERA | [zubiondojatetxea.com](http://zubiondojatetxea.com)



Estitxu Arozenak jarri zion txapela Saioa Alkaizari. JOSU SANTESTEBAN

## Saioa Alkaizak lortu du Nafarroako bertsolarien txapela

Txapel nagusi bat jantzi zuen lehen emakumeak, Estitxu Arozena lesakarrak, paratu zion txapela azkena lortu duenari

### TTIPI-TTAPA

Lehen aldiz finalera iritsi eta Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapela jantzi zuen azaroaren 28an Saioa Alkaizak. Bertsolaritzaren alde ekarpen handia egin duen Estitxu Arozenak jantzi zion txapela irabazleari, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian 1.750 ikus-entzule bildu zituen finalean.

Julio Soto, Saioa Alkaiza, Eneko Fernandez, Joanes Illarregi, Eneko Lazkoz, Josu Sanjurjo, Xabat Illarregi eta Xabier Silveira aritu ziren kantari finalean. Ander Aranburuk egin zituen aurkezle lanak, eta Alaitz

Rekondo aritu zen gaiak ematen.

Ekitaldiaren lehen zatian, borts ariketetan aritu ziren zortzi bertsolariak. Saioa Alkaizak eta Eneko Lazkozek bildu zuten puntu gehien, eta horrenbertez, haiek pasa dira buruz burukora. Horren ondotik iragarri zuten txapelduaren izena. Hain zuzen ere, Alkaizak, Nafarroako Bertsolari Txapelketako bere lehen finalean eta 995 punturekin, irabazi zuen txapela. Lehen borts sailkatuek, gainera, 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartzeko es-

### BERTSOLARI TXAP.

#### SAILKAPENAK

FINALA ANAITASUNA 2021.11.28

1. Saioa ALKAIZA	995 puntu
2. Eneko LAZKOZ	992 puntu
3. Julio SOTO	627,5 puntu
4. Joanes ILLARREGI	596 puntu
5. Xabier SILVEIRA	592,5 puntu
6. Xabat ILLARREGI	582,5 puntu
7. Josu SANJURJO	580,5 puntu
8. Eneko FERNANDEZ	573 puntu

\* Borts lehenbizikoak 2022ko Txapelketa Nagusian ariko dira.

kubidea eskuratu dute, Nafarroako ordezkari gisara. Iruñeko Nafarroa Arenan jokatu da txapelketa horren finala.

#### Estitxu Arozenak txapela

Estitxu Arozena Albizu lesakarrak jantzi zion txapela aurtengo irabazleari, eguneko unerik hunkigarrienetako batean. Modu horretan, bertsolari, bertso irakasle, eragile eta antolatzaile gisara bertsolaritzaren alde egindako lan eskerga eskertu nahi izan zion Nafarroako Bertsozale Elkartek. Euskal Herriko Bertsozale Elkartean izenean, lehendakaritza taldeko Igor Elortza Aranoak eman zion oroigarria txapelduari. Gai-nontzeko sariak Nafarroako lau kultur elkarteko ordezkariak eman zituzten –Goizuetako Umore Ona, Iruñeko Zaldiko Maldiko, Lesakako Arrano eta Tuterako Beterri–, elkarte horiek urteetan bertsolaritzaren alde egindako lanari keinu egin nahi izan zion antolakuntzak.

## Bortzirietako taldekako 22. bertso lehiaketa larunbatean

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako bertso eskolak hogeita bigarren aldiz antolatutako taldekako bertso lehiaketa jokatu da abenduaren 11n. Larunbatean 13:00etan hasita Berako Katakun jokatu den lehen fasearen ondotik erabakiko dira finalerdietako gurutzaketak.

Lehen finalerdia Lesakako Antoiun egingen dute 17:00etan eta bigarrena Lesakako Haizeguan 18:30ean. Finalerdietan nagusitzen diren bi hiru-koteek finala Lesakako Arrano ostatuan jokatu dute. 20:30ean afaria egingen dute eta ondotik finala. Afarirako txartelak 15 eurotan eros daitezke. Izena emateko [bortzi-bertso@gmail.com](mailto:bortzi-bertso@gmail.com) helbide elektronikora idatzi edo 618 96 30 11 telefonora deitu behar da.



Taldeakoa hilaren 11n izanen da.

**Lizarralde ORTOPEDIA**  
Bizi kalitatea hobetuz

**Eguberri on!**

**ALOKATZEN DIRA:**  
GURPILDUN AULKIAK  
OHE ARTIKULATUAUAK

**FAKTURAREKIN DIRULAGUNTZA ESKA DEZAKEZU NAFARROAN**

Eskailera-igogailuak instalatzeko zerbitzua dugu

Lizarralde Ortopedia  
Kazkazuri plaza 1 - behea  
20180 Oiartzun

Tel: 943 54 35 85 - 688 67 85 83  
[andoni@lizarraldeortopedia.eus](mailto:andoni@lizarraldeortopedia.eus)  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)

## Olentzeroren kalejira eginen dute abenduaren 24an

Lehiaketan parte hartuko dutenek eskolatik abiatu eta Sarrolara joan ondotik, frontoian eginen dute saioa

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Betiko ohiturak berreskuratuz, aurten abenduaren 24ean kalejira izanen da lehiaketan parte hartuko duten Olentzerorokin. Eskolatik abiatu, Sarrolara joan, bertan merienda egin, herri buelta egin eta frontoian, beti bezala, 18:00 aldera lehiaketa izanen da. Goizean, haurrak etxez etxeko eskean ibiliko dira, talde bakoitzak bere ibilbidea eginez.

Herriko gazteek Urtezahar arratsean, beti egiten den modura, aurtengoan ere *santak-tak* ospatuko dituzte. Errege



Olentzero bisitan etorriko da aurten ere.

bezperan iaz egin zen moduan eginen da kabalgata. Guraso elkartearen laguntzari esker, erregeek eta pajeek opariak etxe etxe banatuko dituzte.

## Energia garraiatzeko lurzoru publikoa erabiltzen duten enpresei tasa berria

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Joan den azaroaren 12an egingo osoko bilkuran, udalak ordenantza fiskal berria onartu zuen. Ordenantza honekin lortu nahi dena da energia (elektrizitatea, gasa) garraiatzeko lurzoru publikoa erabiltzen duten enpresek tasa bat

ordaintzea erabilera horren gainetik, negozio pribatu baterako espazio publiko bat aprobetxatzen dutelako. Horrela, ordenantza hau 2022an sartuko litzateke indarrean, eta urtean 30 eta 35 mila euro bitarteko diru-sarrera kalkulatu da udal kutxetan.

## Paris 365entzat 2.860 kilo Igantzi eta Arantza artean

Paris 365 erakunderako janari bilketa martxan paratu zuten aurten ere, Azaroaren 24an izan zen bilketa elizako sakristian eta herritarren partetik hagitz erantzun ona izan zen. Igantziarren eta arantzarren artean 2.860 kilo bildu dituzte aurtengoan.

## Aldaketa batzuekin ospatu ditugu kultur egunak abenduan

Dantza taldearen saioa ilbeltzaren 7ra gibelatu badute ere, kulturaz gozatzeko aukera ederra izan dugu herrian. Ekitaldi andana izan zen, hala nola, hitzaldiak, musika, zinea, antzerkiak, pelikula emanaldiak... Eta jendearen parte-hartzea aipatzekoa izan zen.



Haur Hezkuntzakoek egindako horma-irudia. MAITE, ANA ETA ITZIAR

## Azaroaren 25eko ekitaldietan bat egin dute haurrek eta helduek

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Pasatu berri dugu azaroaren 25a eta egun hori dela eta, gure herrian ere ikusarazi nahi izan digute gizarte honetan oraindik ere daukagun arazo hau. Herrian barrena eskolako ikasleek zenbait kartel paratu zituzten, kasu honetan gaiari lotutakoak. Ibilbidetxo bat egin ahal izan genuen kartel hauek ikusiz hausnarketa tiki bat egiteko. Udaletxe azpiko arkupeetan ere Haur Hezkuntzakoek horma-irudi ederra paratu zuten.

Sortu berri den LorHazi emakume taldeak ere, udaletxeko



Oihal morea udaletxean.

alde nagusian oihal more haundi batekin egungo gizartearen oraindik dagoen egoera bistaratu nahi izan zuen.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

## Elizatea moldatzen hasiak dira

Elizatea birmoldatzeko lehen faseak aitzinera segitzen du, eta gero eta zailagoa da hainbetez urtetan ikusi duguna ezagutztea. Poliki-poliki egiaztatzen ari gara zaharberritzeko beharra uste genuena baino haundiagoa zela. Hala ere, egitura, orokorrean, egoera onean dagoela erran daiteke.

## Eskolako antzerkien emanaldia oraingoz alde batera utzi dute

Ezin izanen dute abenduaren 17an egin, baina inauterietan jende aitzinean egiten saiatuko direla jakinarazi dute

### NEREA ALZURI

Azken aste hauetako osasun egoera dela eta, abenduaren 17an eskolako ikasleek egitekoa zuten antzerkien emanaldia alde batera utzi dute. Antzerkien entseguak ezin izan dituzte behar bezala egin, eta horregatik hartu dute egun horretan ez egiteko erabakia.

Antzerkirik izanen ez bada ere, aitzinetik iragarri bezala, Eguberrietako zaren zozketa eginen dute. Eskolak adierazi duenez, «Eguberrietako hiru zarez eder osatu ditugu eta horien zozketa abenduaren 17an

egin eta grabatuko dugu». Eskolaren webgunean ikusgai paratuko dute zozketa hori eta zenbaki sarituak ТТИП-ТТА-ПАН ere argitaratuko dituzte, saridunak zarezaren bila eskolara joan daitezten.

### Antzerkiak inauterietan

Antzerkiei dagokionez, bertzalde, «egoera bere onera bueltatu bezain agudo» entseguen hasiko direla jakinarazi du eskolak eta dena bide onetik badoa, «inauterietan jende aitzinean egiten saiatuko gara».

## Udazkeneko kolorearen aniztasuna

Udazkeneko azken asteetan gaude eta zenbait mendi gain elurrarekin ere ikusi ditugu. Udazkeneko koloreak, ordea, hortxe daude eta Mikel Larretxearen argazki honekin ederki gozatu dugu.



## Haur txokoa abendu hondarrean eta ilbeltz hasieran

### NEREA ALZURI

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntzarekin, haur txokoa edo ludoteka zerbitzua antolatuko du Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak Eguberrietako oporraldirako. Haur Txokoa haurrek denbora librean kulturarekin eta harreman afektiboekin jostetan aritzeko eta gozatzeko ikasteko gunea bat da, elkartasunean eta berdintasunean oinarritzen dena. Bidenabar, zerbitzu honen bitartez, gurasoei aukera ematen diete seme-alaben heziketa euren lanarekin edo denbora librearekin bateratu ahal izateko.

Hiru eta hamabi urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendutako zerbitzua da eta herrian, abenduaren 23an, 27an, 28an, 29an, 30ean eta 31n eta ilbeltzaren 3an, 4an eta 5ean izanen da goizez, 10:00etatik 13:00era.

Izen-ematea abenduaren 17ra arte egin daiteke Bortzirietako Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarriz, 948 63 50 36ra deituz edo [berdintasuna@bortziriakberd.eusera](mailto:berdintasuna@bortziriakberd.eusera) idatziz.

Aitzindu dutenez, haur txokoa osasun neurriak beteko dituzte.

## 2021eko kontribuzioak ordaintzeko egunak

Udalak 2021eko kontribuzioak jende aitzinean paratu ditu. Katastroaren orria nahi izanez gero, kopia eska daiteke. Ordainketak banketxeetan helbiderratuak dituztenei abenduaren lehenean kontutik kobratzeko auzien. Gainerakoek abendu osoan egiten ahal dute.

## Elkartasun zozketa urtezahar egunean

Aurten ere, elkartasun zozketa eginen dute abenduaren 31n. Ohi bezala, bi sari izanen dira: lehenbizikoa, herriko produktuez osaturiko karretila eder bat; eta bigarrena bildots bat. Txartelak salgai daude euro batean. Zozketa urtezahar egunean 21:00etan eginen dute.

## Burlada ostatuko besta oraingoz alde batera

Larunbat honetan, abenduaren 11n, Burlada ostatuan besta egitekoa zuten, bertzeak bertze, Beñat Mitxelena eta Fernando Otano musikari eta kantariarekin bazkaria. Osasun egoera ikusita, ordea, oraingoz alde batera uztea erabaki dute Burlada ostatukoek.

### Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - [ainhoaaltzuguren@gmail.com](mailto:ainhoaaltzuguren@gmail.com)



## F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel.: 948 630 735 M.: 620 172 679



[www.caserresidencial.es](http://www.caserresidencial.es)

**Laguntza zerbitzuak**

- Medikua
- Farmazia
- Erizaintza
- Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

**Ostalaritza**

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

**Bestelakoak**

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erijiro zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoan kudeaketa

**FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA**

- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa
- Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia
- Audioprotetista

**ANAKA** | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

**BETHARRAM** | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

## Ipuin kontalaria eta bertso afaria izanen dute abenduan

Hilaren 17an Illarregi anaiak ariko dira Ulibeltzak elkartean eta 22an Pello Añorga etorriko da eskolara

### MAIDER PETRIRENA

Eguberriak ate joka ditugun honetan abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria egin eta herrian barrena buelta emanen dute. Ondotik, frontoian txokolatea banatuko dute eta eskutitzak emateko txanda izanen da.

Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeei ere ongi etorria egingen zaie. Hauek ere herrian barrena ibiliko dira eta eskutitzak banatzeko ekitaldia elizaren barrenean egingen dute. Hau guztua egin ahal izateko osasun neurriak bete beharko dira eta osasun egoeran aldaketarik balego, egitaraua honetan guztian eragina izaten ahal du.

### Bertso-afaria hilaren 17an Illarregi anaiekin

Honela, abenduaren 17an, Leitzako Joanes eta Xabat Illarregi anaiekin bertso-afaria antolatu du Antrotokik. Ulibeltzak elkartean izanen dute hitzordua 21:00etan. Txartelak Bustitz eta Fonda ostatuan salgai zeuden abenduaren 5a arte.



Joanes eta Xabat Illarregi.

### Pello Añorga hilaren 22an

Abenduaren 22an Pello Añorga ipuin kontalaria etorriko da eskolara. Bi saio eskainiko ditu: batetik behehizko eraikineko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoei. Bertzetik, goitiko eraikineko LH 3, 4, 5 eta 6. mailakoei.

### Euskararen Eguneokoa

Euskararen nazioarteko eguna ospatzeko Euskarabideak zenbait ekitaldi antolatu ditugure eskualdean. Sunbillan konkretuki txontxongilo eta itzalen tailerra egin zuten azaroaren 26an udaletxean. Arratsalde polita pasatzeko aukera ederra izan zuten.



ESKOLAK UTZIA

## Azaroaren 25a gogoan izan dute eskolan

Azaroaren 25ean zenbait ekintza burutu dituzte eskolan: gela bakoitzean, ipuinaren edo bideoaren bidez, gaia landu dute. Segidan eraikin bakoitzean horma-irudi bat osatu dute. Horretarako ikasle bakoitzak globo bat margotu du eta barrenean mezu bat txertatu du.

## Jardunaldi jarraierako aldaketa prozesuan murgilduta daude eskolan

Jardunaldi jarraierako aldaketa prozesuan murgilduta daude eskolan. Azaroaren 24an gurasoei proiektuaren aurkezpena egin zitzaion eta bozketak azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean postontzian eta abenduaren 2an bozketak presentziala egin ziren. Errolda-

tutako ikasleen 3/5 aldekoa aterako balitz, abenduaren 13rako aurkeztuko litzateke dokumentazio osoa Hezkuntza Departamenduan, jardunaldi aldaketa eskatuz.

Bertzetik, urtero bezala, eskolan, ikasleen argazkiekin egutegiak egin dituzte.

**ORBELA**  
SENDERIMOA ATERPENA  
BEINTZAKO OSTATUA  
Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
www.orbela-beintza.com

**ANTZUZELAI**  
S.L.  
BERA · T. 948 63 13 17  
info@antzuzelai.com  
www.antzuzelai.com

HARGINTZA  
FATXADAK  
TXIMINIAK  
ZOLAK  
TAILLA ARTISTIKOAK  
OBRAK



**BORDALARRIA**  
Gure Haragia  
Nuestra Carne  
**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
Industrialdea, 27 · MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 · carnessein@bordako.com

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA  
Sunbilla · Tel: 948 450 862

**JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU**



Erregai Banaketa  
Zerbitzu Berria  
zure etxera


INFORMAZAITEZ!

Ordoki industrialdea, 47. partzela  
31713 Arizkun (Nafarroa)

 WhatsApp 625 324 423

Email: [energiak@josenea.es](mailto:energiak@josenea.es)

[www.josenea.es](http://www.josenea.es)



## Mendiaren Eguna abenduaren 18rako prest du Errekak

Mendi irteera eta bazkariaren ondotik, Ekaitz Maizen eskutik Pamirreko 2021eko mendi espedizioa ikusgai izanen da

### MARGA ERDOZAIN

Urteroko ohiturari eutsiz eta egungo osasun egoerari lotuta Mendiaren Eguna antolatu du Erreka kirol elkarteak abenduaren 18rako.

Larunbat goizean, 07:30ean autobus geltokitik abiatuta mendi irteera egingen dute. Menditik bueltan, 12:30ean, poteoa izanen dute eta 14:30ean bazkaria. Titi ostatuan eman daiteke izena abenduaren 15a arte.



Ekaitz Maiz mendigoizalea.

### Pamirreko espedizioa Ekaitz Maizen eskutik

Arratsaldean, 18:00etan Ekaitz Maiz mendizalearen eskutik *Pamir 2021, roca y hielo* filma proiektatuko dute zineman. Sarrera doan izanen da. Ekaitz Maiz berak parte hartu zuen espedizio horretan eta zehabait eskalada egin zituzten Ak-Su

bailaran, tartean klasikoetan klasikoa den 'Prerestiroika Crack' Bigwall edo horma handia. Pico Comunison erreskate batean parte hartu zuten, ia 7.000 metroko altueran eta Korzhenevskaya gailurrera igo ziren (7.105 metro).



UTZITAKOA


## Oskar Mindegia Kirol Merituaren domina

Nafarroako Gobernuak Kirol Merituaren dominak banatu zituen azaroaren 30ean. Urrezko dominak Juan Carlos Unzueta eta Aimar Olaizolak eskuratu zituzten. Zuzendaritza edo teknika lanetan egindakoagatik Zilarrezko Dominak ere eman zituzten eta bat Oskar Mindegia judo irakasleak hartu zuen.

## Merkatari eta Zerbitzuen elkarteo Eguberrietako kanpaina prest

*Erosi hemen eta irabazi!* lelopean abiatu du elkarteak aurtengo Eguberrietako tonbola. Sari zuzenak eta 100 euroko 5 erosketa-txartelen zozketan parte hartzeko zenbakiak banatuko dituzte abenduaren 9tik 18ra (zozketa abenduaren 20an). Bertako saltokietan gure

kontsumoa areagotzeko egindako kanpainari larunbatetan saltokien irekiera gehitu behar zaio. Hau guztia girotzeko Eguberrietako argiztapen berria jarri du udalak. Bertetik, Olentzero eta Mari Domingi baita Erregeen etorrera baieztatuak daude.



MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK  
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

EDERKI tailerra



CITROËN  
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525



## Ana Jaka idazlearekin solasaldiak

Abenduaren 17an (ortziralean) Ana Jaka idazlearekin bi solasaldi izanen dira liburutegian. 17:00etan bere poesiaren lan-keta, errezitaldi eta solasaldia egingen da. Ekimen hau Poesia tailerraren barrenean kokatuta dago. 19:30ean, berriz, bertze solasaldia egingen du *Ez zen diruagatik* eleberriaren inguruan. Hau Malerrekako Euskarazko Irakurle Taldearen jardueraren barrenean kokatu behar da. Irakurle talde hau udazken honetan egituratu da eta Doneztebeko udalaren laguntzarekin idazlearen solasaldia antolatzeko aukera izan du. Bi solasaldiak irekiak dira, beraz, Jakaren obra eza-gutu nahi duena liburutegira hurbiltzen ahal da. Bertzetik, aipatu liburutegia abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra itxita egomen da.

## Eguberrietako kontzertua abenduaren 17an

Mendi abesbatzak eta Donostiako Udalaren Txistulari Taldeak aurtengo Eguberrietako kontzertua abenduaren 17an, ortziralean 20:00etan eskainiko dute elizan. Aipatzekoa da Nafarroaren Egunean ere emanaldia eskaini zuela Mendiko abesbatzak elizan.



Eskola esku morez apaindua emakumeenganako indarkeriaren kontra. **ESKOLAK UTZIA**

## Pulunpa eskola esku morez jantzi dute azaroaren 25ean

Eguberrietako jaialdirik ez dute izanen eskolan, baina musika, dantza eta gosaria uztartuz ekitalditxoak egingen dute

### ARKAITZ MINDEGIA

Azaroaren 25aren harira Pulunpa eskola esku morez jantzi zuten, ikusgai eginez azken asteetan komunikabideetan ateratako biolentzia matxisten kasuak. Horiei aurre eginez, haurrekin landutako mezu baikorrak, esaldiak, kamiseten serigrafia, manifestuak, dekalogoak, marrazki eta irudiak inguruan itxeki zituzten. Lan-keta borobila egin zuten, baina eskolaz kanpoko lanak ere bere garrantzia dauka aldaketari bidea egiteko.

Udalaren aldetik *Malerrekan Errespetuzko Harremanak*

ekimenaren barrenean, Aurtizko frontoian ekainean izan genuen *Luze edo Motz* baka-rrizketa.

### Eguberrietako jaialdirik gabe

Pulunpa eskolan ez dute Eguberrietako jaialdirik egingen, baina gelaka grabaketak egingen dituzte abestiak kantatuz eta dantzatzuz, bukaera gosari eder batekin emanez, burbuilaka banatuak. Guraso elkar-teak ere saskiak zozketatuko ditu eta kamisetak eta egutegiak salduko dituzte. Kamisetaren irudia seigarren mailako ikasleek sortu dute.

## Eguberrietako ospakizunak egingen dituzte aurten ere

Aurtengo eguberrietan herriko karrketan besta izanen da. Alde batetik, eguberri bezperan, olentzeroren bisita baino lehen, eguberrietako kantak abestuz ariko dira gaztetxoak, bai Aurtitzen baita Iturenen ere. Olentzeroren etorreran ikusiko da gaztetxo hauek nola portatu diren eta pandemiaren egoera nolako den. Hori bai, ongietorri bikaina eskaintzen zaio Iturengo herrian, joaldunen laguntzarekin plazako bidea egingez.

Bertzetik, errege bezperan ere joare soinuak aginduko du arratsalde partetik goizeko ordu txikietara. Egoerak uzten badu, arratsaldean herriko gaztetxoek itzulua egingen dute herrian barrena. Ilunabar partean Iturenen eta Aurtitzen egingen dituzten afarien ondotik batzuk juergan dauden bidenabarrean, bertze batzuk, joareak jantzi eta astinduko dituzte. Inauterietan bezala, herrian ibili ondotik bertze herrietara bisita egingen dute.



Errege bezperan joareak jantzita.

**Amaya Picabea**  
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

- Emakume arropak
- Osagarriak
- Bitxi-denda

**denda berria!**  
Amezti, 5 · DONEZTEBE  
**T. 948 450 163**  
f @amayacentro



Landarte programako lan-saio batean, herriko neskak. UTZITAKOIA

## Landarteko erakusketa egingen dute abenduan

Katixa Goldarazanak herrian bultzatutako proiektua ikusteko aukera izanen da hilaren 26tik 29ra estalpean

### FERMIN ETXEKOLONEA

Abenduaren 26, 27, 28 eta 29an Katixa Goldarazanak Landarte 2021 programaren barrenean bideratutako proiektuaren erakusketa egingen du Zubietako estalpean.

Herriaren tradizioan oinarrituta, gorputzak bizitzan duen presentziari buruzko hausnarketa egin du. Artistak azaldu duenez, «gazte-talde bat gonbidatzen dugu esperimentatzeko eta jolasteko hainbat saiotan pentsatzera, herriaren iraganeko uneak erakusten dizkiguten ikus-entzunezko erregistroen, argazkien eta

idatzien artxibotik abiatuta. Erregistroak erakuts diezagukeen hori orainaldira ekartzeko ahalegina».

Nafarroako Gobernu Kultureko Zuzendaritza Nagusiak bultzatutako programa da.

### Ordutegia

Erakustaldia honako ordutegian ikusteko aukera izanen da Zubietako estalpean: Abenduaren 26an eta 27an, 12:00etatik 14:00:00etara; abenduaren 28an, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta abenduak 29an, 17:00etatik 20:00etara.



ESKOLAK UTZIA

## Bigarren eskuko azoka eskolaren eskutik

Eguraldiak lagunduta, Legasako eskolak antolatutako bigarren azoka eguna izan zuten azaroaren 18an. Ikasleak burubelarri ibili ziren eskulanak egin eta janari eta gauza gozoak prestatzen. Familiek ere parte hartu zuten eta egun borobila izan zen. Eskolatik eskerrak eman nahi dizkiete hurbildu ziren guztiei.

## AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTAKUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787



### GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA





T. 948 232 400

www.inelsazener.com

Igogailuen instalazioak.

Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.



Parrokia 17 | DONEZTEBE  
Tel-Faxa: 948 450 289  
imprimircasastiz@gmail.com

ZAPATA-DENDA  
LIBURU-DENDA  
PAPERTEGIA






**GURE  
ATARIAK**  
Garbiketa Zerbitzuak

★  
**ESKUALDEKO  
GARBIKETA  
ZERBITZU BERRIA** ★

- BULEGOAK / KOMUNITATEAK: ATARIAK, GARAJEAK / LANDA ETXEA / OSTALARITZA / LANTEGIAK / INDUSTRIA BILTEGIAK / ESKOLAK ... GARBITZEN DITUGU.
- FATXADAK.
- KRISTALAK. ★
- OBRA AMAIERAKO GARBIKETAK.
- ARROPA GARBIKETA ZERBITZUA.
- ALTUERAKO KRISTALAK.

INAUGURAZIORAKO  
PREZIO  
BEREZIAK  
**AURREKONTUA  
ESKA  
IEZAGUZU**

**TEL. 628 51 28 47 / 637 72 21 80**

**ROSA SEMINARIO 13, 31740 DONEZTEBE**



Nafarroako hainbat herri eta auzotako merkatariek osatzen dute Denok Bat federazioa. UTZITAKOIA

## Denok Bat federazioa, tokiko merkataritza 'toptopera' eramaten aitzindari

Duela urtebete 'toptopa.shop' web orria sortu zuten Nafarroako hainbat herritako merkataritza elkarteek haien negozioak Internetera eramateko

### TTIPI-TTAPA

Denok Bat Baztan, Bera, Doneztebe, Lesaka, Leitza, Sakana, Tafalla eta Arrotxapeko merkataritza zerbitzu elkarteek osatutako federazioa da. Landa-ingurune berean daudenez, kezka berdintsuak partekatzen dituzte, eta elkarrekin egiten dute lan bertako saltokiak bultzatzeko eta lanpostuak sortzeko. Ekintza eta azokak antolatuz herriak dinamizatzea dute helburu, bertako bizimoduari eta kulturari lagunduz.

Hurbileko saltokien eta erosten arteko ekosistema osatzen laguntzeko, *toptopa.shop* web orria eta Giltzaria fidelizazio txartela sortu dituzte. Herri eta auzo bizi eta dinamikoak modu iraunkorrean mantentzeko eta merkataritza eredia defendatzeko filosofiaren euskarri modura sortuak, tokiko saltoki eta ekoizleek haien kabuz lortu ezingo luketeen online salmentarako urratsa eta bezeroen fidelizazio tresna izateko aukera eman dute. Orain, bi tresna hauen inguruko balorazioa egin dute.

Duela urte bat sortu zuten Toptopa online salmentarako plataforma. Interneteko erakusleiho honetan, 24 orduz eta asteko zazpi egunetan dendak irekita edukitzeko aukera dute, eta bezeroak dendariekin zuzenean harremanetan jar daitezke zalantzak, galderak eta kezak argitzeko. Honez gain, Toptoparen arreta zerbitzuak bezero eta saltokiei zuzeneko arreta eta jarraipen zerbitzu profesionala eskaintzen die.

Gaur egun, 52 saltokik eskaintzen dituzte online haien zerbitzu eta produktuak. Horietatik 35 gure eskualdekoak dira, eta arropak, oinetakoak, elikagaiak, edertasun zerbitzuak eta etxerako produktuak eskaintzen dituzte, bertzeak bertze.

Lehen urteko datuek plataformaren erabiltze maila altua erakusten dute: 154.362 bisita eta 13.591 erabiltzaile izan ditu, hau da, 11,36 bisita erabiltzaile bakoitzeko. Gainera, 236 bezerok eman dute alta *toptopa.shop*-en erabiltzaile

moduan. Plataformako kideek adierazi dutenez, «erabiltzaileen esperientziaren balorazioa hagitz positiboa izan da eta egindako inkesten arabera esperientziaren asebetetze maila hagitz altua izan da».

### Fideltasuna saritzen

Giltzaria fidelitasun txartelak bezeroei aukera ematen die haien erosketengatik deskontuak, fidelizazio puntuak eta abantailak lortzeko. Txartelak 6.525 erabiltzaile ditu 2014. urtean sortu zenetik, eta urte hauetan bezeroek 334.833 deskontu, kitapen eta antzeko operazio egin dituzte.

Doako zerbitzu honekin, tokiko saltokiak bizirauten laguntzen duten herritarrak eta bizilagunak hobeki ezagutu eta saritu nahi dituzte. Gainera, saltokien fidelizazio estrategia eta kanpainak egiteko tresna egokia dute. Taldekako zein denda bakoitzak diseinaturiko kanpainetan, 2021ean 11.000 SMS baino gehiagoko promozio kanpainak egin ahal izan dituzte.



**Eskualdeko 35 saltokik parte hartzen dute plataforman:**

### Baztan:

- Argibel optika
- Arkupe gozotegia
- Fantxike opari-denda
- Izeta erloju-denda
- Malkorra gozotegia
- Piko piko moda
- Virgilio oinetakoak
- Zangue oinetakoak

### Bera:

- Aranen opari-denda
- Arturo moda
- Gaeta ongizatea
- Igone paper-denda
- Martutzak moda
- Oinatz oinetakoak
- Prim errehabilitazioa
- Sustrai belar-denda
- Xulufraia moda
- Zu lore-denda

### Doneztebe:

- Arrate estetika
- Artlepo moda
- Kukuka haurren m.
- Lacar Etxea ehunak
- Maite Moda
- Male-Reka moda
- Olatz oinetakoak

### Lesaka:

- Bixkiak moda
- Intzuri optika
- Kattagorria moda
- Oreka belar-denda
- Ortadar Moda
- Pittin haurren moda
- Txinelka oinetakoak

### Leitza:


- Ariztela jostundegia
- Izaskun estetika
- Kulunka haurren m.

# top topa .shop

**GURE  
OPARIAK**

**GURE  
DENDETAN**

**GURE  
ESTILORA**



- » Bidalketa-gastuak doan
- » Erosketa segurua
- » Dendan biltzeko aukera



Nafarroako Gobernuak  
diruz lagundutako jarduera



Comercios  
de Navarra  
Nafarroako  
dendak

 **DenokBat**





Arkupeak elkarteko mendizaleak Aiako harriko Basoederretan. PABLO IRASTORTZA

## Aseguruak berritzea

Gehientsuak arduratsuak izanagatik, gogoratzea ez dago soberan. Urtearen amaierarekin bukatzen da mendi-istripu erreskaterako, garraiorako edo artapenerako nahitaezko aseguruak. 2022 urterako txartelak egunean jartzeko garaian gaudela gogorarazteko aprobetxatu nahi ditugu lerro hauek; zure babela ez ahantzi mendizale!

## Aiako Harriko Natur Parkean izan dira mendizaleak

Azaroaren 12an egin zuten mendi komisioren batzarrean datorren urteko irteerak zehaztu zituzten

### P. IRASTORTZA

Azaroko irteerarekin, Arkupeak elkarteko mendizaleek hiru-garren aldiz bisitatu dituzte 2021ean Gipuzkoako mendiak. Abuztuan Hernio mendia eta urrian Pagoeta natur parkea

zanpatu ondotik, azaroaren 16ko hitzordura arte hiru urte zeramatzan mendi taldeak Aiako Harria inguruak zeharkatu gabe, eta benetan aseberterik itzuli ziren hango paraje txundigarrietatik.

09:00etan irten ziren 34 mendizale Irungo Ola sagardotegiko ataritik. Behelaino gogai-karriak ez ziren Gipuzkoa eta Nafarroako ikuspegiez gozatzeko utzi eta eguraldi umel eta zero sabai estalia lagun egin zuten mendiko goiz-pasa. Irugurutzetako labeetan hasi zuten igoera pikoa, Enbido eta Aitzondoko ur-jauzitik Sorotxikiko lepora ailegatuz. Indarberitze otordutxoak eta gero, Enderlatsako kaskoa, Amasain eta Saroia baserrietan barna itzuli ziren irteera lekura, lau ordu eta erdiko txangoaren ondotik. Abenduaren 21ean Etxalarrera joanen dira.

### Datorren urteko egitaratua

Tenorez mugitzeak abantaila dakarrenez, azaroaren 12an egin zuten mendi komisioren batzarra eta datorren urteko irteera zerrendaren prestaketa izan zen bileraren akordio nagusia. Aldaketaren bat izan daitekeela kontuan izanik, hauek izanen dira 2022ko irteerak:

**Urtarrila:** Doneztebe. **Otsaila:** Bera. **Martxo:** Hondarribia. **Apirila:** Mugairi. **Maiatza:** Ezkurra. **Ekaina:** Gorramendi. **Uztaila:** Berastegi. **Abuztua:** Aralar. **Iraila:** Pirinioak. **Urria:** Bertiz. **Azaroa:** Arantza. **Abendua:** Urdazubi.

## Anamari Arrosamena irabazle berriz

Azarorako egindako galderari buruz, irakurleek ez dute buruhauste sobera izan, bazkide andana izan baita Julian Retegi Barberia pilotari ohiaren jaioterria Eratsun dela WhatsApppe idatzi dutenak. Erratzuko Anamari Arrosamena Irigoien izan da –bigarren aldiz, otsailean ere bera izan baitzen zorteduna– Perón janari-kutxa etxeratu duena. Zorionak Anamari!



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bertan behera 2021eko mus txapelketako finala

Udazkenean jokatu ziren herritako mus txapelketak. Bakoitzean bi lehenengoak sailkatu ziren, Donezteben abenduan iragarria zegoen final nagusirako, baina gibelatuak izan dira aipaturiko azken mus partidak. Osasun egoerak onera egin bezain laister deituko diete sailkatuei txapelketari errematea emateko.

## Igantziko ordezkaria aukeratzeko bilera ere gibelatua

Joan den abenduan egitekoa zen batzarra Igantziko bazkideekin, 2021eko abuztuaz gero hutsik dagoen herriko delegatuaren lekua betetzeko. Egoera okerra ikusirik, ordezkari berria aukeratzeko bilera guttienez urtarrilera gibelatzea erabaki dute. Denboraz adieraziko diete herriko bazkideei hitzordu berriaren data.

## Urtarrileko galdera

Zenbatero publikatzen da TTIPI-TTAPA aldizkaria?  
☎ 618 56 78 37 (WhatsApp bidez).

# Eguberri on!



## Eguberriak, herri ttiketako komertzioak bizirik mantentzeko aukera bat

Opariak egiteko sasoian sartzeaz gaudela, bi aukera ditugu, eskuz egindako opari pertsonalak sortzea edo gehiengoak aukeratzen duen bidea; opariak erostea. Horretarako, erosketak non eginen ditugun erabakitzea arras garrantzitsua da. Internetean nahi dugun guztia eskura dugun garai honetan, tokiko dendak bizirik segitzeko borrokan daude.

Euskaldeko merkatu ttiketako hainbat saltzailerekin izan da TTPI-TTAPA, eta egun hauek nola bizi dituzten azaldu digute. Eguberrien bueltan, elkarrizketak osorik izanen dituzue eskuragarri [ERRAN.EUS](http://ERRAN.EUS) atarian.



**KULTURKARI**

Diseinu grafikoa | Publizitatea

Zure jatetxeko diseinuarekin menuak, kartak, mahai-oihalak, musuzapiak, baso-azpikoak, etab. pertsonalizatzen ditugu

[kulturkari.com](http://kulturkari.com)

## Mendaur Motor



Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura  
Leitza errepeidea, 47 - Tel.: 948 45 03 33



**Arma ESTETIKA**  
Primary Essence

Eguberri honetan, asmatu seguru edertasuna oparituz. Vren gabonetako kutsekin.

5 edertasun-proposamen, aukeratu zure opari perfektua!

Altzate 33 BERA · Tel.: 948 63 09 04

**ARKUPE**  
Txokolataak

1984

IRURITA  
Dukesa plaza  
T 948580059  
T 948452021  
(Obradorea)

ELIZONDO  
Santiago kalea 19  
T 948452393

[www.arkupegozotegia.com](http://www.arkupegozotegia.com)

Eguberri eta Urteberri on!

**LOREA**  
NUTRIZIO ETA DIETETIKA  
[www.loreanutrizioa.com](http://www.loreanutrizioa.com)

Eguberrietan ere zure osasunarekin konprometituta

**KIMETZ**  
Belardenda  
[www.kimetzbelardenda.com](http://www.kimetzbelardenda.com)

Leitzako errepidea, 7  
31740 Doneztebe

948 451 473  
650 779 128

## KUKUKA-Donztebe



Natalia REKARTE OTEIZA

## «Elkartean lortzen dugu indarra merkataritikiok»

2009an ireki zuen Natalia Rekartek Doneztebeko Kukuka haurrentzako arropa-denda. Haurra beztitzeko beharrezko guztia eskaintzen dute bertan; arropa, osagarriak, barneko arropa, etab. Azken urteetan bezeroak aunitz aldatu direla azaldu digu; «bizimodua, jendea, mentalitatea... dena da diferentea, eta zaila egiten zaigu bezero berriak lortzea».

Teknologia berriak dira arazo honen konponbidea; «sare sozialak, Interneta... pila bat daukagu ikasteko marketin aldetik bezero berriak erakartzeko». Eta eskualdeko merkatariek bidea hartu dute dagoeneko *toptopa.shop* online saltokiarekin. «Ilusioarekin hasi gara eta inbertsio bat bezala ikusten dugu, garbi dugulako hor egon behar garela. Erakuslelhoa orain etxean dago».

Datuen arabera, hemendik 5-10 urtetara, denda guztien erdiak itxi beharko du. «Lan handia da eta mugitu behar gara, baina bide onean gaude eta Toptoparen eragina ikusten hasi gara». Saltzaileak zerotik hasi behar dira, «denda ireki genuenean ere bezeroak ez ziren bakarrik etorri, hor lan bat egon zen. Moldatu behar gara edo hil eginen gara, egoera zaila da, baina gure eskuetan dago».

Doneztebeko merkataritza eta zerbitzu elkarteak kide da Kukuka. 2006an sortu zen elkarte eta gaur egun 49 bazkide osatzen dute; ostatuak, estetika zentroak, arropa-dendak, kafetegiak, tailerrak... «Merkataritza banaka ez dugu inongo indarririk, indarra elkarrekin dute. Beharrezkoak dira, batzen

gaituzte eta helburu berdinak ditugu denok; herria egitea eta bizirik mantentzea. Lortu dugun guztia elkarteei esker lortu dugu». Denok Bat federazioarekin eta Nafarroako Gobernua-rekin eraman dute aurrera Toptopa, «eta hori probestu behar dugu. Eskualdeko merkataritza guztiak animatu nahi ditut Toptopan parte hartzea, inbertsio bat da eta datuek erakusten digute». Izan ere, Nafarroako biztanleriaren %75ak Internet bidez erosten du edo erosi izan du, eta joerak goiti egiten du. 2040 urterako %95ak Internetetik erosiko duela aurreikusi da.

Opariak erosteko garaian sartzear gaudela, kanpaina berezia prestatu dute Doneztebeko saltzaileek; «erosketa guztiarekin txartelak banatzen ditugu sariak zuzenean lortzeko eta baita zoz-ketetan sartzeko». Kukukan ere bezeroari zuzendutako promozioak dituzte.

«Gehien etortzen direnak aitatxi-amatxiak dira. Gure kasuan, gurusoek haurrei jostailuak erosten dizkiete, baina aitatxi-amatxiak edo osaba-izebek arropa oparitzen dute, ongi gastatutako dirua bezala ikusten baita, familiarri laguntzeko modu bat». Salmenta gehiago izaten dituzte egun hauetan, baina hala ere «Internetek erostea hain da erraza... ezin dugu enpresa handiekin lehiatu. Prezioak merkeagoak dituzte, baina hori azkenean norbaitek ordaintzen du; garraioan aritzen direnak, langileak, ekoizleak... esplotatzen dituzte. Kostua berdina dugu denok, baina guk soldata duin bat nahi dugu».



# Eguberriak ailegatu dira!

Ongi etorri Venta Peio merkatal zentroetara

## Eguberri on



2021EKO ABENDUA

## «Dendan hasi berria naiz baina ilusioarekin hartu dut»

2021eko urriaren 1ean hartu zuen Maxux Zubietak Lesakako Bixkiak denda. «Rosa Lasaga erretiratu behar zen eta nik hartu nuen. Betitik izan ditut gustuko horrelako dendak eta aukera ona iruditu zitzaidan». Lehenbiziko aldia du saltoki bat eramaten, ostalaritzan egin baitu lan orain arte, eta «ilusioz» hasi da. Hala ere, «ikusten ez den lan aunitz badago gibeletik». Kiroletako arropa saltzen du bertan, lehen Rosak egiten zuen bezala; «haur, emakume eta gizonetzkoentzako kiroletako arropa eta moda zerbait ere eskaintzen dut».

Hasierak beti dira zailak eta lana egin beharko duela argi du Zubietak, «bi hilabete bertzerik ez ditut egin baina zerbait badabil jada». Gabonetarako prestatzen hasia da; «arropa nahiko ekarri dut eta zerbait mugituko dela pentsatzen dut. Eguberriak sasoi ona dira lana egiteko». Lesakan jendeak herrian erosteko ohitura duela

ikusten du, «eta aukera ematen bazaie, Eguberrietako erosketak hemen egingen dituztela uste dut». Koronabirusak horretan lagundu duela uste du; «herritik atera ezin zirenean, batzuk Internetez egiten zituzten erosketak, baina badira herrian bertan erosten hasi zirenak».

Lesakako Zerbitzu Elkartean sartuta dago Bixkiak «onuragarria» delako eta «denon artean gauzak prestatzen ahal direlako». Toptopa online saltokia da horren adibide garbia, Denok Bat federazioarekin hainbat elkartek sortua. «Salmenta gutti egin ditut oraingoz baina jendeak ikusten du eta ezagutzera emateko tresna interesgarria da». Interneta erosketak egiteko modu erraz eta erosoak izan daiteke, baina Zubietak argi du herrian lortzen ahal duena «bertan erosiko dudala». Herriko dendak kompetentzia izan daitezke, «baina gauza desberdinak saltzen ditugu denok».



Maxux ZUBIETA PORTU

«Koronabirusaren ondorioz, batzuk Internetez erosten hasi ziren, baina badira bertako dendetan erosten hasi zirenak ere»

## Eguberrietako karta

**Sarrerak**

- Itsaski entsalada
- Entsaladilla errusiarrak
- Arrain pastela
- Bieira gainerreta
- Bakailaoz edo onddoz beteriko piperrak
- Arrain zopa
- Ziazerba eta ahuntz gazta hostorea
- Onddo eta foie hostorea
- Porru tartaleta
- Txangurro krepak
- Txangurroa labean errea
- Porru eta ganbaz beteriko kurruskaria

**Arrainak**

- Zapoa saltsa berdean
- Legatza itsaskiz beteta
- Legatza koxkera erara
- Bakailaoa drunguru erara otarrainskekin
- Bakailaoa saltsa berdean
- Izokin biribilkiak itsaskiz beteak

**Haragiak**

- Txahal biribilkia saltsan
- Txerri azpizuna onddo saltsarekin
- Ahate azpizuna foie eta mahats saltsarekin
- Txerri masailak saltsan
- Txahal masaiak ardo beltzetan
- Bildots erdia errea (3 kg. ingurukoa)
- Zerrikume errea (5 kg. ingurukoa)
- Ahate confit-a laranja saltsarekin
- Tenperatura baxuan eta hezurrik gabeko bildots errea

Enkarguak hartzen dira abenduaren 21a arte

Sara karrika, 7 - BERA (Agerran) Dendako ordutegia: 10:00-13:30 eta 17:30-20:00

Abenduaren 24an  
10:00-13:30

Martikoko lantaldeak,  
Eguberri eta Urte Berri ona  
opa dizu

# Martiko gara



## Boutique Martikoren ordutegia

Astelehenetik ortziralera: 9:00 -18:00  
Abenduak 3, ortziralea: 9:00-18:00  
Abenduak 8, asteazkena: 9:00-13:00  
Abenduko larunbatak: 11 eta 18a 9:00-14:00  
Abenduak 31, ortziralea: 9:00-13:00  
Urtarrilak 5, asteazkena: 9:00-16:00

Martiko  
Pol. Zalain s/n  
31780 Bera  
Navarra  
T: 948 62 50 16  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)  
[www.martiko.com/tienda](http://www.martiko.com/tienda)  
[martiko@martiko.com](mailto:martiko@martiko.com)

ELIZONDOKo plazan  
EROSKI CITY



Eguberri eta  
Urteberri on!

BEA ARRANDEGIA esarte

Astelehenetik Larunbatera

09:00 - 21:00

Foruen Plaza, 3 · ELIZONDO · T. 948 580 005

EROSKI city

TXALUPA, S.I. ARRANDEGIA

Arrain eta  
marisko freskua  
aste osoan

Zorionak eta Urteberri on!

ENKARGUAK HARTZEN DITUGU



Kanttonberri, 3 beheka · BERA  
T. 670 321 202 · 948 631 575

Malkorra



Santiago, 15 · Tel. 948 580 061 · ELIZONDO  
www.malkorra.com

FANTXIKE-Elizondo

## «Zerbitzua eta aurrez aurreko tratua dira gure indarguneak»



Mainer SOBRINO URRUTIA

Laugarren belaunaldia da Mainer Sobrinorena Elizondoko Fantxike dendan. «Gure birramatik, Fantxikek, duela 90 urte inguru ireki zuen denda». Mertzzeria bat zen hasmentan, baina denborarekin eskaintza zabaldu dute eta «denetatik» saltzen dute orain bertan; haur, emakume eta gizonen arropa, osagarriak, pijamak eta batak, turistendako oroigarriak, jostailuak... «Baserritar jantziak dira gure fuerteetako bat, baina batez ere bularretakoak eta barneko arropa. Neurri handiko sujetadoreetan espezializatzen gara».

Oporren atarian gaudela, «Gabonetako erosketak denborarekin egitea» gomendatzen du, «baina azkeneko momentura arte ez dugu pentsatzen zer oparitu edo ez gara animatzen erostera eta azkenean bertako komertziora jotzen dugu presaka. Guretako abenduan 15etik aurrera hasten dira Gabonetako erosketak, jende gehiago ikusten da orduan».

Badira erosketak Internet bidez egitea erabakitzen dutenak, baina «zerbitzua eta aurrez aurreko tratua» dira herriko dendan indargunea; «Internetetik erositak ez duzu inolako zerbitzurik, produktua ez gustatzea gertatu daiteke, zailago da bueltatzeko... hemen erositak denariak jakin beharreko guztia azalduko dizu». Honi esker, «komertzio tikiak biziko gara, estutasun aunitz pasako ditugu, baina biziko gara».

Izan ere, «arras kontent» dago Sobrino bezeroekin. 25 urte daramatza dendan lanean, eta «denbora hobeak bizi izan ditugu, baina txarragoak ere bai. Ez gara kexu». Komertzio guztiek bezala, pan-

demiarren ondorioa nabaritu dute, «baina bertako jendea arras ongi portatzen ari da».

Elkarteen garrantzia ere azpimarratu digu. 'Bertan' Baztango merkatarien elkarte 2006an sortu zen eta hasieratik hor egon da Fantxike; «Argi dugu asoziazionismoa ikaragarri ona dela dirulaguntzak lortzeko, promozioak egiteko, ikastaroak antolatzeko... bakarrik lortu ezin duguna lortzeko. Bertze merkatariek lankideak dira, ez lehiakideak. Informazioa elkarri eman behar diogu eta elkar lagundu».

Elkartek urtero egiten du kanpaina bereziren bat Gabonetan. «Azken urteetan tonbola bat egin dugu eta iaiztik saskiak zozketatzen hasi gara. Komertzio bakoitzak 50 euroko opari bat ematen du eta hiru saski txukun osatzen ditugu». Erosketak egitegatik zozketan parte hartzeko aukera izanen dute bezeroek eta abenduan hiru astetan jakinaraziko dituzte irabazleen izenak.

Elizondo apaintzeaz ere arduratzen dira, herriari kolorea eta argia emanez. «Egia da guk dendan ez dugula hainbertzeko zaletasunik, baina beti saiatzen naiz zerbait egiten; erakusleihora arropa gorriak edo neguko marrazkiak dituzten pijamak ateratzen ditut, atean Olentzorro bat izaten dugu eskutitzak botatzeko aukerarekin...».

«Argi dugu  
asoziazionismoa  
ikaragarri ona  
dela guretako»



# EGUBERRI ON!

Promoioak, zozketak, deskontuak eta  
gabonetako produktu bereziak gure webgunean  
eta dendetan.

  
**BIOK**  
MARKET

[ventabiok.com](http://ventabiok.com)

## «Jendeak erosketak aitzindu ditu»



Patricia ERRANDONEA ASTONDOA

Historia luzeko denda da Bera-ko Igone liburu, paper eta jostailu denda. 1977ko azaroan ireki zuen Ascension Astondoa beratarak, eta aurten hartu dio errelebeoa bere alaba Patricia Errandoneak. Dendari gisa, beraz, lehen gabonak izanen ditu Errandoneak, nahiz eta kontatu duen txikitatik ibili izan dela amari laguntzen dendan bate-tik bertzera.

Eguberriak hasi aitzinetik ere, azaro hasierarako lan gehiago nabaritzen hasi zen Errandonea: «Bezeroek erosketak aitzindu dituzte. Jendea beldurrez dago jostailuak eta faltako ote diren» kontatu du.

Jostailuez aparte, bertzelako gauzak ere saltzen dituzte dendan: «Joko hezigarri anitz, panpinak, liburuak, margoak, eta baita eguneroko prentsa ere». Gabonetan, ordea, gehienbat joko hezigarriak eta liburuak izaten dira gehien saltzen direnak. Horretarako denda ere bereziki prestatu du, jokoei leku gehiago emanaz. Erosleen profila ere zehatza izaten dela dio Errandoneak: «Normalean opariak egiten dituztenak dira, aitatxi-amatxiak eta gurasoak gehienbat». Hala ere lagun ezkutuaren kontuarekin ere jendea dendara joaten dela kontatu du, normalean gauza txikiagoak erostera: «bitxikeriak, pinturak, koaderno bereziak, katiluak...».

Dendan lehenengo gabonak dituen arren, aski ongi daki Errandoneak urte sasoi zaila izaten dela eguberrietakoa saltzaileentzat: «Aukera zabala dugu, eta gustatzen zaigu bertako jendea hurbiltzea, baina jendeak ohitura handia du internetez erosteko edo kanpora joateko eta guretzat zaila izaten da. Saiatzen gara eskaintza zabaltzen, iragarkiak egiten...». Pandemiak, hala ere, komertzio txikiei onurak ere ekarri dizkiola uste du, batez ere iaz mugak itxita jende anitz herrian gelditu zelako, eta aurten ere iazko bezero batzuk mantendu dituztelako.

Iaz ireki eta urtea bete berri duen Toptopa.shop komertzioa ezagutarazteko harriminta garrantzitsua da Errandonearentzat, batez ere erakusleho gisa balio duela. «Pentsa, behin Madrilera ere bidali nuen pakete bat», kontatu du. Gabonak heldu ahala, gainera, mugimendu gehiago espero du online dendan, horretarako kanpainak ere egiten ari direlako.

Bi belaunaldi elkartu ditu Igone dendak, baina asmoa hasierako berbera da: erosleei gertutasuna eta harreman pertsonalizatua eskaintzea. Hain zuzen, hori da Errandonearen ustez denda txikiek duten abantaila nagusia.



**ROSKOAK ETA  
EGUBERRIETAKO  
PRODUKTUAK**





**Eguberri on!!**





*Boxune Kafetegia*

*Sara Kafetegia*

**IREKIA abenduak 25**  
eta **urtarrilak 1 09:00-13:00**  
Errege eguna **IREKIA 08:00-13:00**

**ITXITA**  
**abenduak 25 eta urtarrilak 1**  
Errege eguna **IREKIA 08:00-13:00**

Sara karrika, 7 BERA • 948 630 235

Hurlandeta, 6 BERA • 948 625 673



**Panettoneak**  
**Errege erroskoak**  
**Turroiak**  
**Txokolateak**  
**Bonboiak**  
**Polboroiak**  
**Pastak**

**eguberri eta urte berri on!**

Eztegara 25, Bera 31780 Nafarroa T: 948 630 899

@sarobe\_okindegia\_gozotegia | www.sarobe.net

# EGUBERRI ON!



Abenduaren 13tik 26ra denderatzen. Deskontua zila mekean lurrin, makillaje eta kosmetika. Eskuratu hau ez da bateragarria beste promozioekin ezta Chanel produktuekin ere.

Abenduaren 13tik 26ra denderatzen. Deskontua zila mekean lurrin, makillaje eta kosmetika. Eskuratu hau ez da bateragarria beste promozioekin ezta Chanel produktuekin ere.

LURRINA, KOSMETIKA, MAKILLAJEA

## eskuratu %50eko deskontua

bigarren alean Idoia fideltasun txartelarekin

**IDOIA**  
LURRINDEGIA

[perfumeriasidoia.com](http://perfumeriasidoia.com)

**IBARROLA**  
Haurrendako arropa  
0-14 urte  
Parrokia kalea 6 - Doneztebe  
948 450 463

Familia ugariarentzat -%15eko deskontua  
Larunbat arratsalderako hitzordua eskatu:  
619 406 556

Abel & lula  
mayoral  
Pimbelina  
CANADA HOUSE  
GEORJE  
GARCIA

## ARIZTELA - Leitza

# «Zaila da jendea erosketak egiteko herrian gelditzea»

«Herri txiki bateko denda», halaxe deskribatu du Estitxu Lertxundik Leitzako Ariztela. Kortinak, toallak, mertzeriako objektuak, kortseteria, barneko arropa, baserritar jantziak... denetariko objektuak saltzen dituzte bertan. Denda baino gehiago ordea da Ariztela, jostundegia ere baita.

Gabon garaia lan handiko sasoia izaten dela dio Lertxundik, saltzeko produktu asko iristen zaizkielako, eta baserritar arropekin lan asko egiten dutelako. Hala ere, lehenagotik hasten dira lanarekin, «urri alderako edo». Gabonekin batera inauterietako prestaketak ere hasten dira, Leitzan urtarrilean izaki, jendeak garaiz erosten dituelako telak. Azken urteetan, gainera, jendea baserritar arropen bila ohi baino lehenago joaten dela kontatu du: «Urrian jendea etortzen da arropa bila, eta baita tokillak eta antzerakoak josteko hari bila. Orain ohitura handia dago gabon aurretik baserritar arroparekin argazkiak ateratzeko.

Leitzako Kaxkabeltza merkatarien, Denok bat federazioaren eta Toptopa. shop-aren parte da denda. Azken hori salmentarako erreminta ona dela uste du «eskaparate funtzioa» betetzen duelako: «Lehen askotan jendeak telefonoz deitu eta lan handia zen argazkiak ateratzeara. Orain dena dago txukun txu-



Estitxu LERTXUNDI BEÑARAN

kun hor». Elkartearen barrenean egoteak babes moduko bat ematen diola dio Lertxundik: «Segurtasun handia ematen dit. Taldearen parte sentitzen naiz, eta horrek indar handia du kanpotik presio asko dagoen garai honetan». Presioa aipatzean online bidezko erosketei bidez ari da, izan ere iruditzen zaio gazteen artean, batez ere, ohitura handia dagoela. «Zaila da jendea erosketak egiteko herrian gelditzea, Gero, dendak ixtean konturatzen dira». Gabonetan, ordea, hori aldatzen dela uste du: «Jendeak badu ohitura herrian ere zerbait erosteko, bai produktuak interesatzen zaizkielako, edota herrian erostearen kontzientzia hori ere badutelako».

**«Gabonetan jendeak badu ohitura herrian zerbait erosteko. Bai produktuak interesatzen zaizkielako, edota herrian erostearen kontzientzia hori ere badutelako»**



Eguberri hauetan oparitu oroitzenak  
Familia - Lagunak - Haurdunaldia - Jaio berria  
Argazki saioak

687 084 831 - LEITZA  
Rakel argazkiak  
rakelargazkiak@gmail.com  
Rakel\_argazkiak





### HOTELA - BENTA - JATETXEA

Eguberri eta Urteberri on  
lagun eta bezero izan zaituztegunoi!

Abenduaren 13tik  
otsailaren 23ra arte ITXITA

*ondotik indarberrituak etorriko gara!*

Iruñea - Irun errep. 60km · 31760 ETXALAR  
T. 948 635 000 · F. 948 635 263  
info@etxalar.com · [www.etxalar.com](http://www.etxalar.com)



Ezkontzak, jaunartzeak,  
lagunartzeak, kinto bestak,  
familia ospakizunak...

*zure ospakizunak Etxalarko Benta*



## Beola Etxea

VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA | T. 948 630 709  
[www.beolaetxea.com](http://www.beolaetxea.com)



*Eguberri  
eta urte berri on!!  
Bezero  
eta lagun guztioi!!*

Vilanova  
accessories

TIFFOSI KIDS

TIFFOSI

GIBLOND

BRAVE SOUL



# Euskarazko Produktuen Katalogoa

Urteko garai hau seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute, bertze urte batez, Euskal Herriko udal eta mankomunitatetako 100 Euskara Zerbitzuz baino gehiagok. Aurtengoa 23. edizioa da.

Web-orriak zein paperezko edizioak, biek ere itxura berriak estreinatu dituzte eta jasotzen dituzten produktuak bi atal nagusitan erakusten dituzte: atal bat 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin osatua, eta bertzea 12-16 urte bitarteko gazteentzako produktuekin osatua.

Egunotan banatuko dira paperezko edizioaren 70.000 aleak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan. Bi azal izanen

ditu: batek sarbidea ematen die 12-16 urte bitarteko gazteentzat eskaintzen diren produktuei, eta bertze aldekoak 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuei eta gurasoentzako materialei. Jakina, paperezko edizioak ez ditu biltzen KATALOGOA.EUS web-orrian jasota dauden produktu berri guzti-guztiak, atalka antolatutako hautaketa bat baizik. Izan ere, webgunean 8.000 produktu inguru daude guztira: musika, DVD-filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materiala.

Gainera, azken nobedadeen berri izan nahi dutenei buletin elektronikora harpidetzeko bidea emanen die webgunek. Urtearen buruan 10 buletin jasoko dituzte, argitaratu berri diren produktuekin. Horixe baita katalogoaren helburua; merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak erabiltzaileen eskura modu errazean jartzea.



sartu webgunera  
[www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus)

**Kalash**  
JOYEROS

Ekarri erabiltzen ez duzun urrea eta nahi duzun bitxia egingo dugu

VICEROY CASIO SANDOZ CITIZEN ECO-DRIVE

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751  
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519


hotel-balneario  
**elgorriaga**  
hotel-bainuetxea

**TOP 10**

Espainiar Estatuako  
10 bainuetxe  
onenetarikoen  
artean

**Eguberrietako oparirik hoberena!**

Informazioa eta erreserbak:  
[www.balnearioelgorriaga.com](http://www.balnearioelgorriaga.com) | 948 456 045  
[reservas@balnearioelgorriaga.com](mailto:reservas@balnearioelgorriaga.com)



Donamariako Helpbidea.

## Helpbidea-112 seinaleak paratzeko dirulaguntzak

Beintza-Labaien, Bertizarana, Donamaria, Eratsun, Ezkurra, Oiz, Saldias, Urdazubi eta Urrozko udalak hartu dituzte

### TTIPI-TTAPA

Aurten Nafarroako 11 udalak (horietatik 9 eskualdekoak) hartuko dute euren herriko *Metro-Baserria* diseinatzeko, baserrietako identifikazio-plakak egiteko eta bide-seinaleak paratzeko dirulaguntza. Basaburua, Beintza-Labaien, Bertizarana, Donamaria, Eratsun, Ezkurra, Imotz, Oiz, Saldias, Urdazubi eta Urrozko udalak dira.

Larrialdi kasuetan medikuak, suhiltzaileak eta oro har zerbitzu publikoak baserrietara ahalik eta lasterren ailegatu ahal izateko arras garrantzitsua da Helpbidea-112 proiektua. Nafarroako Gobernua, tokian tokiko udalen laguntzarekin, lurralde osora zabaltzen ari den egitasmoa da eta, dagoeneko, hainbat herritan indarrean jarria dute proiektua.

## Baztan-Bidasoko hiru zerri-haztegi saritu dituzte Porc d'Or sarietan

Eskualdeko bortz zerri-haztegi izendatuak zeuden aurten Porc d'Or sarietarako eta azaroaren 19an Leidan (Herrialde Katalanak) egin zuten sari banaketan, horietako hiruk lortu zuten sariren bat: Etxalarko Mikel Irigoienek Zilarrezko Saria eskuratu zuen zerrien Bizitza Luzeraren ka-

tegorian; Berroetako Juana Mari Etxenike eta Lorenzo Maritorenaren zerri-haztegiak eta Gartzaingo Maria Pilar Aleman Goñiren haztegiak brontzeko sari bana eskuratu zuten Produktibitatearen kategorian (ume kopurua) eta zerrien Bizitza Luzeraren kategorian, hurrenez hurren.



SAIOA PERONA

## Errigorako kutxak banatu dituzte TTIPI-TTAPAK

Lehiaketa honetan parte hartzeko Ttipi Txartela izan eta *ERRAN.EUS* webguneko zortzi galderei zuzen erantzun behar zen lehenik. Gero, erantzun zuzenak asmatu zituzten parte-hartzaileen artean zozketa egin zen eta Aurtizko Ekiñe Mindegia, Arantzako Patxi Larretxea eta Arizkungo Totu Iturzaeta izan dira saridunak.

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

**IBARGOYEN**  
 SUMINISTROS CARROCEROS

[www.ibargoyen.net](http://www.ibargoyen.net) ☎ 943 616 587  
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

# Dena prest Balikebale lehiaketarako

Parte hartuko duten lau hirukoteak zein izanen diren zehaztu dute eta sarrerak abendu hasieran jartzekoak zituzten salgai

## TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, abenduaren 17an, ostiralarekin, izanen da Balikebale lehiaketa handiaren laugarren edizioa. Herri Aretan egin dute hitzordua eta 19:00etan hasiko da.

## Lau hirukote

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen eta udalaren laguntzarekin antolatatu dute lehiaketa honetan, lau talde ariko dira nor baino nor gehiago. Talde batean Andrea Kasares, Amaia Ezkurdia eta Luken Kasares ariko dira; bigarren taldea Julian Zabaletak, Eneko Eizagirrek eta Urko Olanok osatuko dute; hirugarrena Harkaitz Delgado, Iraitz Uriartek eta Saioa Salbarredik eta laugarrena Eden Gastearnak, Arkaitz Olanok eta Beñat Zabaletak.

## Sari potoloak

Lehiakideek sari potoloak izanen dituzte zain: 450 euroko txekoa, otorduak, kultur ekin-tzetarako sarrerak, herriko produktuak... Baina antolatzailerak aurreratu dutenez, ez dute lehiaketaren garapenari buruzko «inolako pistarik» izanen. Dabid Anaut euskara teknikariak TTIPI-TTAPARI adierazi dionez, «sekretupean gordetzen saiatzen gara. Sorpresa izanen da».

## Sarrerak

Aurreko edizioek izan duten arrakasta ikusita, seguru ikusmina sortuko duela aurtengoak ere. Baina joan nahi dutenek sarrerak aurretik hartu behariko dituzte. Abendu hasieran Maimur eta Astiz liburu-dendetan jartzekoak zituzten salgai, zortzi eurotan.



UDALA

## Suhiltzaile boluntarioak lanean

Hileroko formakuntza-maniobra egin dute suhiltzaile boluntarioek berriki, eta elurra kentzea ere tokatu zaie. Gainera, Nafarroako Gobernuak erretiratu zuen 4x4 ibilgailu berria eman die dohaintzan. Aurrekoa zaharkitua zenez, udalak gobernuarena zena egokitu du, «hain baliotsua den lana egiten jarrai dezaten».

## Amazabal institutua «mugikorrik gabeko eremu»

«Mugikorrik gabeko eskolagune osasuntsuak lortzeko», Amazabal institutuko ikasleek klase orduetan mugikorrik ez erabiltzeko ekimena sortu du zuzendaritzak. Helburuak bilduz, hitzarmena sinatuko dute ikasleen gurasoek eta ikastetxe zuzendariak. Hala, gazteak klase mugikorrik gabe bidaltzeko konpromisoa adieraziko dute guraso eta tutoreek, eta irakasleari ikasleei mugikorrik kentzeko baimena emanen diote. «Teknologiak nerabe-zarozan estres handia sortzen duela ikusita» abiatu dute.

## Hitzaldia aretoan eta kontzertuak Atekabeltzen

*Zazpiak bat: Euskal Herriko armariaren historia* izenburupean hitzaldia emanen du Andoni Esparzak ostegunean, hilaren 9an, Herri Aretan, 19:30ean. Bestalde, aurreko urtean bezala, denboraldi honetan ere hilabetero Atekabeltzen kontzertu bat antolatuko du Atekabeltz Herriguneak. Ikasturteko aurrenekoa azaroaren 27an egin zuten, Ezpalak taldearekin. Abenduan atsedean hartu ondoren, ilbeltzaren 15ean egingen dute hurrengo kontzertua, Joseba Irazoki eta Lagunak taldearekin.



Autodefentsa feministaren aldeko deia egin zuen Lañaidetik. GIZARTE ZERBITZUAK

## «Leitzan ere matxismoaren bortizkeria jasaten dugula» salatu du Lañaidetik

### TTIPI-TTAPA

«Biolentziaren aniztasuna» azalerratu zuten azaroaren 25ean Lañaidetikneska\* gazteen taldeak deituta egindako elkarretarantzean, eta argi utzi zuten: «etorkizuna feminista izaten ez bada, ez dugu etorkizunik».

Herriko hainbat emakumeren artean egindako inkestaren berri ere eman zuten. «Inkestan parte hartutako emakumeen % 95ek eraso edo jazarpenak jasan ditugu, horietatik % 86 herrian. % 26 derrigortuak izan gara sexu harremanak izatera».

Zaintza lana ere aipatu zuten: «emakumeak gara gehiengoak

eta utzikeriaren ondorio zuzenak jasaten ditugu. Ezin du lanak, ordainduak zein ordaindu gabeak, eguneko ordu gehien jabe izaten jarraitu. Bizitza ezin bizitzea ere biolentzia da». Hala, feminismoa han eta hemen zabaltzeko deia egin zuten: «eta bitartean elkar babestu, autodefentsa sare sendoa izan».

Bestalde, aurreko Euskal Herriaren eraildako bost emakumeak gogoan, udalak siluetak jarri zituen plazan, baina handik egun batzuetara bururik gabe agertu ziren. Gertaera gogor salatu zuten udalak, Sastrakak eta hainbat herritarrek.

# «Leitzako Herri Aretoa erreferentziatzko plaza izatea nahi nuke»

**MIREN TIRAPU GOIKOETXEA** LEITZAKO KULTUR TEKNIKARIA

Azaroaren 5az geroztik bera da kultur teknikaria. Jardunaldi erdian hasi da eta Herri Aretoko programazioa osatzeaz gain, herriko kultur eragileen arteko koordinazioaz arduratuko da

**G. PIKABEA** LEITZA

«Gogotsu» eta «ilusioz» hasi du ibilbidea Miren Tirapu kultur teknikariak. «Beti» ibili da kulturaren bueltan, eta orain beste pauso bat eman du. Kulturarekiko interesak ireki zion «Basauriko antzerki eskolan antzerkia eta Bartzelonako Centre de Estudis Cinematografics de Catalunya zinea» ikasteko bidea. Urte batzuk eman zituen Bartzelonan lanean, Euskal Herrira itzulita Kultur eta Gizarte Antropologia ikastea erabaki zuen arte. Duela zenbait urte Beheko Lorraine konpainia sortu zuen, eta dioenez, «euskarazko antzerkigintzari indarra ematea izan da nire helburu nagusia». Berriki, Leitzako kultur teknikariaren lanpostua lortu du eta pozik sumatu du, «orain arte oholtzatik egin dudana beste aldetik egiteko aukera» izanen duelako, eta hala, «Nafarroan euskal kultura sustatzeko» bidean bere alea jartzen ahalko duelako. Gainera, «horretarako Leitzako plaza baino hobetik ez dagoela» dio; «herri mugimendu handia dago eta kultur eragile asko daude».

## Zer moduzko hasiera izan duzu?

Azaroaren 5ean hasi nintzen lanean, eta hasiera bikaina izan da. Sei urte daramatzat herrian bizitzen, herriko jendeak ezagutzen nau eta badaki kulturazale amorratua, antzerkilaria eta sortzailea naizela, euskal kulturaren alde borrokatzen dudala... Egia esan, harrera



Nafarroan euskal kultura sustatzen lanean jarraitu nahi du Tirapuk.

bikaina egin didate, bai udalean, baita kalean ere. Konfiantza sentitu dut, eta azaroaren 24ko aurkezpenean horixe eskatuen, konfiantza. Aurkezpenean herriko kultur eragileetako ordezkariak bildu ziren, eta oso sentsazio ona izan nuen.

## Nola funtzionatuko duzue?

Gure asmoa kultur mahaia osatzea da, eta mahai horretan eragile guztiak ordezkaria izanen dute. Eragile bakoitzak bere proposamenak aurkezteko aukera izanen du, eta denon artean urte osoko egitaraua osatuko dugu. Herriko eragileek urtetik urtera ospakizunen egutegi bat osatu dute eta Herri Aretoko programazioak horrekin bat egin behar du, beste eragile bat bailitzan. He-

rri txikia gara eta programazio aberatsa egin nahi dugu, baina neurrian, saturazioa saihestuz. **Zein asmo dituzu?**

Eskaintza aberatsa egin nahi dut eta, nire aldetik ahalik eta kultura gehien kontsumitu beharko dut, gero Leitzara egokiena ekartzeko. Programazioaren % 98 euskaraz izanen da, baina ez dut euskarazkora mugatu nahi. Adibidez, nazioarteko egunean, kanpoko konpainia bat gustura ekarriko nuke, eta zinea jatorrizko bertsoan proiektatzea espero dut. Leitzan zineak oso ongi funtzionatu izan du eta hilabeteetan bi asteburutan programatu nahi nuke, antzerkia hilean behin, kontzertua bi hilabete-tik behin, dantza, ikastaroak

beharraren arabera... Programazioarekin hasteko gogotsu nago, baina kontua mantso doa, ministerioak ez ditu gauzak erraz jartzen. Ongi egiteko pausoz pauso egin behar dugu. **Udalak apustu handia egin du kulturari dagokionez. Herri aretoa egokitu, teknikaria kontratatu...** Niretzat kultura ez da aisialdia bakarrik. Hezkuntzarako ezinbesteko erreminta da, pedagogikoa, pentsamendu kritikoa garatzeko ezinbestekoa. Beharrezkoa da aisialditik kanpo kultura aztertzea, eta erreminta politikoa, soziala eta ekonomikoa ere bada. Kulturak hurremanak sortzen, gure identitatea garatzen, mundua ulertzen... laguntzen du. Eta hori eskaintzeko aukera izatea goxoki handi bat da niretzat. **Kultura aldetik, nolako herria da?** Oso herri bizia da eta euskal kultura sustatzeko ez dago Leitzako plaza baino hoberik. Eragile guztiak kudeatzea lan handia izanen da baina gogotsu nago. Ez naiz administrari bat, kulturatik nator eta espero dut ongi egitea. Ez dut nire programazioa inposatu nahi, hitz eginez aurrera egin nahi dut eta beti eragileei laguntzeko prest egonen naiz.

## Leitza Nafarroako Antzoki Sarean sartuko da. Azalduko zenuke?

Bai, otsailetik aurrera izanen da. Herri Aretok aukera berriak sortu ditu eta nabarmenetako bat Nafarroako Antzoki Sarean sartzea izanen da. Sare horretan sartzeko baldintzak betetzen ditu Leitzak: aretoak eserleku kopuru jakin bat izatea, hornidura tekniko zehatza, kultur teknikaria... Sare horrek beselako presentzia emanen dio Leitzari. Aldi berean, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak eskuratzeko atea irekiko du, eta horrekin kalitatezko programazioa osatu nahi dut. Dirulaguntzarik gabe, zaila da urte osoko programazioa egitea.

## Zein da zure erronka nagusia?

Herri aretoa euskal sortzaileentzat eta euskal publikoarentzat erreferentziatzko plaza bat izatea gustatuko litzaidake.

## Baserritarren batzordea sortzeko bidea abiatu dute

Gabeziak eta hutsuneak aztertu dituzte baserritarrek azaroaren 17an egindako bileran

### TTIPI-TTAPA

«Egiazko beharrak aztertu eta zuzentzeko asko falta da. Aurrerapausoak tantaka datoz». Hala ondorioztatu zuten azaroaren 17an baserritarrek egindako bileran. 25 baserritar bildu ziren, baita Patxiku Iri-sarri EHNE sindikatuko idazkaria ere, eta Juanjo Elizalde TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «bilera mamitsua» izan zen.

Hasteko, egungo egoera izan zuten hizpide. «Gaur egun 80 bat ustiategi gaude» eta Elizalde azaldu duenez, «agerian gelditu zen baserrietako bideek eta mendi aldeak duten egoera txarra»: «Baserrietako bideak leku askotan zuloz beteta daude, bazter-babesik gabe». Gaineratu duenez, «arriku leku asko eta mendian aziendak amiltzeko leku kritikoak daude».

Uraren askak eta oro har azpiegiturak «oso egoera txarrean» daudela eta «mendiak oso zikinak» daudela aipatu omen zuten: «sasiak eta oteak hartutako eremu handiak daude» eta «hori dena baserritarrek bakarrik zuzentzea ezinezkoa da». Ez hori bakarrik: «150 behi mestizo basati batere kontrolik gabe daude. Istripuak eragin ditzakete, pertsoneri edota azientei gaitzak kutsatu...».

Dena den, Elizalde uste du «min handiena azken esleipenak» egin duela: «Artikutza ondoko mendiak aziendetzako egoera onean jartzeko Nafarroako Gobernuaren diru partida handiena, 45.000 eurotik 40.000 euro, berezko egin-beharretatik desbideratu eta Illarrietako ehiza postuetako pista konpontzeko erabili izana tamalgarritzat jo genuen».



Baserritarren bilera. JUANJO ELIZALDE

### «Arnas berri bila»

Egindako lanen artean, «pausorik garrantzitsuena lau aska egitea» izan omen da. Eta hori «positibotzat» jo du Elizalde, baina «egiazko beharrak aztertu eta zuzentzeko asko falta dela azpimarratu genuen. Nahiz eta udala eta baserritarrek biltzen ari garen, aurrerapausoak tantaka datoz». Eskualdeko baserritarren elkarte sortu izana ere «oso positibotzat» jo zuten, «baina Goizuetako baserritar gehienoi momentuz ia ez zaigu onurarik iritsi».

Bestetik, baserritarrek «harritura» omen daude, «baserri ingurutik udalera zerga bidez iristen den diru kopuru handia ikusita, nolatan ez diren behar diren inbertsioak egiten».

Hala, auzoetako ordezkariak izendatu eta baserritarren batzordea sortzea erabaki dute, «Goizuetako nekazaritza eta abeltzaintzari arnas berriak emateko». Irisarrik emandako «sindikatuaren babesa» ere eskertu zuten baserritarrek.

## 'Sukaldatu zuk-adatu' kanpainaren barne, hitzaldia abenduaren 13an

### TTIPI-TTAPA

Martxan da berriz ere adin txikikoen obesitate tasa murrizteko eta ohitura osasuntsuak bultzatzeko helburua duen Kikilisaldea ekimena. *Sukaldatu zuk-adatu* kanpaina hasi dute eta horren harira, azaroaren 29an Leitxan Itxaro Zaba-

leta dietista-nutrizionistarekin hitzaldia egin zuten. Hitzlari bera ariko da abenduaren 13an Goizuetako udaletxeko ganbaran, 18:00etan. Abenduaren 10ean, 13:00etan, bukatuko da izen-ematea. Xalto eskolako galdetegiaren bidez edo Anikotera deituz egin behar da.



FELIX LOIARTE

## Feria Eguna euritsua

Eguraldi euritsuarekin eta kazkabarrarekin beste urteetan baino jende gutxiago animatu zen feria egunaz gozatzera. Hala ere, frontoiko idorra aprobetxatuz, ez zen jenderik falta izan artisauen eta baserritarren produktuak ikusteko eta erosteko.



GIZARTE ZERBITZUEK UTZITAKOIA

## Indarkeria matxistaren aurka

Eguraldi txarrari aurre eginez, azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean, elkarretaratzea egin zuten herritarrek. Borroka feministaren aldeko deia egiteaz gain, egun guztian herriko hainbat balkoi, leiho eta txoko morez apaindu zituzten.

## Tailerrak eta futbol campusa Eguberrietan

Eguberrietako tailerrak Goizueta, Areso eta Aranon egingen dituzte, eta Leitzan aurrenekoz futbol campusa antolatu dute

### TTIPI-TTAPA

Eskolako oporrak bukatuta, ez dute aspertzeko astirik izanen neska-mutikoei. Batetik, aurreneko Eguberrietako tailerrak antolatu ditu euskara zerbitzuak Goizuetan, Areson eta Aranon. Bestetik, Leitzako Aurrera Kirol Elkarteak Eguberrietako futbol campusa prestatu du Leitzan.

### Eguberrietako tailerrak

Eguberrietako tailerrak Dindaia fundazioarekin elkarlanean antolatu ditu euskara zerbitzuak. Areson bi egunez egingen dute: abenduaren 27an eta 28an, udaletxeko goiko gelan. Aranon abenduaren 29an Maisuenean; eta Goizuetan abenduaren 27an, 28an eta 30ean, eskolan. 10:00etatik 13:00etara bilduko dira.

Eskolaren bitartez irekiko dute izen-ematea eta aben-

duaren 9tik 15era bitarte apuntatu beharko da, bost euro ordainduta. Izena egun guztietarako eman daiteke, baita bi egunetarako edo egun bakarretarako ere.

### Futbol campusa Leitzan

Aurrera Kirol Elkarteak, Leitzako Udalak, Anikote kiroldegia eta Kikilisaldea ekimenak, berriz, Eguberrietako I. Futbol Campusa antolatu dute, 6 eta 12 urte bitartekoentzako. Bi astez egingen dute: aurreneko saioa abenduaren 27tik 30era eta bigarrena abenduaren 31n, eta urtarrilaren 3tik 5era. 09:00etatik 14:00etara bilduko dira.

Abenduaren 14an bukatuko da izena emateko epea. Horretarako [aurrerakanpusa@gmail.com](mailto:aurrerakanpusa@gmail.com) helbidera edo 623 15 73 36ra Whatsapppe idatzi behar da.

## Aurre-begirale titulua eskuratzeko saioak eskualdeko gazteentzat

### TTIPI-TTAPA

14 eta 17 urte bitarteko eskualdeko gazteek aurre-begirale titulua lortzeko aukera izanen dute abenduan, doan. Lau saio egingen dituzte, abenduaren 18an, 27an, 28an eta 29an, bi egunez Larraunen eta bi egunez Leitzan. 09:30etik 14:30era

eginen dute, eta azken egunean 10:00etatik 18:00etara.

Urtxintxa Aisialdi Eskolak emanen ditu saioak eta abenduaren 14rako eman behar da izena: [ssbirurtzun.izabala@gmail.com](mailto:ssbirurtzun.izabala@gmail.com), [prebentzioa@lagazartezerbitzua.org](mailto:prebentzioa@lagazartezerbitzua.org), 605 46 68 05, 681 26 51 89 edo institutuan.



E. IRAOLA

## Euskararen Eguna Areson

Euskararen Nazioarteko Egunaren aitzakian, hainbat ekitaldi antolatu zituzten azaroaren 29tik abenduaren 3ra. Hau idazterakoan, haurrentzako jolas eta eskulan tailerra eginga zuten negu giroko arratsaldea lagunartean goxatuz. Abenduaren 3an egun osoko festa egitekoa zuten (argazkiak [ERRAN.EUS](http://ERRAN.EUS))



UTZITAKO ARGAZKIA

## Biktimak gogoan izan dituzte Areson

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontra-egunean, *Zauriak* dokumentala eskaini zuten udaletxean. Gero elkarretaratzea egin zuten plaza zaharrean eta 2003etik Euskal Herrian genero indarkeriaren ondorioz hil dituzten 11 haur eta 112 emakumeak gogoan izan zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Indarkeria matxista salatu dute Aranon

Azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean, elkarretaratzea egin zuten irudian ageri diren Aranoko herritarrek. Aldarri morearekin bat eginez, borroka feministaren aldeko mezua luzatu zuten eta ondoren argazkia atera zuten.

## Karriketako argien auditoria egin du udalak

Baztanen 2.352 argi puntu daude eta urte bukaerako fakturan 157.770 euroko kostua suposatzen dute

### TTIPI-TTAPA

Baztango karriketan dauden argiak aztertu ditu udalak Eficen enpresari emandako lanarekin. Azterketak oraingo kontsumoa gutitzeko eta eraginkorragoa izateko proposamenak egiten ditu, «gehiegizko kontsumoak ingurumenean eta ekonomian dituen ondorioengatik». Auditoriaren kostua 16.698 eurokoa izan da eta proiektuarena 2.117,50 eurokoa.

Kontsumoa 1.168.666 kWh-koa izatetik 233.733 kWh-ekoa izatera jausteko proposamena

egiten du txostenak, argiteria erregulatuz, potentziak gutituz eta lanparak aldatuz. Honek 126.216 euroko aurrezpen ekonomikoa ekarriko du, eta horretarako 1.277.160 euroko inbertsioa egin beharko litzateke.

Hau lortzeko, azaroaren 4an Espainiako Trantsizio Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren Ministerioak argitaratutako laguntzen deialdira 500.000 euroko aurrekontua duen proiektua aurkeztu zuten. Deialdiak proiektuaren %85 artio laguntzen du.



Aldaketekin 126.216 euro aurreztu nahi ditu udalak. ONDIKOL

### Eraginkortasuna helburu

Proiektuarekin argiteria eraginkorragoa lortu nahi dute bailaran, energia aurreztuz erabiltzaileak kaltetu gabe.

Gaueko orduen baldintza naturalak ahalik eta gehien mantendu nahi dituzte, «ekosistemaren hobe beharrez». Gainera, argien gaueko dir-dirak zerua ikustekorakoan dituen ondorioak prebenitu

eta etxeetan sartzen den argiak sortutako eragozpenak gutitu nahi dituzte.

Azterketaren neurri guztiak betez gero, energia kontsumoa 934.933 kWh guttituko litzateke, hau da, 233.733 CO2 kg isuri saihestuko litzateke. Hau 116 autoren isuriaren edo 10.658 zuhaitz landatzearen baliokidea izanen litzateke.



**ELBETE** KO  
**POSADA**

Eguberri hauetan  
**OPARITU**  
Elbeteko Posada

**OPARI TXARTELA**  
zure esku

**ELBETE** • Karrikaundi • T. 948 581 519  
info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
**abokatu**

Dibortzioak, herentziak,  
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C **ELIZONDO**

**OTEIZA**  
ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

DESIGNER  
CERTIFIED  
PASSIVE HOUSE  
DESIGNER

665 71 56 96 - 943 42 52 43  
www.oteizaarquitectos.com

@oteizaarquitectos

**suteia-zaldain**  
instalazioak  
**IGOGAILUAK**

**15**  
Urteko  
esperientzia

**PROFESIONALAK  
KALITATE-BERMEA  
IRISGARRITASUNA  
MANTENTZE LANAK**

**1 KANPOKO IGOGAILUAK**  
Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

**2 BARRUKO IGOGAILUAK**  
Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako egokituak.

**3 IRISGARRITASUNA**  
Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

**EZ ZAITEZTE KEZKATU!** Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

**Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999**  
suteia@suteiazaldain.com



**B**idaiden, fisioterapeuta-osteopatek (Rafa Alzate eta Bego Viela) eta emaginak (Ainhua Viela) elkarrekin egiten dugu lan emakumeen eta beren umetxoaren beharretara egokitzeko. Alde batetik, emakumearen edozein arazo muskulu-eskeletikori irtenbidea aurkitzeko prest gaudete, eta ume sortu berriengan erditzeak izan duen eragina orekatzen saiatzen gara (*osteopatía craneosacral*). Bertzalde, uroginekologian adituak gara, beraz, edozein disfuntzio uroginekologiko lantzen dugu tratamendu pertsonalizatuarekin: gernu ihesa, pixa egiteko urgentzia, idorreria, puzkerren edo kakaren ihesa, uzkiak, zauriak, hemorroideak, perineoko mina, episiotomia edo urraduren ondorioak, zesarea, baginaren atrofia edo idorreria, sexu harreman mingarriak...

### Haurdunaldian, erditzean eta erditze ondotik Bidaide.

Haurdunaldiko 20. astetik 36. astera. Ainhua Viela emaginarekin eta Bego Viela fisioterapeutaren elkarlanaren eskutik, 8 saio landuko ditugu.

Astean behin, bakarka edo bikotearen konpainiaz taldeetan, bi orduko saioak jorratuko ditugu.

Bai haurdunaldia, baita zure umearen sortzea ere esperientzia positiboak izan daitezke. Bide horretan lagundu nahi dizugu, informazio zehatza eta egokia emanaz, momentu bakoitzean erabakiak ezagutzarekin hartu ahal izateko eta ez beldurrez.

Haurdunaldia eta erditzea aldatetzeko, zalantzez eta beldurrez beteriko garai zirrargarria da. Ziurtasuna, lasaitasuna eta konfiantza indartuz haurdunaldi lasaia eta zoriontsua lortzen lagundu nahi dizugu.

Zu zeu ezagutu, erditze momentuan zure gorputz librean eta barreneko inda-

## Bidaiden haurdunaldiaren eta amatasunaren zaintza zerbitzua hobetu dugu

6 urte hauetan ehunka emakumeren bi- zipenen testigu izan gara eta horretan segitu nahi dugu, informazioa erraztuz, beharrezko tratamenduak garatuz eta, batez ere, emakumeei laguntza emanez.



rrean sinetsi, erditzearen prozesu fisiologikoa ezagutu, zure eta umearen eskubideak ezagutu, bikotekidearen edo lagunaren rola aztertu, ospitaletako protokoloak ikusi... Gauzak uste genuen bezala gertatzen ez direnean, zer? Egoera nola kudeatu, emozioak, erditze aktiboa, dilatazio eta erditzea mugimenduan, edoskitzea, erditze ondoko zaintzak, umea...

Haurdunaldian eta amatasunean dituzun zalantzak eta beldurrak solastatu eta argitu ahal izateko txokoa izanen da Bidaiden.

**Honetaz gain, ikastaro hauek eskaintzen ditugu Bidaiden,** irailean, urtarrilean eta martxoan hasten direnak; talde murriztuekin (3-6 pertsona), lan pertsonalizatuarekin, 50-60 minutukoak, astean bitan eta fisioterapeuta espezializatuaren zaintzapean.

### 1. Haurdunaldi aktiboa.

Haurdunaldiko 15. astetik amaierara arte.

### 2. Erditze ondoko bizkortze aktiboa.

Bigarren hilabetetik urte baterako epean, fisioterapeutarekin balorazioa egin ondotik.

### 3. Abdominala eta zoru pelbikoa sasoian.

Noiznahi, gizon eta emakume. Astean behin, Soinketa Abdominal Hipopresiboa, SFR, *Método Tad...*

Bidaideren helburu nagusia, eta gure lanari zentzua ematen diona, *bidaidetarren* bizi kalitatea hobetzea eta alai eta zoriontsu bizitzea da.

  
**bidaide**  
FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

**Maurizio Berekoetxea, 18 ELIZONDO**

☎ 636 58 30 34

🌐 [bidaidefisioterapia.eus](http://bidaidefisioterapia.eus)

📍 Bidaide Fisioterapia

# Almandozko eta Belateko tunelak gauez hetsiak

Tuneletako aireztapen-sistema aldatzeko lanak eginen dituzte urtea akitu arte, 22:00etatik 06:00etara

## TTIPI-TTAPA

Azaroaren 25ean hasi zituen lanak Mariezkurrena enpresak eta 22:00etatik 06:00ak arte lanean arituko dira urtea akitu arte. Trafikoa Belateko errepide zaharrera desbideratuko dute ordu tarte horretan.



Azaroaren 25ean hasi zituzten lanak.

## 1,2 milioiko inbertsioa

Nafarroako Gobernuak 1,2 milioi euroko inbertsioa egin du duela 24 urte martxan paratu zituzten haizagailuak aldatzeko. Bi helburu ditu berriztatzeak; tunelaren barneko kutsadura-maila apal mantentzea eta suterik gertatzekotan kea kanporatzea. Izan ere, tunel barneko suteetan, kearen kontzentrazioa da faktore arrisksuenetako bat.

Oraingo haizagailuak desmuntatu eta hondakinen kudeaketarako instalazioetara eramane dituzte. Ondotik, berriak instalatuko dituzte; 22 Belateko tunelean eta 18 Almandozkoan. Ardatz- biraketako haizagailuak dira, bi aldeetara funtzionatzen dutenak eta 400 graduko tenperaturak 2 orduz jasan dezaketenak.

## Emakumeendako ahalduntze tailerrak eginen dituzte abenduan Elizondon

Emagin elkartearen eskutik, emakumeendako ahalduntze lantegiak eginen dituzte abenduaren 15ean eta 22an Arizkunenean, 17:30etik 20:30era. Berdintasun Zerbitzuak antolatu ditu eta izena emateko 613 003 634 telefonora deitu edo [berdintasuna@baztan.eus](mailto:berdintasuna@baztan.eus) helbidera idatzi beharko da.



Eguerdiaren elkarretaratzea egin zuten eta arratsaldean manifestazioa. UTZITAKOAK

## Elkarretaratzea eta mobilizazioa indarkeria matxistaren aurka

### TTIPI-TTAPA

«Indarkeria matxista desagerrarazteko duten konpromisoa erakusteko» eta «biktimak direnei edo izan direnei elkartasuna adierazteko» bildu ziren azaroaren 25ean Elizondoko plazan Baztango Udaleko kideak eta herritarrak. Oianko Garde berdintasun zinegotziak adierazi zuenez, «ez gaur bakarrik, urteko egun guzietan denek indarkeria matxista gure gorputzetatik eta bizitzetatik kanpo ateratzeko esfortzua egiten segitu behar dugu».

Egoeraren larritasuna plazaratzeko, aurtengo biktimen datuak eman zituen. Emaku-

meen kontrako indarkeria «giza eskubideen urraketa zuzena dela» oroitarazi zuten, eta beraz denok «indarkeria matxistarik gabeko jendartea eraikitzeko betebeharrak legal, politiko eta etikoa» dugula. Biktimei elkartasun mezua bidali zien.

### Manifestaldia arratsaldean

Baztango eragile feministek deitua, arratsaldean manifestaldia egin zuten Elizondotik barna, plazatik abiatuta, 'Biolentzia bakarra, hamaika aurpegi' lelopean. Plazako kioskotik ohar bat irakurri zuten eta musika emanaldia izan zuten eguna borobiltzeko.

**ORBELA**  
SENDERSMOA ATERPENA  
BEINTZAKO OSTATUA  
Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
[www.orbela-beintza.com](http://www.orbela-beintza.com)

  
744 484 361  
ttipi-ttapa

**asegi asesorías**  
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---



Eskualdeko 70 bat gazte bildu ziren plazan. GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTA

## Covid ziurtagiriaren kontra elkartu dira eskualdeko hainbat gazte Elizondon

### TTIPI-TTAPA

Gazte Koordinadora Sozialistak deitua, Bortzirietako, Mallerrekako eta Baztango 70 gazte inguru bildu ziren azaroaren 27an Elizondoko plazan Covid ziurtagiriaren ezarpenaren kontra.

Elkarteak adierazi duenez, «pandemia hasi zenetik, nahieran erabili gaitu burgesiak. Urtebete beranduago ilegalizat jo diren konfinamenduekin hasi eta orain Covid pasaporte ezartzera arte». Burgesiak fokua langileengan paratu izana salatu dute, «osasun-arazo bati osasungintza indartuz aitzin egin beharrean, gure eskubideak murriztu ditu behin eta berriz. Burgesiak agerian utzi du, bertze behin, politikari profesional eta estatuaren bidez hartzen diren neurriak ez direla guztion mesederako izaten, bur-

gesen interesak babesteko baizik».

### «Kontrol sozialerako bitartekoa»

Neurri hauekin, «estatu burgesa gero eta forma autoritarioagoa» hartzen ari dela eta «gero eta modu otzanagoan bizitzera behartzen gaituztela» aldarrikatu dute. Honi aitzin egiteko, «langile mugimendua antolatze beharra» nabarmendu dute, «kapitalismoari kontrajarriko zaion antolakuntza komunista» sustatuz.

Gazte Koordinadora Sozialistak adierazi duenez, Covid ziurtagiriak «industria farmazeutikoen eta enpresari handien interesei» erantzuten die. Gainera, «kontrol sozialerako bitartekoa» dela salatu dute, eta «osasun aterabide errealik» planteatzen ez duela.



Bigarren aldiz irabazi dute Amestoyk eta Bergerotek Onenak txapelketa. ONDIKOL

## Amestoy eta Bergerot berriz ere irabazle trinketeko Onenak txapelketan

### TTIPI-TTAPA

Ramuntxo Amestoy eta Arnaud Bergerot izan dira aurten ere txapelkun Elizondoko Antxitonea trinketeko Onenak paleta goma txapelketan. Duela bi urte txapelkun izan ziren eta iazko geldialdiaren ondotik, bigarren edizioeko txapela ere irabazi zuten azaroaren 20an jokatu zen finalean. Azaroaren 19an

izan ziren finalerdiak eta bertan sailkatu ondotik, Joseba Oskariz eta Asier Azkarate elizondoarrei 40-37 irabazi zieten finalean.

Hirugarren posturako partidari Ibai Baronek eta Mikel Argaratek irabazi zieten Miki Fernandez Lazkoiti eta Iñigo Ansori. Joseba Ezkurdia esku pilotari profesionalak eman zizkien sariak palistei.

## Zigako eskolako sabaian pelikulak ikusteko aukera

Aurtengo udazken eta neguan herriko haur eta koxkorrei herriko eskolako sabaian pelikulak ikusteko aukera emanen zaie. Adinari egokiturik eta osasun neurriak beteta, elkarrekin tarte goxoa pasatzeko aukera izanen dute.

## Bertso afaria eginen dute Iruritan abenduaren 18an

Iruritan gazteek bertso afaria antolatu dute Gizarte Bilgunean abenduaren 18an 21:00etan. Julio Soto eta Iker Zubeldia izanen dira bertan kantari. Txartelak salgai daude 30 euroren truke Gizarte Bilguneko tabernan.



**ANZABAL**  
inmobiliaria

- Inmobiliaria  
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



**Husqvarna**  
DISTRIBUIDOR OFICIAL





**BB BLOK BAT**  
TALLERES [biokbat.com](http://biokbat.com)

**C/ Santiago 85 ELIZONDO 948 580 898**

# Baztanberriko zubia eraikitzeko tramiteak hasi ditu Gobernuak

Lurralde Kohesiorako Departamentuak 100.000 eurotan lizitatu du eraikuntza proiektua

## TTIPI-TTAPA

Elizondoko ingurabidearen proiektuaren bigarren faseari ekin zaio, saihesbidea N-121-B errepide zaharrarekin lotuko duena. Horretarako Nafarroako Gobernuak 100.000 euroko eraikuntza proiektua lizitatu du Baztan Berri eta errepidea lotuko dituen zubia eraikitzeko.

### «Herriaren eskaria»

Baztango Geroa Bairen taldeak «Foru Gobernuak bailararendako garrantzitsua den azpiegitura honekin hasteak duen garrantzia» nabarmendu du.

«Elizondoko herriaren eskari bati erantzun argia emateagatik» bere poza agertu du koalizioak, «bailarako bizilagunen onurarako izanen den azpiegitura» baita. 2012an hasi eta ordutik akitu gabe zegoen Irurita-Elizondoko ingurabidea lotzen duen errepideari segida ematea «beharrezkoa» dela adierazi dute.

Baztango Udalak adierazi duenez, abuztuaren 5ean Ziriza kontseilariak Elizondora eta Lekarozera egindako bisitaldian zehaztu zuten proiektua.



Itxura dotorea hartu du Elizondoko Garbaldako lixutegiak. ONDIKOL

## Elizondoko herriak Garbaldako lixutegia garbitu eta margotu du

### FERNANDO ANBUSTEGI

Garai batean, Elizondoko Antzanborda auzoko bizilagunek erabiltzen zuten Garbaldako lixutegia arropa garbitzeko, baina jakina da, aspaldidanik ez da erabiltzen. Ondare materialaren erakusgarri gisa, duela urte batzuk zaharberri zuten, eta bitxia da, garbi-

tzeko lekua zikinkeria pilotzeko gune bilakatu da azken urteetan, baita margoketak egiteko ere.

Orain, Elizondoko Herriak garbitu eta margotu du, txukun utziz. Gogora ekarri nahi izan dute lixutegia denon altxorra dela eta denoi dagokigula garbi mantentzea.

## BIRZIKLATZEKO ESKULIBURUA

Ekonomia zirkularrean, birziklatzen duzunean, hondakinak baliabide berri bihurtzen dituzu.

Birziklatu gehiago. Hobeki. Beti

**EDUKIONTZI HORIA**

**PLASTIKOZKO ONTZIAK**

**METALEZKO ETA BRIK ONTZIAK**

**EZ DOAZ EDUKIONTZI HORIAN**

Pixoihalak, jostailuak edo ontziak ez diren plastikozko beste objektu batzuk

**IGLU BERDEA**

**BEIRAZKO ONTZIAK**

**EDUKIONTZI URDINA**

**KARTOIZKO ETA PAPERIZKO ONTZIAK**

**ERREFUXA EDUKIONTZIA**

**GAINERAKO HONDARRAK**

**EDUKIONTZI MARROIA-KONPOSTAGAILUA**

**JANARIAREN EDO BESTELAKO HONDAKIN ORGANIKOEN HONDAKINAK**




# Presta zaitez negurako ... Berritu zure leihoak

Aprobetxatu dauden diru-laguntzak,  
gestioekin lagunduko dizugu!

**THERMOFIBRA**  
by deceuninck

Uf 0.88 (W/m<sup>2</sup> K)



Energia-eraginkortasun handiko leihoak

**deceuninck**



# 'Ahots Baten' sormen egonaldia egingen dute Amaiurren

15 eta 22 urte bitarteko gazteei zuzendutako sormen eta esperimendazio gunea izanen da

## TTIPI-TTAPA

'Ahots Baten' ekimenaren zazpigarren edizioa da aurten Mintzolak eta Bertsozale Elkarrekin antolatu dutena. 15 eta 22 urte bitarteko gazte sortzaileei zuzendutako proiektua da, ahozko kultur sorkuntzan aritzen direnei zehazki; antzerkian, bertsoan, kantuan edota antzerkian. Egonaldia abenduaren 27tik 30era egingen da Amaiurren.

Bertan, gazteek sortzaile ezagunekin solasean egiteko aukera izanen dute; Ane Labaka bertsolaria, Maialen Be-



2015etik antolatu du ekimena Mintzolak

larra gai-jartzailea, Intza Alkain aktorea, Joseba Larratxe Josevisky komikigilea eta Miren Narbaiza (MICE) musikagile eta kantaria. Izena emateko epea abenduaren 3an itxi zen.



Zigatarrak 47 minutu eta 30 segundotan osatu zuen lana. ARTXIBOKO IRUDIA

## Joxean Etxeberria hirugarren Lehen Mailako Aizkora Txapelketa Nagusian

### TTIPI-TTAPA

Azaroaren 28an jokatu zuten Tolosako Beotibar pilotalekuan Eukal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketa Nagusi Ofizialeko finala, eta Hodei Ezpeleta bizkaitarrak irabazi zuen. Xabier Zaldua gipuzkoarrek eskuratu zuen bigarren postua eta Zigako Joxean Etxe-

berriak hirugarrena. Beren gibeletik sailkatu ziren Oier Kañamares, Iban Resano eta Luis Mari Txapartegi.

Lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau 72 onibiko moztu behar izan zituzten. Etxeberriak 47 minutu eta 30 segundu behar izan zituen lanak osatzeko.



**PINTURA eta DEKORAZIOA**

# BIDASOA

**Tel.: 948 45 02 48 - 619 88 97 23**

**Lakadura eta bernizadurak**  
**Armairuak, azulejuak, etab.**  
**Etxe eta enpresen mantentze-lanak**  
**Etxeko konponketa ttikiak**

Oiz (Malerreka).  
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu.  
pinturasbidasoairun@gmail.com



Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com



**EDOZEIN HARRI MOTAREKIN**  
**LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**



**BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE**



# ZIGA

**ELEKTRIZITATEA**

## 647 77 31 33

**Eguzki plaken instalazioak,**  
**argiztapen-azterketak**  
**eta elektrizitate lanak orokorrean**





Ipuinak leitu, aditu eta kontatu zituzten aniztar gazteek. MAITANE MARITORENA

## Liburutegi ibiltaria eta ipuin kontalaria Anizen ibili dira

### MAITANE MARITORENA

Baztango Euskara Zerbitzuak eta Euskarabideak antolatuta, azaroaren 18an Anizko elkar-tean ipuin kontalaria eta liburutegi ibiltaria izan genituen.

Haurrak lurrean jarrita, lehenik ipuin bat aditzeko aukera izan zuten. Ondotik, erakus-mahaian paratuak zeuden

liburuak begiratu zituzten, gustukoena hautatu zuten eta leitzeko aukera izan zuten.

Akitzeko, gustuko zuten liburu hartu eta entzule izatetik irakurle izatera pasatu ziren. Beraiek bihurtu ziren ipuin kontalari.

Arratsalde ederra pasatu zuten Anizko haur eta helduek.



# BRIKO BAZTAN, SL

*Obrak, eraberritzeak eta pintura*

- Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea
- Pinturak
- Fatxadak
- Pladurra
- Egur lakadura eta bernizadura
- Birgaitzeak eta obra berriak
- Lur-mugimenduak

*konfiantzazko zerbitzua*

**T. 608 016 052 | San Andres, 66 · NARBARTE (Sarrera Legasatik) | briko-baztan@hotmail.com**

# Osasun etxearen egoera «lotsagarria» salatu du LABek

Herritarrei eta langileei bereziki «osasun publikoaren alde eginen diren ekintza guztiei adi egoteko» eskatu diete

## TTIPI-TTAPA

Langileek jakinarazi duten arabera, «ia medikurik gabe gelditu dira, Elizondoko plantilla osatzen duten borts langileetatik bakar bat bertzerik ez dago lanean eta biztanle guztiei eman behar die arreta. Hori gutxi balitz, pediatriarik ez dago». Arazoak konpontzeko neurriak hartzea «behar-beharrezkoa» dela adierazi du LAB sindikatuak. Egoera «onartezina» dela salatu dute, «herritarrek gero eta isolatuagoak gelditzen ari direlako, are gehiago N-121-A errepideko obren eraginez».

## Baztan hainbat eremuren islada

Baztango egoera «Nafarroako hainbat eremutan, batez ere landa eremuetan, orokortua dagoen arreta faltaren adibide

garbia dela» adierazi dute. «Oinarrizko Osasun Laguntzaren kudeatzaileen eta Santos Indurain kontseilariaren utzikeriaren ondorioz, arras desberdintasun handiak sortzen ari dira Nafarroako eskualdeen artean». Osasun etxeetako arretaren gainbehera «aspalditik» orokortzen ari dela jakinarazi du sindikatuak; «irisgarritasun ezak, arreta jasotzeko zailtasunak, baliabide ezak eta Covid zifren igoerak soken aurka jarri dute Oinarrizko Osasun Laguntza».

Horregatik, «mobilizazioak egiteko unea iritsi dela» adierazi du LABek, «herritar eta langile guztiek bat eginda Osasunerako aurrekontu duin bat lortzeko, oinarrizko laguntza eraginkorra eta irisgarria izan dadin eta zainketen jarraipena bermatua izan dadin».



Maitane Tirapu arkeologo eta antropologo nafarra DNA proba egiten. ONDIKOL

## Agoteen jatorria aztertzeko 3.000 euroko dirulaguntza onartu du udalak

### TTIPI-TTAPA

Madrilgo Complutense Unibertsitateak agoteen jatorriari buruzko azterketa bat abiatu zuen 2020an Biologiako Fakultateko Antonio Gonzalez Martin ikerlariaren zuzendaritzapean. Horretarako, Bozateko barrideen hainbat DNA lagin hartu zituzten, agoteen ondorengoak izan daitezkeenak, eta Baztango bertze hainbat biztanleren laginekin konparatu zituzten.

Orain, DNAREN laginen ikerketarekin segitzeko, mitogeen sekuentziazio osoa eta kromosomen karakterizazioa

egin behar dute. Hau Compostelako Donejakuen egin behar da, Genotipoaren Zentro Nazionalan. Unibertsitateak eta Nafarroako Gobernuak finantzatu dute orain arte ikerketa, baina finantzazioa behar dute oraindik ere. Horregatik, Baztango Udal taldeak aho batez adostu du 3.000 euroko dirulaguntza ematea.

Udalak «Bozateko bizilagunek historikoki sufritutako bazterketa aitortzeko eta errepartzeko» aukera gisa ikusi du, baita «komunitatearen jatorria sakonago ezagutzeko».

# ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN  
ERABILTZEKO TRESNAK









Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · [www.ferreteriaquevedo.com](http://www.ferreteriaquevedo.com)



# ALMACO Materiales de Construcción

Santiago 93, 31700 Elizondo

www.almacobazan.com  
Tel. 948 580 104



## LACUNZA

Natural comfort



Ready!

eco  
DESIGN  
2022





Aunitz hondatu da Eskoletxea azken hogeita hamar urteotan. MARIFA ETA KORO



Auzolana egin ondotik gosaria eskaini zuten. MARIFA ETA KORO

## Eskoletxea husteko auzolana egin dute hainbat herritarrek

Hurrengo auzolan deialdia ilbeltzerako egin dute, kasu honetan Elizargieta garbitzeko

### MARIFA ETA KORO

Azaroaren 27an auzolan bat egin zuten Eskoletxea husteko. Garai batean elizaren kontra eraiki zen etxe hau eskola bezala erabili zen. Gero seroraren etxebizitza bezala ezagutu genuen, baina duela 30 bat urte Kristik, azkeneko serorak, utzi ondotik, aunitz hondatu da.

Ospitalearen gisan, Eskoletxea ere delako «fundazionea»-rena da, eta herriarendako gelditzeko gestioak egiten ari da udala.

Dozena bat lagun elkartu ziren lanerako, eta lana egin ondotik gosaria izan zuten.

Hurrengo auzolan deialdia ilbeltzerako da, Elizargietak garbitzeko.



Hamasei lagunek parte hartzen dute antzezlanean. MARIFA ETA KORO

## 'Irudika' antzezlanaren aurkezpena abenduaren 12an egingen dute Iruritan

### MARIFA ETA KORO

Duela urte bat herrian aurkeztu zuten Asisko Urmene-taren eta Helena Xurio herri-tarraren *Sugarren mende* liburuan oinarriturik, antzezlan bat sortu dute orain.

Antzezlanak *Irudika* du izena eta hamasei lagunek parte hartzen dute. Horieta borts herrikoak dira eta gainerakoak Iparraldeko hainbat herritakoak. Hori dela eta, entseguak ere herriz herri egiten dituzte. Laster eskualdean ikusteko aukera izanen dugu, abenduaren 12an Iruritan eskeiniko baitute emanaldi bat.

### Xaretako pastoralara

Azaroaren 14ko hitzorduan berrogoi bat lagun elkartu ziren pastoraleko kontura, beraz, ematen du proiektua aitzine-ra ateratzeko manera badela. Hala ere, oraindik jende gehiago behar da, alde batetik taula gainean aritzeko, baina baita bertze bi lantalde haue-tan: antolakuntzan ere eta dendarietan (jostunak).

Jendea animatuz gero, jakin abenduaren 12an izanen dela hurrengo hitzordua pilotalekuan (15:00etan), edo e-mail honetara izena bidali: [xaretanpastoral@gmail.com](mailto:xaretanpastoral@gmail.com).



MARIFA ETA KORO

## Emakumeenganako Indarkeriaren kontra

Udazkeneko orain arteko egun euritsuenean, azaroaren 25ean, ospatu zen emakumeen kontrako tratu txarrak desagerrarazteko eguna, baina hala ere, eta euripean, elkarretaratzea egin zen plazan, *Emakumeen borroka, ez da ez zioen* pankartarekin



Emozioa eta irria taularatu zuten ikusgarrian. JL BESSONART

## 'Loreak beren bidean' ikusgarri hunkigarria

Kiribil konpainiak eta Angeluko Etxea zentroko egoiliar eta hezitzaileek eman zuten azaroaren 20an

### JEAN LOUIS BESSONART

Azaroaren 20an, denak pozik eta hunkiturik gelditu ziren *Loreak beren bidean* ikustaldiaren ondotik. Ikusle batek aitortu zuenez, «gizatasunarekin» topo egin zuen. Bi urtez lan eginik, emozioa eta irria horra zer erakutsi izan zigun Kiribil konpainia eta Angeluko Etxea Zentroko egoiliar eta hezitzaileen eskutik.

Egoiliar horiek gaixotasun mentalak dituzte, hala nola, eskizofrenia, bipolaritatea eta autismoa, baina beren partehartzeta eta irribarrearekin, gure handi-mandikeriak zangopean

ezarri dituzte. Hauen obren erakusketa eta mundu honi dagozkion hitzaldiak azalduak izan dira azaroaren 28ra arte.

### Antzerkia eta kabareta asteburuan Larrekon

Le Petit Theatre du Pain taldearen eskutik *Mu.E* ikuskizuna ikusgai izanen da abenduaren 10ean, ortziralean 20:30ean Larrekon. Larunbatean, berriz, Anna Smile eta bere konpainiak *Rêve-Ametsa* kabaret irri-emangarria emanen dute, 21:00etan hasita leku berean. 19:00etan hasita aperitifa eskainiko dute.



Haurren Herriko Kontseiluak hainbat proiektu aztertu ditu. JL BESSONART

## Haurren Herriko Kontseiluaren lehen bilkura egin dute azaroaren 16an

### JEAN LOUIS BESSONART

Azaroaren 16an iragan zen Haurren Herriko Kontseiluaren lehen bilkura. Dominique Idiart auzapezak ongi etorria egin bezain laster, hautetsi gazteak beraien kargu berriari lotu ziren. Hrriko lau eskoletako ikasleen proiektuak aurkeztuak izan ziren, taldeka euskaraz hala erdaraz. Ingurumena, hiritartasuna eta aisialdia izan

ziren gai nagusiak eta gai horien arabera sailkatu zituzten beraien proiektuak eta batzordeka eztabaidatu eta adostu lehentasunak. Sekulako xedeak azaldu zituzten, horien artean kezka ekologikoak, baita elkartasuneko ekintzak eta ongi-zatea ere. Abenduaren 14an elkartu beharrak dira berriz gai horien barneratzeko, eta ematen dizuegu horien berri.

## Maxime Lucu herriko errugbilaria All Blacks taldearen kontra aritu da

Maxime Lucu herriko errugbilaria Frantziako taldearekin Zeelanda Berriko All Blacks talde gotorraren kontra aritu da. Partidaren bukaeran sartu zen, baina halere parte hartu zuen garaipen historikoan.

Hari beretik Ollivon Charles bertze herritarra aipatu behar da, hau baitzen Frantziako taldearen kapitaina. Laster itzuli behar luke kirol zelaira, orain belauneko ebakuntza batetik sendotzen ari baita.

**ARRET XEA ESTANKOIA**

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrechea@yahoo.es



Idea enpresako, departamentuko eta herriko kontseiluko ordezkariak.

## Animainetik Portura oinezko bidea 2022 urte hondarrerako

Idea enpresako eta departamentuko ordezkariak proiektuaren inguruko azalpenak eman zituzten hazilaren 17an Lur Berrin

### GANEX

Animainetik Portura egin gogo den oinezkoen bidearen gainean bilkura egin zuten hazilaren 17an Lur Berri gelan. Auzoko jende ainitz bazen joana, proiektuaren inguruko xehetasunen berri jakiteko eta zalantzak argitzeko xedearrekin.

Battite Laborde auzapezak denei ongietorria egin zien eta Idea enpresako eta departamentuko ordezkariari eman zien solasa. Proiektuaren inguruko azalpenak eman zituzten eta segurtasunari kasu handia emanen diotela aipatu zuten. Egin moldeari dago-kionez, Animainea aldetik partituz eskuin aldean eginen dute oinezkoendako bidea, ur erreka ondoan. 1,40 metro zabalekoa eginen dute, haurren karrosak ere erraz ibiltzeko eta 5,80 metroko legezko bidea utziko dute autoentzat.

### «Kasu erreka eta erreka bazterretan»

Auzoko jendeek galdera ainitz egin zuten, Erreka eta erreka estali guziei kasu handia egin beharko dela azpimarratu zuten, «Hegimearreko aldetik

euriarekin ur ainitz etortzen baita». Autoen abiadura ez-titzeko bi *xikana* eginen dituzte eta leku horietan, bakarrik orenean 30 kilometroko abiaduran ibili beharko dira autoak eta bertzeetan, orai bezala, orenean 50 kilometroko abiaduran. Oinezko bidea argitua izanen da gauzez.

Horra, nola izan ziren bilkuraren solasak. Orai proiektu hori beharko dute departamenturatu bidali estudioak egiteko.

### 2022 urte hondarrean eginen dituzte lanak

Dena ongi badoa, lan horiek 2022ko urte hondarrean eginen dituzte eta gutienik bost edo sei hilabete iraunen dute. Segurtasunerako beharrezko proiektua da eta dena ongi egitearekin ederra geldituko da.

## AUTOEN ABIADURA EZTITZEKO BI 'XIKANA' EZARRIKO DITUZTE



Sarako Izarra pilota elkarteak bulegoan ez da aldaketarik. GANEX

## Urteko batzarra egin du Sarako Izarra pilota elkarteak

### GANEX

Sarako Izarra pilota elkartearen biltzar nagusia hazilaren 19an egin zuten. Nekez aritu dira pilotariak, baina Euskal Herriko Batzordearen bostz finaletara ailegatu dira eta hirutan txapeldu izan dira. Frantziako txapelgoan bi finaletara bakarrik ailegatu dira eta biak galdu. Aurten espero dute hobeki egitea. Udako manifestazioetan ongi aritu ziren bertze elkarteekin elkarlanean, beharrik, zeren bakarrik ez baitzituzten manifestazio horiek egiten ahalko. Gurasoen laguntza ere eskertu zuten.

Lan ainitz egin behar da, baina udako manifestazioek dirulaguntza haundia ekartzen dutela aipatu zuten. Laguntza izan dute herriko etxetik ere, baita lantegiak eta borondate oneko ainitzek emanak ere. Honela, kontuak positiboan dituzte. Herriko etxeak gela berri bat egin die kiroldegi ondoan. Ez da oraino arras bukatua, baina laster sartuko dira gela berrirat. Bulegoa ez da txandatu, beraz, Guy Mounhok segitzen du lehendakari, Patrick Mariluzek lehendakariorde, Bruno Martin diruzain eta Julie Bluk idazkari.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Valerie Pochelue erizainaren erretreta

Valerie Pochelue erizainak hazilaren 23an hartu du erretreta. 22 urtez zahar eta gazteak moldatu ditu. Saratarrei eskerrak eman nahi izan dizkie eta herritarrek ere eskertzen dute bere lana. Beraz, erretreta on eta luzea izan dezala osasunean, Olorongo herri ondoan, bere senarrarekin eta familiarekin.



Buraso eskolako mahaia goitian eta bertze hainbat Lur Berrin. GANEX

## San Josepe eskolako Eguberrietako merkatua egin dute

Hazilaren 27an hemezortzi mahai baziren Lur Berri gelan, horietako bat eskolako burasoek egina.

### GANEX

San Josepe eskolako haurren burasoek antolaturik iragan da Eguberrietako merkatua hazilaren 27an Lur Berri gelan. Hemezortzi mahai baziren eta horietako bat burasoek egina. Azkeneko honetan gauza guzikiak beraiek eginak zituzten.

Egindako lana nabari zen, denek baitzituzten gauza ederak, partikulazki haurrentzat, zeren Eguberriak hurbilduak baitira. Helduentzat ere baziren gauza ederrak. Buraso batzuk haurrak mozarrotu dituzte eta behar zen ikusi zein kontent ziren haur horiek.

Jendea ibili da, baina ez usaian bezala. Erran behar da denbora aski txarra zela, baina eguerdiinguruan, meza ondoan jendea izan da eta gauza ainitz erosi dituzte. Horregatik Arantxa Iparragirre, buraso elkarteko lehendakaria, bere lagunekin kontent zen. Denbora ikusi eta beldur ziren, baina dena ongi pasatu zen, kafe bero pixka bat edanez edari eta goxokiekin, horretarako txokoa antolatua baitzuten. Elkarrekin denak eskertu dituzte: Herriko Etxea Lur Berri gela eder hori prestatzeagatik, baita burasoak ere.



Villaresen behia, 'Hezur berriak' filmaren fotograma batean. SKULLMENDI FILMS

## 'Hezur berriak' film laburraren emanaldiak ikusmina piztu du herrian

### ARANTXA ETA IRAIA

Joan den azaroaren 25ean, ortzegunarekin, Nafarroako film laburren jaialdiko bederatzigarren edizioaren baitan, film labur finalisten proiektzioa egin zuten kultur etxean. Herriko aktore berezi batek film horietako batean parte hartu zuen. Hain zuzen, Mattin Vi-

llares herritarra bere azientekin agertu zen *Hezur berriak* (Skullmendi Films, 2021) izeneko film laburrean. Proiektzioak ikusmira sortu zuen herritarren artean, urte andana baita herrian proiektzio hau ematen dutela eta herria eszenatoki bezala erabiltzen dutela.

### Kantu zaharren bazkaria bertan behera gelditu zen

Azaroaren 27an egitekoa zen kantu zaharren bazkaria bertan behera utzi zuten. Herrian agerturiko Covid kasuengatik bazkaria ez egitea erabaki zuten. Pena nagusitu baldin bazen ere, urtarill aldera afera hobetzerat baldin badoa, berriz ere antolatuko dute bazkaria.

### Kazkabarrak estaldurarik gabe utzi zuten herria

Azaroak azken asteburuko eguraldiak eragina izan zuen gurean ere. Gehien bat Alkerdi auzoan nabaritu zen larunbat gaueko kazkabarra, nahiz eta ez zuen kalterik eragin. Haatik, herria mugikorren estaldurarik gabe gelditu zen eta Internet konexioak ere huts egin zuten.



*Etxekoak berriz bueltan*

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

*Etxera eramateko aukera*





**Axular, 12 · Antzanborda · URDAZUBI · Tel.: +34 848 85 00 21**



Beti Gazteko emakumeak txapeldun izan ziren Euskal Herriko launakakoan.



Amaiurko laukotea laugarren izan zen txapelketa mistoan. UTZITAKOAK

## Nafarroa eta Euskal Herriko txapel guztiak lortu ditu Beti Gaztek

2022 urte hasieran Euskal Herrikoa zortzinaka eta martxoan munduko txapelketa Herbehereetan jokoan izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko launakako sokatira txapelketan emakumeen txapela jokoan izan zen azaroaren 20an Antsoainen eta mistoa azaroaren 27an Berriozarren. Gizonezkoen txapelketan bezala, bi hauetan ere Lesakako Beti Gazte izan zen txapeldun. Emakumeen lau-

kote txapelduneari Amaia Leiza, Maialen Lopez, Arritxu Muxika eta Maria Iantzi aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile zutela. Ibarrek eta Txantreak osatu zuten podiuma eta Amaiur bosgarren izan zen.

Mistoan Ibarrek ez zuen parte hartzerik izan eta Be-

rriozarrek eta Txantreak osatu zuten podiuma. Amaiur laugarren izan zen.

Beti Gazteko laukote txapelduneari Joxe Angel Mitxelena, Irantzu Goienetxe, Ainhoa Ubiria eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Udane Arbelaitz entrenatzaile zutela.

Gisa honetara, Beti Gaztek Nafarroako txapelketa absolutoan (gizasemeak eta mistoan zortzinaka eta emakumeak seinaka) eta Euskal Herriko launakakoan jokatuak txapel guztiak irabazi ditu Lesakako taldeak.

### Euskal Herriko zortzinakakoa urtarrean eta otsailean

Orain, geldialdi labur baten ondotik, 2022ko urtarrean

eta otsailean jokatu den Euskal Herriko zortzinakako txapelketan ere parte hartuko du Beti Gaztek kategoria guztietan: gizonezkoak 680, 640, 600 eta 560 kilotan, emakumeak 540 eta 500 kilotan eta mistoa 580 kilotan. Amaiur ere lehiatuko da Euskal Herrikoan kategoria gehienetan, emakumezkoen pisu astunenean eta gizonezkoen pisu astunenean eta arinenean izan ezik.

### Mundiala martxoaren 2tik 6ra Doetinchemen (Herbehereak)

Gero, martxoaren 2tik 6ra Herbehereetako Doetinchem hirian jokatu den munduko txapelketan parte hartzeko asmotan da Beti Gazte, ez ordea Amaiur.



UTZITAKOAK

## Ariztegi hirugarren Sherpa.ai txapelketan


Iker Vicente eta Karmele Gisasola erraz nagusitu ziren Bilbon azaroaren 21ean sherpa.ai txapelketa nagusiko finalean. Gizonezkoetan ez zen eskualdeko ordezkariarik izan, baina emakumezkoetan hirugarren izan zen Maika Ariztegi iturendarra, Uxue Ansorregiren gibeletik.



UTZITAKOAK

## Etxeberria hirugarren txapelketa ofizialean

Tolosako Beotibar pilotalekuan Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketa Nagusi Ofiziala jokatu zen azaroaren 28an, eta Hodei Ezpeleta bizkaitarrak irabazi zuen. Xabier Zaldua gipuzkoarrak eskuratu zuen bigarren postua eta Zigako Joxean Etxeberria sailkatu zen hirugarren.



Iruritako Aranabian jokatuko dituzte txapelketako partida guztiak. JM ONDIKOL

## Sei hirukote hasiak dira Nafarroako 22. Paxaka Txapelketan

Laxoa elkarteak antolatuta, Baztango eta Malerrekako sei hirukote ari dira eta urtarrilaren 16an izanen dute finala

### TTIPI-TTAPA

Baztan eta Malerrekako pilotariet osatutako sei hirukote ari dira Laxoa Elkarteak antolatutako Nafarroako Paxaka Txapelketaren 22. edizioan. Lehen jardunaldia azaroaren 21ean jokatu zuten Iruritako Aranabia pilotalekuan. Sei hirukote horietatik, hasierako

ligaxkako bi lehenbizikoak zuzenean sailkatuko dira ilbeltzaren 9an jokatu dituzten finalerdietara.

Ligaxkako azken lauren artean, berriz, final laurdenak jokatu dituzte astebete lehenago eta irabazleak ariko dira bi lehenbizikoek kontrako finalerdietan.

Final handia ilbeltzaren 16an jokatu dute finalerdietako irabazleek.

**1 taldea:** Oskar Urrutia (Irurita), Iker Bereau (Oiz) eta Juan Mari Maia (Elizondo).

**2 taldea:** Xabier Barberena (Irurita), Egoitz Prim (Irurita) eta Aritz Alunda (Arraioz).

**3 taldea:** Gorka Urtasun (Irurita), Ugutz Zelaieta (Oiz) eta Jabi Apeztegia (Doneztebe).

**4 taldea:** Ioritz Zelaieta (Oiz), Laurendi Zelaieta (Oiz) eta Iban Juanena (Doneztebe).

**5 taldea:** Jon Apeztegia (Doneztebe), Mikel Telletxea (Doneztebe) eta Iban Santesteban (Doneztebe).

**6 taldea:** Manu Irigoien (Erratzu), Mikel Sagaseta (Irurita) eta Kaiet Itoitz (Erratzu).

## Aimar Olaizola eta Oskar Mindegia kirol merituaren dominarekin

### TTIPI-TTAPA

2021. urteko Kirol Merituaren Urrezko Dominak eman zizkieten azaroaren 30ean Gai-zuetako Aimar Olaizola pilotari ohiari eta Juan Carlos Unzue futbolari ohiari; kirolari biek «ibilbide bikaina dute, lan asko eginez lortzera heldu diren garaipen-zerrenda bat». Olaizola II.ak adierazi zuenez, «sari berezia» da «ibilbide oso bat aintzatesten duelako» eta «ohorea» da domina Unzue-ekin batera jaso izana «kirolaren munduko erreferentea» delako.

Oskar Mindegia doneztebarrak zilarrezko domina eskuratu zuen, kirol esparruan 25 urte baino gehiago eman dituzten bertze 27 pertsonekin batera. Doneztebeko Erreka Elkarteko judo eskolako arduraduna da Mindegia eta 29 urtez Erreka elkartearen judo sustatzeko egin duen lana azpimarratu zuten domina ematerako orduan, irakasle eta antolatzaile lanak eginez.



UTZITAKOA

## Erremontea asteburu honetan Elizondon

Erremontek antolatutako binakako erremonte txapelketako finalerdietako ligaxkako azken jardunaldia Elizondon jokatu dute asteburuan. Ortziralean 19:00etan, Uterga eta Ion, Aldabe eta Azpirozaren kontra ariko dira eta larunbatean, ordu berean, Matxin III.a eta Otano, Ezkurra II.a eta Saldiasen kontra.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Euskal Herriko arpana txapelketa mistoa

Euskal Herriko arpana txapelketa mistoa jokatu zuten azaroaren 21ean Lezaunen. Arabako bikotea, Garbiñe Lopez de Uralde eta Jon Lapazararen, suertatu zen txapelketa. Ainhoa Iraizoz eta Josetxo Barberena bigarren izan ziren eta Lekarozko Sela Goñi eta Jesus Goñi hirugarren.

## ABENDUAK 9 - URTARRILAK 13

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKO IRUDIA

### LESAKA **Olentzero**

Olentzero eta jaiotzen lehiaketa  
Abenduaren 24an, plazan, 12:00etan.

### EGUBERRIAK

#### LESAKA

##### **Eguberrietako kalejirak**

Santa Zezilia batzordeak antolatua.  
Abenduaren 11n, 18an eta 19an.

##### **Olentzero eta jaiotzen lehiaketa**

Plazan, abenduaren 24an, 12:00etan.

##### **'Diestesalbea'**

Abenduaren 31n, ilunabarrean.

##### **Errege kabalgata**

Urtarrilaren 5ean.

#### BERA

##### **Kalejirako musikarien entsaioa**

Musika eskolan, abenduaren 15ean, 17:00etan.

##### **Gabon kanten entsegua**

Kultur etxean, abenduaren 17an, 17:15ean.

#### Kalejira herrikoia

Merkatu plazatik abiatu eta Herriko Etxeko plazaraino. Eguraldi txarra eginez gero, Eztegara frontoian 19:00etan. Abenduaren 24an, 16:30ean.

#### Glin-glan eta 'Diestesalbea'

Abenduaren 31n, 15:00etan eta 18:00etan.

#### Errege kabalgata

Eguraldi txarra eginez gero, Eztegara pilotalekuan 19:00etan. Urtarrilaren 5ean, 15:30ean pajeak herriko karriketatik barna eta 18:30ean errege kabalgata.

#### SUNBILLA

##### **Olentzero eta Mari Domingi**

Buelta herrian barna eta txokolatada eta eskutitzak emateko aukera frontoian. Abenduaren 24an.

##### **Errege kabalgata**

Buelta herrian barna eta eskutitzak emateko aukera elizan. Urtarrilaren 5ean.

### IKUSKIZUNAK

#### LESAKA

##### **'Maringurua: emakumearen presentzia euskal antzerkian'**

Arrano elkartearen, abenduaren 10ean, 19:00etan.

#### Zinema

Irain eta Tantirumairuk antolatua. Harriondoan, abenduaren 19an, 17:00etan.

#### BERA

##### **'Ilusionarte' magia ikuskizuna**

Kultur etxean, urtarrilaren 2an, 17:00etan. Sarrerak 5 eurotan.

### HITZALDIAK

#### LEITZA

##### **'Zazpiak bat: Euskal Herriko armariaren historia'**

Andoni Esparzaren eskutik. Herri aretoan, abenduaren 9an 19:30ean.

### 'Sukaldatu, zuk aldatu'

Eneritz Mujika nutrizionistarekin. Jangelan, urtarrilaren 14an 16:45etik 18:00etara. Izen-ematea urtarrilaren 12ra arte 948 51 07 19 telefonoan.

#### GOIZUETA

### 'Sukaldatu, zuk aldatu'

Itxaro Zabaleta nutrizionistarekin. Udaletxeko ganbaran, abenduaren 13an 18:00etatik 19:30era. Izen-ematea abenduaren 10era arte.

### 'Sukaldatu, zuk aldatu'

Eneritz Mujika nutrizionistarekin. Jangelan, urtarrilaren 13an 16:45etik 18:00etara. Izen-ematea urtarrilaren 12ra arte 948 51 07 19 telefonoan.

#### ELIZONDO

### 'Erdiz, meatzaritza eta mundu geopolitikoa'

Pablo Lorenteren eskutik. Arizkunenean, abenduaren 15ean, 19:30ean.

### AURKEZPENAK

#### ELIZONDO

### 'Askatu edo moztu: euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak' liburua

Nora Salbotxen eskutik. Amezi elkartearen, abenduaren 10ean, 19:00etan.

#### LESAKA

### Uholde larrialdirako udal planaren aurkezpena

Udaletxeko batzar aretoan, abenduaren 16an, 19:00etan.

#### BERA

### 'Iparreko eleak' liburuaren aurkezpena

Xabier Monasterioren eskutik. Liburutegian, abenduaren 17an, 18:00etan.



## AZOKAK

### AMAIUR

#### Truke azoka

Arropa, jostailuak, tresnak, liburuak, osagarriak...  
*Otsondo gelan, abenduaren 11n 17:00etatik 19:30era eta 12an 11:00etatik 13:00etara.*

### BERA

#### Bertako ekoizleen merkatua

Gasna, ezti, ukenduak, arroltzeak...  
*Berlandetan, abenduaren 11n eta urtarrilaren 8an, 10:30etik 13:30era.*

### LESAKA

#### Eguberrietako azoka

*Plazan, abenduaren 19an, 10:00etatik 14:30era.*

## BERTSOAK

### BERA

#### Botzirietako Bertso Eskolaren XXII. Taldekako Lehiaketa

Lehen fasea.  
*Katakun, abenduaren 11n, 13:00etan.*

### LESAKA

#### Botzirietako Bertso Eskolaren XXII. Taldekako Lehiaketa

*Abenduaren 11n.*  
 Lehen finalerdia.  
*Antoion, 17:00etan.*  
 Bigarren finalerdia.  
*Haizeguan, 18:30ean.*  
 Afaria eta finala.  
*Arranon, 20:30ean, 15 eurotan.*  
*Otorduetarako izen-ematea: bortzibertso@gmail.com edo 618 96 30 11.*

### IRURITA

#### Bertso afaria

Julio Soto eta Iker Zubeldiarekin.  
*Gizarte Bilgunean, abenduaren 18an, 21:00etan. Sarrerak salgai bilguneko tabernan 30*



ARTXIBOKOA

### LEITZA Balikebale lehiaketa IV. edizioa

Lau hirukote ariko dira lehian hainbat sari potolo irabazteko; 450 euroko txeketa, otorduak, herriko produktuak...  
*Abenduaren 17an, Herri Aretoan, 19:00etan.*

## ERAKUSKETAK

### BERA

#### 'Autopistak' argazki erakusketa

Asier Gogortza artistarena.  
*Ikastolako areto nagusian, larunbat eta igandetan abenduaren 19ra arte, 16:00etatik 20:00etara*

### ZUBIETA

#### Katixa Goldarazaren proiektuaren erakusketa

*Estalpean, abenduaren 26an eta 27an 12:00etatik 14:00etara, abenduaren 28an 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta abenduaren 29an 17:00etatik 20:00etara.*

## KONTZERTUAK

### BERA

#### Musika Eskolako biolin entzunaldia

*Kultur etxean, abenduaren 15ean, 18:00etan.*

#### Musika Eskolako piano entzunaldia

*Kultur etxean, abenduaren 21ean, 18:00etan.*

### LESAKA

#### Estitxuren kontzertua

*Harriondoa kultur etxean, urtarrilaren 9an.*

### LEITZA

#### Joseba Irazoki eta Lagunak taldearen kontzertua

*Atekabeltz Herrigunean, urtarrilaren 15an.*

## TAILERRAK

### LEITZA

#### Gabonetako I. Futbol campusa

*Abenduaren 27tik 30era lehenbiziko astea eta abenduaren 31n eta urtarrilaren 3tik 5era bigarren astea. Aste bat 75 euro, bi aste 140 euro, egun solteak 25 eurotan.*  
*Izen-ematea aurrerakanpusa@gmail.com helbidean edo 623 15 73 36 telefonoan.*

#### Aurre-begirale ikastaroa

Urtxintxa Aisialdi Eskolaren eskutik Leitza eta Larraunen.  
*Atekabeltz Herrigunean, abenduaren 18an, 27an, 28an eta 29an. Dohainik.*

#### GOIZUETA, ARESO ETA ARANO Eguberrietako tailerrak

*Goizuetan abenduaren 27an, 28an eta 30ean eskolan.*  
*Areson abenduaren 27an eta 28an udaletxeko goiko gelan.*  
*Aranon abenduaren 29an Maisuenean.*  
*10:00etatik 13:00etara.*  
*Izen-ematea abenduaren 9tik 15era eskolaren bitartez 5 eurotan.*

## JARDUERAK

### LEITZA

#### Balikebale lehiaketa

*Herri Aretoan, abenduaren 17an, 19:00etan. Sarrerak salgai Astizen eta Maimurren 8 eurotan.*

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI



**ELIZONDO.** Etxea salgai, biltegia itsatsia (230 bat m<sup>2</sup>) eta gutienez hiru ibilgailurendako tokia duen etxabearekin. 2 logelako etxebizitza eroso, bista zoragarriak, herritik minutu batera, menditik minutu batera... Kokapen egokia. ☎680 91 19 12.

**BORTZIRIAK.** Borda salgai. ☎647 58 81 63 (deitu gauzez).

#### ERRENTAN HARTZEKO

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitza behar ditugu. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratua eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### ERRENTAN EMATEKO

**BERA.** Agerra auzoan lokal komertziala errentan emateko. 78 m<sup>2</sup>, komun txiki batekin. Leiho haundiak eta hegoaldera begira. ☎636 42 60 94 / 639 94 46 14.

**BERA.** Ugalzuria karrikan, aparkaleku estalia errentan emateko. ☎662 96 25 86.

### LURRAK/ORUBEAK

#### SALGAI

**SUNBILLA.** 30.000m<sup>2</sup>ko gaztainadia salgai, piketeak egiteko 30 urteko gaztainondoekin. Sartzeko pista ona du. 18.000 euro. Ordaintzeko erraztasunak. ☎657 05 04 43.

### LANA

#### ESKAINTZAK

**BERA.** Emakume bat behar dute etxeko lanak egiteko, kozinatze eta adineko bat zaintzeko. ☎607 56 60 22.

**BERA.** Zalain jatetxean zerbitzaria behar dute. ☎617 72 34 75 / 948 63 11 06.

**ZUGARRAMURDI.** Bi langileren bila Kattalin jatetxean urte osorako: Laguntzaile bat baxera garbitzeko eta zerbitzari lanerako (frantses pixka bat dakiena). ☎948 59 91 46.

**ZUGARRAMURDI.** Eguerdian lanean aritzeko zerbitzaria behar dute. Bi-

### IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

dali mezua Whatsappez. ☎654 48 99 62.

### ANIMALIAK

#### SALGAI

**Bi urteko behi suitzarra** ernari salgai. ☎610 43 11 75.

#### OPARITZEKO



Zakur gazte honentzat etxe on baten bila ari dira. Arra eta hagitz zintzoa da. ☎646 10 32 50.

### ZERBITZUAK

#### ZURGIN-LANAK

### ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA  
647 810 144 - 626 093 181

### DENETARIK

#### BERTZELAKOAK

**SUNBILLA.** Moztearen alde iratzea opari. Bidearen ondoan dago iratzelakua. ☎657 05 04 43.

#### SALGAI

**Eraikuntzarako materiala** prezio onean salgai. ☎666 66 36 42 (20:00-21:00).

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,30
- 1.koa 4,18
- 2.koa 4,06

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,41
- 1.koa 4,27
- 2.koa 4,16

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

##### Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

##### Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

##### Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,93/4,33
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,20/9,30
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,70

#### ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 30 €

**Zerri gizona** 1,020 €

**Zerramak** 0,330€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua azaroaren 19tik 26ra bitarteko prezioak)

**Belar idorra** salgai, fardo ttitkan. ☎618 96 27 74.



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.



**Pago egurra** salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



**Sofa**, relax **besaulkia**, belarridun besaulkia, oin-aulkia, egurrezko bi **mahai** (bat lakatu zuria eta bertzea bernizatua) eta alfombra salgai. Dena egoera onean. Dena batera edo banaka erosteko aukera. ☎610 38 58 67.



**Gurpil-aulki berria** salgai, tolesgarria eta motor elektrikoarekin (laguntzaileari bultzatzen laguntzeko, aginterik gabe). Aulkia, motorra kargatzeko bateriarekin eta kuxina barne. 2021eko urrian erositako eta behin erabilia. Prezioa: 750 euro (berriak 1.100 euro balio du). ☎629 65 65 42.



744 484 361

ttipi-ttapa

**GALDU-AURKITUAK**

**BERA.** Toki Ona institutuko atean giltza batzuk agertu dira. ☎848 43 17 10.

**MOTORRAK**

**SALGAI**



**Citroën Berlingo** 1.6 hdi autoa salgai, 2015koa, egoera oso onean dagoena. 174.000 km. ☎626 22 91 92.

**TAILERRAK**

**GANIX**  
Tailerra  
948 63 06 69  
Zalain Pol., 11 . BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan

**Citroën Berlingo** 54.000 km

**Toyota Land Cruiser** VXL

**Seat Ibiza** 1.0 tsi 95. 30.000km

**Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN**  
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847  
bztangoiza@yahoo.es  
www.bztangoizataillerrak.com

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
ADÍE, A TU LADO

948 05 90 90  
ENPATIA, HURBILTASUNA  
ETA BEGIRUNEA  
www.izarratanatorio.com

**BEILATOKIAK:** Elizondo,  
Arantza, Bera, Igantzi  
Doneztebe

**EZKONTZAK**

• **Teophile Ducos** eta **Valentina Vidal**, azaroaren 12an Saran.

**SORTZEAK**

• **Ander Errandonea Pestryakova**, Berakoa, azaroaren 14an.

**URTEBETETZEAK**



**Oinatz eta Aiala Seinek** urteak bete dituzte abenduaren 3an eta 10ean. Zorionak etxeko errege eta erreginari! Muxuuuuu!



Arraiozko **Oinatz Arraztoa Agerbererek** abenduaren 15ean 6 urte beteko ditu!! Aunitz urtez familia guziaren partetik, baina bereziki bere anaia-arrebak diren Aiora eta Urkoren partetik!!! Egun polit bat pasa dezazula!!



Goizuetako **Gexanek** 7 urte bete ditu azaroaren 23an! Zorionak amaxo, Josu, Joanes eta familia guziaren partetik, asko maite zaitugu!



Aunitz urtez **Amaia!** Zenbakiak goiti eta beheiti horixe ibiltzen zara, eta abenduaren 18an ez atzendu zure bizkarre bat gehitzeaz! Ongi pasa!



Aunitz urtez **Totu!** Gure bizikumeak abenduaren 27an urteak beteko ditu. Ongi-ongi pasa zure eguna eta muxu haundi bat!



Aunitz urtez **Nerea!** Zer uste zenuen libratuko zinela? Ez, ez! Muxu haundi bat abenduaren 28an urteak beteko dituzulako. Ongi pasa!



Lesakako **Gorka Etxarte Abuinek** 4 urte beteko ditu abenduaren 15ean. Zorionak familiarean eta bereziki Silbia arrebaran partetik.

**Aunitz urtez!**

Zoriondu lagunak eta senideak!

**Internetez** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

**Bulegoan eta postaz**

Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.

**Whatsappez** 744 48 43 61 zenbakira idatzita.

**TTIPI-TTAPA**  
SARE SOZIALETAN

**facebook**  
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Bezeroak **Club Avia** txartelarekin dituen abaintalak mantentzen ditu eta gastatzen duzunaren **% 1** kirol elkartearentzat da.

**Doneztebeko Avia Gasolindegia**  
eskualdeko kirol taldeekin

URTEURRENA

**Perpetua  
ARBURUA ITURRIA**

Etxalarren hil zen,  
2019ko abenduaren 11n,  
92 urte zituela  
**II. urteurrena**

*Ama, amaxi maitea,  
betiko joan zara  
baina bi zi garen bitartean  
zuta z oroitu ko gara.*

ZURE FAMILIA



URTEURRENA

**Paquita  
URTIZBEREA ETXABIDE**

1944/08/09 - 2018/01/09

**IV. urteurrena**

Zure begien dirdira  
eta ezpainetako irria  
beti gurekin egonen dira  
Paquita maitagarria.

ZURE FAMILIA



**HILBERRIAK**

- **Jacques Leizagoien**, Sarakoa, azaroaren 5ean, 92 urte zituela.
- **Jose Arraztoa Apezetxe**, Iruritikoa, azaroaren 4an.
- **Juan Mari Iturria Martikorena**, Etxalarkoa, azaroaren 8an, 78 urte zituela.
- **Victoriano Elgorriaga Lasaga**, Berakoa, azaroaren 9an, 79 urte zituela.
- **Maria Paula Dorregarai Zestona**, Iruritikoa, azaroaren 9an, 93 urte zituela.
- **Juan Loiarde Salaberria**, Goizuetakoa, azaroaren 12an, 86 urte zituela.
- **Basilio Aleman Saharrea**, Gartzaingoa, azaroaren 15ean, 83 urte zituela.
- **Pedro Jose Apeztegia Oronoz**, Elizondokoa, azaroaren 15ean, 49 urte zituela.
- **Rosario Sarratea Antxorena**, Zigakoa, azaroaren 16an, 90 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Angeles Lurnaga Bengotxea**, Narbartekoa, azaroaren 18an, 89 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Soledad Danboriena Olazar**, Berroetakoa, azaroaren 20an, 82 urte zituela.
- **Encarna Elizaintzin Larregi**, Gartzaingoa, azaroaren 22an, 93 urte zituela.
- **Isabel Zubieta Telletxea**, Lesakakoa, azaroaren 22an, 84 urte zituela.
- **Marcial Telletxea Elizondo**, Igantzikoa, azaroaren 22an, 89 urte zituela.
- **Secundina Bergara Errandonea**, Arantzakoa, azaroaren 24an, 88 urte zituela.
- **Eloina Martin San Matias**, Doneztebekoa, azaroaren 25ean, 91 urte zituela.
- **Juan Evangelista Elizagoien Argarate**, Etxalarkoa, azaroaren 25ean, 89 urte zituela.
- **Calixto Altzuarde Astiz**, Elizondokoa, azaroaren 27an, 90 urte zituela.
- **Feliciana Iparragirre Apezetxea**, Lesakakoa, azaroaren 27an, 82 urte zituela.
- **Julian Irigoien Irigoien**, Erratzukoa, azaroaren 28an, 66 urte zituela.
- **Maria Encarnacion Arruabarren Bulman**, Almandozkoa, azaroaren 28an, 87 urte zituela.
- **Silvestre Juankorena Agesta**, Sunbillakoa, azaroaren 29an, 94 urte zituela.
- **Jose Miguel Zugarramurdi Zestau**, Goizuetakoa, azaroaren 29an, 65 urte zituela.

OROIGARRIA

**Jose Miguel  
ZUGARRAMURDI ZESTAU**

Goizuetan, 2021eko azaroaren 29an hil zen,  
65 urte zituela

Maitatuz eta maitatua,  
umorez eta alaitsu  
egoten zinen beti.  
Zure iloba guztiak  
inguruan dituzula  
gogoratuko zaitugu beti.



**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)


  
**BAZTAN  
BIDASOA**  
Ehorzketaz Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian  
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3  
web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere


**24 ORDU** | **948 48 95 50**  
**365 EGUN** | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeka*

		Astroak, argizagiak	Lurralde	Musika estiloa	Aranondo	Ergelak
		Maltzurkeria	Junta-gailua	Asiako estatua	Jausia, beherra etorria	Izatasuna dutenak
		Irtenarazi				
		Darama				
Txara eremuak	Antzerki mota			Zintzoak		
◆ Izena	Barrea			Atsaldeko otordua		
			Nafarroako udalerria			Errepikatuz, txori mota
			◆ Deitura			Kontsonantea
Arrainen arrautzak				Asiako estatua		
Haitza, harkaitza				Emakume izena		
				Euskaltegi sarea		Ergatiboaren letrak
				Adar		Zer pertsonak?
Gipuzkoako udalerria		Luzera neurri zaharra			Eneka	
Bizkaiko ibaia		Zeuk			Joan den urtean	Behar, egiteko
		Bizkaiko udalerria				50
		Erbioa				Letra grekoa
Lehenengo letra	Europarra eta asiarra					
Emankor	Bokala					
				Gezi txiki		

◆ Goizuetako futbolari ohia


## GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Gure lurraldeko behi basatiak.
- [2] Gure lurraldeko udalerria, Mallerrekan.
- [3] Habe zut.
- [4] Lagatzea.
- [5] Laboreak biltzea.
- [6] Txistua, listua.
- [7] Etxekotutako ugaztun haragijale.
- [8] Kanta, abesti.
- [9] Pluralean, itsas arraina, jateko ona.
- [10] Pisu handikoak.
- [11] Akatsak edo koskak dituenak.

## ERANTZUNAK



# PLAZAN BAZAN



## ENGAINAGARRIAK

Zazpi txatal hauetatik hiru ondoko irudi nagusitik hartuta daude eta beste laurak, berriz, engainagarriak dira. Bereiz itzazu.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)

## SUDOKUA

Egutegiko azken hila abendua da. Lotazila edo nequila ere esaten zaio. Bete itzazu hutsuneak abendua hitza osatzen duten hizkiez (A, B, E, N, D eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	E	B			N
	U				
		D		A	
	A		U		
				B	
A			E	D	

## HAMAIKA IKUSTEKOAK

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



## ITZALA

Ez dakigu Aita Noelen laguntzaileetako bat den, ala Maripurtzil ote den, ipotxez mozorrotuta. Nolanahi dela ere, Olentzerori opari batzuk ostuta alde egin du. Ikusten ari zaren itzal horietatik bakararra da zuzena. Zein da? Bide batez, margotu ezazu zure gustura.



### INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eu/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak)

**Ttipi Txartela**rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

**Eskatu zurea: 948 63 54 58**

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**795** zenbakiko  
irabazleak >



Donostiako Aquariuma - Bi sarrera  
Martin Jose Arraztoa Mendikoa | IRURITA  
Onddo ta Punto - Kamiseta bat  
Antonio Errandonea Maia | BERA  
Salting Iruñea - Bi sarrera  
Begoña Iparrea Etxenike | ZIGA  
Giltxaurdi kiroldegia - Sarrera bat  
Rosario Amigorena Agesta | DONAMARIA  
Irisarri Land - Sarrera bat  
J. Ignacio Larretxea Errandonea | ARANTZA  
Galaxy Park - Bi sarrera  
Norberto Iturralde Azkarraga | AZKOITIA  
Txalaparta - Bi liburu  
Milagros Urrutia Aroztegi | LEITZA  
Txalaparta - Bi liburu  
Francisco Altxu Iparragirre | ITUREN

# Gabonetako zozketak

## 1. lotea

Zugarramurdiko lezeetarako sarrera bat,  
Donostiako Aquariumerako 2 sarrera,  
liburuak, DVDak eta CDak

## 2. lotea

Manuela Ariztela-ren  
telazko mahai-zapiak,  
Salting Iruñea parkerako 2 sarrera,  
liburuak, DVDak eta CDak



## 3. lotea

Buatxabal kamiseta bat,  
BKZ abenturarako 2 sarrera,  
liburuak, DVDak eta CDak